



## Sharon Stonerren hirugarrena

Gaur aurkeztuko dute gaztelekuan | 31



Taldeko kideak. | SHARON STONER

Sara Gartzia eskoriatzarrak tumorea nola gainditu duen azaldu du | 5



Aretxabaletako kiroldegi berria maitzean ireki nahi dute | 22



Lodosako ikastolaren aldeko ekitaldiak gaur Leintz aldean | 5



Iban Gonzalez, Unai semearekin, Etxezarretan, film laburra grabatu zuten lekuan.

## UNESCO ETXEAREN SARIA JASO DU IBAN GONZALEZEK

Eman minutu bat bakearen alde izeneko Nos-otr@s film laburrekin irabazi du; Epele ondoan grabatu zuen, Etxezarretan, eta haren seme Unai da protagonista. | 32

MONIKA BELASTEGI

## Eugenio Otsoak jada hartu du alkate ardura Gatzagan

Mexikon egon da lanean eta ondorioz ordezkoa izan du | 27

## Atez atekoa Debagoieneko herri handienetan jarriko dute 2013an

Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatik martxoan hasi eta ekainera bitartean egingo diren osoko bilkuretan onartuko dute sistema horrekin bat egitea | 4

### SINADURAK

	ESTEPAN PLAZAOLA   6
	6   USOA AGIRRE
	JOSU ELORTZA   17
	24   DORLETA KORTAZAR
	ALAITZ JAUREGI   25
	40   IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38



Iñaki Askasibar.

## 'Aska'-ren alde puntako pilotariak bihar Bergaran | 17

"Hiletik hileria, janaria behar dutenen gero eta eskari gehiago jasotzen ditugu"



Jose Antonio Agirrebeña  
Bergarako Elikagaien Bankuko arduraduna | 8

943 71 48 45

## Hemen GARBIKETAK

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

# Norberaren datuak babestuta daude, baina badakigu?

- Datuen gainean funtsezko eskubideak ditu norberak
- Datuak Babesteko Bulegoak zaintza egiten du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Datuen Babesaren Eguna ospatu zen urtarrilaren 28an Europan, seigarren urtez, herritarrok kontzientzia har dezaten norberaren datuak norberarenak direla eta funtsezko eskubideak dituztela horiek babesteko. Eta horrelako egun bereziek badute eragina: hala, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak (AEPD) 2010ean baino %50 erreklamazio gehiago jaso zituen, eta %34,5 babes-eskaera gehiago.

Hala ere, norberaren datuen babesean erronka handiak daude oraindik, eta jendeak bere eskubideak ondo ezagutzea eta, behar denean, betearaztea da erronka handiena. Beste batzuk teknologia berriek planteatzen dituzte: hala, Espainian, ia biztanleen erdiek ez dakite zelan galarazi identitate-lapurreta Interneten, Microsoft-ek egindako azterketa batek dioenez.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa dago, eta herritarren pribatutasuna babestea da bere eginkizuna, Euskadiko administrazio publikoek herritarren informazioa erabiltzerakoan hori babesteko dauden legeak betetzen dituztela ziurtatuz. Bulegoko zuzendari Iñaki Vicuña de Nicolasek azpimarratzen duenez, "Europan, zortekoak gara, datuen babesa funtsezko eskubidea delako, horrek dakartzan berme guztiekin". Fun- tsezko eskubide hura urratu diotela uste duen edozeinek bulegoa- rengana jo dezake.

## Jaikitzen garenetik

Eta babesteko asko dago, izan ere, Vicuña de Nicolasek dioten moduan, datuak "ez dira bakarrik administrazio publikoei eta enpresei ematen dizkiegunak; jaikitzen garenetik etengabe gure datuak ematen gabilta, argia pizten dugunean kontsumoa erregistratzen da, dei bat egin edo Interne-

## ESANAK

**"Eskatzen dizkiguten datuek esaten duten helburua betetzeko izan behar dute beti"**

IÑAKI VICUÑA DE NICOLAS  
DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO  
ZUZENDARIA

## Funtsezko lau eskubideak

### ESKURATZEKO

Norberaren datuak norberarenak dira, eta erakundeek edo enpresek lanerako daukate. Denon eskubidea da gure ze datu daukaten jakitea.

### ZUZENTZEKO

Gure datuak zuzenak ez badira, eska diezaiekegu zuzen ditzaten, eta eskaera jasotzen duenak bete egin behar du, trukean ezer eskatu gabe.

### EZEZTATZEKO

Iruditzen bazaigu enpresa edo erakunde horrek dagoeneko ez duela gure datua batu zuen helburua betetzeko behar, gure eskubidea da datua bere fitxategitik ezaba dezan.

### UKATZEKO

Eskubidea dugu eskatzen diguten datua ez emateko: adibidez, iruditzen bazaigu ez dela beharrezkoa esaten diguten helbururako.


tera konektatzen garenean ere bai, autobidean ordaintzen dugunean, bideo-zaintza dagoen kale batetik gabiltzanean, medikuaren kontsultara joaten garenean... denak arrastoa uzten du, dena gordeta gelditzen da. Zer esanik ez, Google, Facebook eta antzeko enpresa handiek egiten duten datu-tratamendua".

Norberaren datuak edo datu pertsonalak dira pertsona identifikatzen duten datuak: adibidez, osasun-datuak (norberaren osasun-egoera deskribatzen dutenak), ordenagailuan gordetzen den helbide elektronikoen fitxategia, norberaren irudiaren edo ahotsaren grabaketa –norbera identifikatzeko balio dutenean– eta beste mila datu-mota.

Horren aurrean, datuak txarto erabiltzea "oso erraz" gerta daitekeela onartzen digu Vicuña de Nicolasek. Horri erantzuna ematera datoz datuak babesteko legeak. Gainera, jendartea ere bide onetik doa: euskal datuen babeserako zuzendariak dioenez, bulegoak "kontsulta eta salaketa gehiago jasotzen ditu urtetik urtera, eta hori zentzuzkoa da, eskubidea gero eta ezagunagoa den neurrian, gehiago exijitzen delako". Gaika, kontsulta edo babes-eskaera gehienak hauen gainekoak dira: osasuna, hezkuntza eta segurtasuna; eta tipologiaren arabera, datu-uztea, herriko errolda, bideo-zaintza, datuak eskuratzeko eskubidea eta onspen-printzipioa.

## Fitxategien erregistroa dago

Euskadiko entitate publiko guztiak –eta, Espainiaren kasuan, Espainiako guztiak– derrigortuta daude Bulegoari berri ematera datu pertsonalak dituzten fitxategiak sortzen, aldatzen edo ezabatzen dituzten bakoitzean. Euskadiko fitxategien erregistroa euskal bulegoan dago, eta honako webgunean kontsultatu daiteke: [www.avpd.euskadi.net](http://www.avpd.euskadi.net).



Datu pertsonalen gaineko eskubideez informatzera derrigortuta daude haiek erabiltzen dituztenak.

[avpd.euskadi.net](http://www.avpd.euskadi.net). Fitxategi bakoitza zertarako den, zeinek tratatzen duen, zelako datuak dituen eta antzeko informazioa ematen da erregistroan. Hori bai: erregistroak ez du erakusten fitxategian dagoen informazioa, baizik bakarrik fitxategiaren ingurukoa. Datu horiekin, herritarrek euren eskubideak betearazi ditzakete.

Espainian eta Hego Euskal Herrian, 15/1999 Lege Organikoak babesten ditu norberaren datuak. Eskubideak lautan laburtu daitezke: datuak eskuratzeko, zuzentzea, ezabatzea eta haiek tratatzearen aurka egotea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zalantzak argitzeko dago.

## FITXA

Interneten ere badaude datuak babesten laguntzen diguten erakundeak.

### DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA

Webgunea: [www.avpd.euskadi.net](http://www.avpd.euskadi.net).

Telefonoa: 945 01 62 30.

### INTERNAUTAREN SEGURTASUN BULEGOA

Webgunea: [www.osi.es](http://www.osi.es).

Telefonoa: 901 11 11 21.

### ESPAINIAKO DATU-BABES BULEGOA

Webgunea: [www.agpd.es](http://www.agpd.es).

Telefonoa: 901 10 00 99.

Iñaki Vicuña de Nicolasek pista batzuk ematen ditu, ordea: "Eguneroko bizitzan, edozein herritarrek datuak eman beharko dizkie beste batzuei, enpresei edo administrazioei: adibidez, kontratu bat egiteko, bankuan kontua irekitzeko edo udalari laguntza bat edo zerbitzu bat eskatzeko. Kasu guztietan, kontuan izan behar dugu eskatzen dizkiguten eta ematen ditugun datuak esandako helburua betetzeko egokiak eta neurritzekoak izatea. Hala, ez du inongo zentzurik erosketa bat egiteko jaioterria eskatzeak. Askotan, sena erabiltzea nahikoa izango da". Bestalde, administrazio publiko batek eskatzen dituen datuek, kasu gehienetan, esandako baldintzak betetzen dituzte, eta tasatutako administrazio-prozedurengatik eskatutakoak dira. Normalean, beraz, hor ez da zalantzarik sortuko.

Baina zalantza horiek eragiten dituzten egoera asko sor daitezke. Adibidez, norberak eskubidea du bere datuak edozein euskarrirako telefono-gidetan ez agertzeko, eta agertzen badira, haiek kentzeko; eskubidea du eskatu ez duen publizitaterik ez jasotzeko, eta bidaltzaileari eskatzeko bere datuak nondik hartu dituen; telekomunikazio-zerbitzuetan, eskubidea du herritarrek bere erabileraren datuak ezabatu daitezkeen dagoeneko beharrezkoak ez direnean; bere datuak helburu komertzialekin erabil daitezkeen bakarrik aurrez baimena eman badu; edo bere zenbakia identifika ez dadin telefono-dei bat egiten duenean;



Lege Organiko horrek langileen osasunaren gaineko informazioa duten fitxategiak estaltzen ditu. Osasun-datuak; eta bakarrik norberaren idatzizko baimenarekin tratatu ahal izango dira norberaren ideologia, afiliazio sindikala, erlijioa eta sinismena adierazten dituzten datuak. Horiek adibide gutxi batzuk ez dira.

Oinarrizko eskubideen gainean enpresak edo erakundeak jasotzen dituen eskaerak hilabetean erantzun beharko ditu. Eskatutakoa betetzea dagokiola erabakitzen denean, hori bete beharko da erabakia hartu eta hurrengo 10 egunetan.

#### "Gu gara produktua"

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko goi-arduradunak azaltzen duenez, Interneteko datu-tratamendu handiak egiten dituzten enpresek -Google, Facebook, LinkedIn...- "datuak marketinerako erabiltzean oinarritutako negozioak dira. Bezeroak gabela uste dugu, baina, benetan, salerosten den produktua gara". Horregatik, enpresa horiek "datuak ondo erabiltzen dituztela edo eskubideak errespetatzen dituzten galdetzerakoan, erantzuna ezezkoa izan behar da; baina gero eta hobea da eboluzioa, gero eta lege gehiago daude eta agintarien eta jendartearen esijentzia-maila gero eta handiagoa da".

Eta kontrola egiten duten erakundeak ere gero eta zorrotzago dabilta, modu antolatuan lan egiten eta eragiten.

tuzten enpresak eta erakundeak . | IMANOL SORIANO

MIKEL OLASAGASTI | INFORMATIKARIA

## "Interneten ipintzen duzun zerbaitez damutu behar baduzu, ez ipini"

Mikel Olasagastiren gomendioa garbia da: ezer Interneten ipini aurretik, pentsatu ondo.

#### Pribatutasun alde- tik, ondo erabiltzen dugu Internet?

Oro har, ez, batez ere gazteek, ez dutelako arriskurik ikusten: ez dute pentsatzen orain ipintzen duten argazki batek, komentario batek...

hor jarraituko duela hemendik urte batzuetara, eta eragina izan dezakeela lana bilatzen dutenean edo lagun batek bere gaineko bilaketa bat egiten duenean, adibidez.

#### Nork bere pribatutasuna babesteko lehen araua...

Ez baduzu nahi zerbaitez egin duzula inork jakiterik, ez egin. Nahiz eta norbere profila, argazkiak, datuak... pribatu moduan konfiguratu, ez dakigu lagunaren ordenagailutik zeinek ikus dezakeen. Zerbaitez damutu behar baduzu hemendik bost urtera, ez ipini.

#### Eta enpresen aurrean?

Aukera gutxi ikusten dut. Pentsa: Facebooken atzean enpresa asko daude gure datuez aprobetxatzen, eta ez dakigu nola erabiltzen dituz-



Mikel Olasagasti. | LEIRE KORTABARRIA

ten. Guk publikoki ematen ditugun datuak dira: gure gustuak, zale-tasunak... Hori guri publizitatea saltzeko erabiltzea oso erakargarria da. Facebookek 800 milioi erabiltzaile ditu eta datu-base handi horrekin zer egiten duten ez dakigu.

#### Googlen pribatutasun politikak bateratzeak zelan eragiten dio erabiltzaileari?

Googlek zerbitzu asko ematen ditu orain eta bakoitzak bere pribatutasun politika zuen. Orain, horiek guztiak bateratu egin dituzte, eta datuak elkarrekin konpartitzea erabaki dute. Erabiltzaileondako, ez dago aldaketarik: gure datuak orain arte bezala erabiliko dituzte.

## Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza zure neurrira

- Eraikuntza-lanak hasi dira dagoeneko.
- Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza.
- Ordainketa planifikatzeko denborarekin.
- 2013an zure etxebizitza eskuratuko duzu.

2 LOGELA: 198.000€\*

3 LOGELA: 240.000€\*

\* Gehi BEZ.

## ARRASATE



LKS

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

943 71 22 59

PROMOZIOAREN  
FINANTZAKETA ETA  
ABAL EMATEA

kutxa

UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN:

sukia GEDI

# Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Oñati eta Aretxabaletan atez atekoa 2013an

Martxotik ekainera arte egingo dute bat sistemarekin, osoko bilkuretan

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Bildu agintean dagoen Gipuzkoa-ko 34 udalerritan hondakinak atez ate batzeko sistema ezarri nahi dute 2013an. Udalerririk otsailtik ekainera bitartean egingo dute bat sistema horrekin, osoko bilkuretan onartuta. Eta hala eman zuten aditzera eguaztenean herriotako zenbait alkate eta zinegotzik hedabideen aurrean, Donostiako Miramar jauregian egindako agerraldian.

Debagoieneko ordezkariak ere izan zen agerraldian; Arrasateko, Bergarako, Eskoriatzako eta Oñatiko alkateak hartu zuten parte. Hain justu ere, Mikel Biainek, Oñatiko alkateak, eman zituen azalpenak Lezoko alkate Ainhoa Zabalorekin batera, *Gipuzkoarrok ongi egiten dugu* leloa atzean zutela.

## Bailarako bost herritan

Debagoienari dagokionez, Bergara, Oñati, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaleta daude 34 herri barruan eta martxoan hasi eta ekainera bitartean onartuko dute, osoko bilkuretan, atez ateko sistema. Bergaran eta Oñatin datorren hilean, martxoan, egingo duten osoko bilkuran; Aretxabaletan eta Eskoriatzan, maiatzean; eta Arrasaten, ekainean.

Gaur egun, Usubilen, Hernanin, Oiartzunen eta Antzuolan darabilte hondakinak batzeko atez atekoa. Eta, beste 34 udalerrigehituta, 300.000 gipuzkoarri eragingo die atez atekoak 2013an.

Helburua Gipuzkoa "zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean urratsak egitea" dela diote Bilduko alkateak. "Gipuzkoar guzti-guztiok arazo bat dugu hondakinekin. Arazo larria, gainera. Azken hamarkadatan



Bilduko ordezkariak eguaztenean Donostiako agerraldian, Mikel Biain buru dutela. | ARGAZKI PRESS

hondakinak zabor moduan tratatu izan ditugu, neurrigabe sortu, nahasita bildu eta mendizulo beltz batera bota. Konponbidea zelakoan kutsadura

sortu dugu, gure osasuna arriskuan jarri eta Gipuzkoa hondatze bidean ipini", esan zuen Oñatiko alkate Mikel Biainek. Eta gehitu zuen: "Hiritarren

eta pertsonengan sinesten dugu eta haiekin batera urratsak gin nahi ditugu sortzen den zabor kopurua txikitu eta birziklapena handitzeko".

## Debagoiena Zero Zabor taldea sortu da

Eguazten iluntzean Debagoiena Zero Zabor taldea aurkeztu zuten Bergaran. "Hondakin kudeaketa sistema desberdin baten beharra" ikusten dute eta uste dute atez ateko bilketa dela "gaur egun munduan ditugun sistemen artean zero zabor filosofiarekin bat datorren bakarra". Taldea sortu da "zero zabor eredu ezagutarazi eta horren inguruko eztabaida sustatu beharra dagoela" uste dutelako; azken batean, "informazioak eta ezagutzak erabakiak



Debagoiena Zero Zabor taldeko kideak. | AMAIA TXINTXURRETA

norabide onean hartzea bermatuko" duelako. Bide horretan, hainbat herritan Zero Zabor taldeak sortu dira, eta herri bakoitzak bere izaera duela garbi izanda, taldeon arteko elkarlanerako eta koordinaziorako eratu dute

Debagoieneko Zero Zabor. Dagoeneko antolatu dute lehen hitzaldia: *Zero zabor: posible da atez atekorik gabe?* Hilaren 28an izango da, 19:00etan, Arrasateko Kulturaren.

## "Pazientzia" eskatu dute Deman SAko langileek

Mugagabeko greban daude salmenta-makina arloan diharduen enpresako langileak

M.B. | BERGARA

Prentsaurrekoa egin dute asteon salmenta-makinaren arloan -kafemakinak, litxarrerria-makinak...- diharduen Deman SA enpresako ordezkariak. Mugagabeko greban daude urtarilaren 24a ezker, eta horren arrazoia azaltzeko egin zuten agerraldia astelehenean, ELAk Bergaran duen egoitzan.

Euskal Herriko langileei dagozkien gaiak bertan negoziatzea eta kaleratutako langileak berriz hartzea eskatzen dute. Bestalde,

"pazientzia eta esfortzua" eskatu diete hornitzen dituzten enpresetako langileei; 100 inguru Debagoienean, hala nola Eskualde Ospitalea, Arrasateko Udala, Garay, Zahor, Torunsa, Tavesa, Arcelor eta Tesa.

**Beste negoziazio-esparru bat** Uztail amaieran hasi ziren gorabeherak, Autobar multinazionalak Deman erosi zuenean: "Madrilera batzar batera deitu gintuen zuzendaritzak eta jakinarazi zigun fusio



ELAko ordezkariak asteleheneko agerraldian. | MAIDER ARREGI

prozesua abiarazi behar zuela Estatuan absorbitu zituen salmenta-makina enpresa guztiakin. Era berean, esan zigun berrantolaketa horren ondorioetako bat izango zela jendea sobratuko zela. Hala,

EAE (ERE) bat abiatuko zutela esan zuten eta hori negoziatzeko batzorde bat osatzeko ideia planteatu zuten; 26 delegatuz osatutako batzordea". Eta hor hasi zen lehen desadostasuna: 26 ordeza-

## Helburua, %90 birziklatzea

Azaldu zuten, hondakin %90 birziklagarriak diren arren, Gipuzkoan %25 inguru soilik birziklatzen dira, eta, horren harira, Bilduko hautetsiek garbi dute "orain arteko ekimenek huts" egin dutela eta "antzuak" direla, eta horri buelta emateko euren esku dauden "neurri zehatzak hartuko" dituztela gehitu zuten.

Zubietako errauskailuari dagokionez, adierazi zuten "gezurra" dela "Zubietako errauskailua soluzioa" dela. "Zabortegien arazoa amaituko omen zuen. Ezkutatu egingo dute, ordea, errauskailuak ere zabortegia beharko lukeela, osagai toxiko eta arriskutsuak biltzeko zabortegi beldurgarria".

## Konpostaje planta, Epelen

Batutako hondakin organikoak konpostaje plantetan pilatu nahi dute. Hala ere, Azpeitiko Lapateko planta gainezka dago eta Bergaran (Epelen) aurreikusitua den eraikitzeke dago oraindik. Dena den, Mikel Biainek azaldu zuen epe labur eta ertainera baduela irtenbidea horrek; Nafarroako eta Bizkaiko konpostaje plantetara eroatea, esaterako.

Birzikla ezin daitekeen hondarraren gainean, hau da, errefusarako, Oñatiko alkateak esan zuen "beti" egongo dela "zati txiki bat", eta, horretarako, "zabortegi txiki bereziak" aurreikusi dituztela gaineratu zuen.

ri horietatik, 21 CCOO eta UGT sindikatuei zegozkien; 2 ELAri; bat LABi eta beste bat USOri. ELA ez dago konforme negoziazio mahai horrekin eta uko egin zion: "Demaren gehiengo ELA afiliatuta dagoelako eta Madrilgo negoziazio-batzordeak ez dituelako ordezkaten ez gure langileak, ez gure errealitate sindikala; gure negoziazio-esparrua Euskal Herria da".

Baina zuzendaritzak entzungor egin zuela azaldu zuten eta abenduaren 28an akordioa iritsi ziren zuzendaritza eta negoziatza-mahaia, eta, besteak beste, 120 lagun kaleratzea adostu zuten -sei Demanekoak-, eta baita ELAri gutxi iruditzen zaizkion zenbait kalte-ordain ere. Hala, kaleratzeak gauzatu zirenetik daude greban, Asanbladan gehiengo onartuta, agerraldian azaldu zuten.

Sara Gartzia | Langilea eta Ingeniaritza ikaslea

## "Burutik pasatu ere ez zitzaidan egin hil nintekeelako ideia"

Burutik tumorea kendu zioten udan 24 urteko eskoriatzarrari; bizi izandakoa partekatu nahi izan du



Ebakuntza egin zioten eguna tatuatu du besoa Sara Gartziak. | MONIKA BELASTEGI

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE  
Zer gertatu zaizu?

Iaz, udan, zorabioekin hasi nintzen. Sendagilearengana joan eta bertigoak izan zitezkeela esan zidan, baina eguna joan eta eguna etorri, ez ziren zorabioak joaten. Bestalde, hori baino egun batzuk lehenago, orban bat ikusten hasi nintzen begiratzen nuen leku guztietan. Hala, medikua-rengana joan nintzen berriz eta optikoarenera bidali ninduen. Hark nerbio optikoak handituta nituela ikusi zuen eta TACa egitera bidali ninduen.

**Eta han ikusi zuten tumorea.**

Hasiere batean, kistea izan zitezkeela esan zidaten, baina badaezpada, zuzenean Gasteizera bidali ninduten, Santiago ospitalera ingresatzera. TACa egin eta ingresatzea, guztia egun berean izan

**"Medikuek beltz jarri zidaten guztia eta ni arrosa ikusten saiatu nintzen"**

zen. Han hamar egun egon nintzen eta hainbat proba egin zizkidaten: sentsibilitatea neurtu zidaten esku eta oinetan; ordu eta erdiko erresonantzia magnetikoa egin zidaten... Eta han ikusi zen tumore onbera nuela.

**Albiste gazi-goza.**

Bai. Tumorea onbera zen, baina oso leku txarrean zegoen ebakuntza egiteko. Hain justu ere, erresonantzia ohikoa baino luzeago egin zidaten, bost proba egin zizkidatelako resonantzia bakarrean. Eta helburua izan zen nire buruaren GPSa egitea ikusteko

zehazki non zegoen gaitza eta hara iristeko bide egokiena zein izan zitekeen. Aurretik egindako TACean ere ikusi zuten oso leku txarrean zegoela.

**Non zegoen?**

Burmuinen erdi-erdian, beheko aldean zegoen eta horra behera iristeko burmuinak zeharkatu egin behar ziren. Ondorioz, arrastoak utziko zizkidala esan zidaten.

**Zer-nolakoak?**

Besoa ezin mugitu, erren, gurpilezko aulkian, begetal... Oso beltz jarri zidaten medikuek guztia.

**Nola hartu zenuen albistea?**

Ni flipatuta geratu nintzen eta amak oso gaizki pasatu zuen. Hala ere, burutik pasatu ere ez zitzaidan egin hil egingo nintzela. oso jarrera baikorra izan dut denbora guztian eta uste dut hori oso garrantzitsua dela sendatzeko. Medikuek oso beltz jarri zidaten guztia eta ni arrosa kolorekoa ikusten saiatu nintzen.

**Abakuntza 10ean egin zizuten ebakuntza.**

Bai eta guztia oso ondo joan zen eta zait inolako arrastorik geratu. Medikuek ere harrirituta geratu ziren. Nik, egia esan, ebakuntza ondorengo egunez ez dut oroitzen handirik, hutsune handiak ditut. Familia da gaizkien pasatzen duena. Amak oso gaizki pasatu zuen eta anaiak ere bai. Une batean amak ez zion UCira sartzea, irteetan oso gaizki pasatzen zuelako.

**Mezu bat helarazi nahi duzu.**

Bai. Badakit inguruan badirela antzeko beste kasu batzuk eta animoak emateko modu bat da hau. Izan ere, halako gaitzek ez dute zertan ondorio larria izan. Eta jarrera baikorrak ere asko laguntzen duela uste dut.



Olarte gunean aurkeztu zuten egitaraua ikasle, guraso eta irakasleek. | MONIKA BELASTEGI

## Lodosako ikastolarekiko elkartasunez eta txanpenez beteko dituzte gaur plazak

M.B. | ARRASATE

Gaur, otsailak 24, Lodosako ikastolaren aldeko ekimena egingo du Arizmendi Ikastolak. Helburua da Ibaialde Ikastolaren bizi iraupenerako laguntza ekonomikoa batzea, eta horretarako, hiru ekitaldi sorta egingo dituzte Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako herriko plazetan, eta herritarrak parte hartzeraz gonbidatuta daude.

Asteon eman dute ekitaldion berri Arrasaten egindako prentsaurrekoan, eta, oro har, "ikas-tolen egoera batere erraza" ez dela azpimarratu bazuten ere, "zehazki Nafarroako ikastolen kasuan hil edo bizikoa" dela nabarmendu zuten. Horrekin batera, Foru Gobernuak ikastolei inposatutako finantzaketa-ereduak eta Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak orain arte egin dituzten ekarpenak bertan behe-za dezakeen Nafarroan ikastolak desagertzeko bidean jartzen ditue-

la azaldu zuten. Horren harira, Lodosako Ibaialde ikastola "kin-ka larrian" dagoela azpimarratu dute, eta elkartasuna dela geratzen den bide bakarra.

Gaurko ekitaldiek berezitasun batzuk izango dituzten arren, hezurdura antzekoa izango dute. Lodosatik 60 bat laguneko ordezkari-za etorriko da.

### HIRU HERRIETAKO EGITARAUAK

#### ESKORIATZA

**15:00** Almen eta Jose Aranako ikasle-irakasleak plazan elkartu eta txanponak pankartan uzten joango dira.

**16:00** Aurpegi-margoketa eta Ibaialderen aldeko bertsoak.

**16:30** Bideoa eta eragileen parte hartzea.

**17:00** Txokolatada.

**19:00** Bukaerako ekitaldia.

#### ARETXABALETA

**15:30** Almen eta Basabeazpikoen ekitaldia.

**17:00** Trikitilariak, txosna, haurrentzako tailerrak, murala, Lodosako Ikastolako denda.

**17:30** Loramendi bertso-eskolako saioa.

**18:00** Kanta herrikoiak.

**18:30** Herritarrak dantzan.

**19:00** Bukaerako ekitaldia.

#### ARRASATE

**15:00-16:30** Sebero Altuben Argitxo Haur Hezkuntzako ikasleekin dantzan egiteko. Laubide plazan Lehen Hezkuntzako ikasleak "SOS Lodosako Ikastola" lurrean irudikatuko.

**16:00** Goikobalu abesbatzaren emanaldia.

**16:30** Karaokea.

**17:45** Herrixa Dantzan.

**19:00** Lodosako eta Arizmendiaren agurra.

### Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatua egingo da domekan, eta izen-ematea zabalik dago

Gerra zibila oinarri hartuta, ibilbide horretan Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen zenbait xehetasun ezagutzeko aukera egongo da. Domekan, hilaren 26an, izango da, eta hiru ordu eta erdi iraungo du. Prezioari dagokionez, doan da 0-6 urte artekoendako; 7 eta 16 urte artekoek 2 euro ordaindu beharko dituzte eta nagusiek, 5 euro. Izen-ematea beharrezkoa da 943 71 89 11 zenbakian edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbidetan.

### Probintziako farmazia guztien informazioa jasotzen duen mugikorrerako aplikazioa kaleratu dute

Gipuzkoako Sendagileen Elkarteak kaleratu du aplikazio hori, iOS eta Android sistema eragileetarako bertsioetan. Aplikazioak erabiltzailearen datuak GPS bitartez jaso eta inguruko farmazien informazioa kargatzen du, eta farmaziok zabalik edo itxita dauden adierazi. Gipuzkoako farmazia guztien informazioa dakar aplikazioak, eta eremu txikiko NFC sare teknologia ere badarabil.



MONIKA BELASTEGI

### 700 bat pintxo banatu zituzten

X. jardunaldi gastronomikoen barruan egindako dastatzeak ikusmin handia eragin zuen Bergaran martitzenean. Hirugihar, txistor eta txerri-masail 700 bat pintxo eta Errioxako ardo banatu zituzten antolatzaileek, 1,5 eurotan. Martxoaren 10ean, Larrañaga, Mujika eta Raizabal gozotegiek egindako San Blas opilak dastatu ahal izango dira.

## ZABALIK



ESTEPAN PLAZAOLA  
http://goiena.net/iritzia/

## Eskua

**G**ustatzen zait futbola ikustea. Umetan sutsuagoa nintzen, baina gaur egun ere telebistan sarri samar ikusten dut eta tarteka, oso noizbehinka, joan izan naiz zuzenean ikustera ere. Eta joan ohi diren gehienei gertatuko zaien bezala, batzuetan gozatzea eta beste batzuetan sufritzea egokitu zait.

Atotxan nintzen 1976ko abenduaren 5eko partidu mitiko hartan, Iribarrek eta Kortabarriak ikurrina atera zutenean eta Errealak Athletic 5-0 irabazi zionean. Oraindik gogoan daukat Satrusek area ertzetik buruarekin sartu zuen gol bikaina.

Baina tokatu zait ez dakit sufritzea beste, baina bai deseroso sentitzea, latsa sentitzea... Ez zait ahaztuko orain dela 20 bat urte, Boronat entrenatzaile zela, nola atera zuen Uria aulkixotik eta, bestelako deliturik barik, gure alboko bakarren batzuk hasi zitzaizkion jokalarri gaixoari hijoputaka...

Horregatik izan zait pozgarri Aretxabaletako Kirol Elkar-teak martxan jarri duen Eskua proiektua ezagutzea. Sinesten dudalako kirolak ikaragarriko indarra izan dezakeela bai txarrerako eta bai onerako. Kirola izan daitekeela indartsuena goraiatu eta ahulena mesprezatzeko, baina izan daitekeela apalenei lagundu eta desberdintasunak murrizteko ere, izan daitekeela lehiakideen arteko gorrotoa pizteko edo adiskidetasunak indartzeko, izan daitekeela pertsonaren sentimendurik ankerrenak azaleratzeko edo giza baloreetan hezteko.

Aretxabaletan bigarrenaren aldeko hautu garbia egin dute. Ulertu dute ezin direla euren ikasgai bakarrak prestakuntza taktikoa, teknikoa eta fisikoa izan. Ulertu dute horiekin batera landu behar direla pertsonen heziketa emozionala, besteeiko begirunea, elikadura osasuntsua, herri honetako hizkuntzarekiko atxikimendua, ingurumenarekiko errespetua... Eta helburu horrekin lanean jarri dira ume, gazte eta nagusi... Ibilbide arrakastatsua opa diet. Aupa, UDA!

## USTEAK USTE

USOA AGIRRE | uagirre@goiena.com

## Bizitza pinteresantea

**G**ogoratzen naiz oraindik blogari izatea zeoze izatea zenean..." tuita irakurri diot aste honetan Joseba Kamio-ri. Interneten azkar ari dira aldatzen gauzak eta zaila da guztiari heltzea. Duela urte batzuk Interneten zerbait izateko blogari izan behar zenuen. Gaur egun, horrez gain, beste hamaika lekutan aktibo egon behar duzu: Twitter, Flickr, Facebook, Posterous, Tumblr, Google eta plusak. Orain, sare sozialik *it*-ena da Pinterest. Aurreko guztiekin bezala sortu dira sarean Pinterest erabiltzeko tutorialak, ikastaroak han eta hemen... Geroz eta zailagoa da bizitza birtualetik fisikora pasatzea; biek osatzen dute nire bizitza erreala.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Geopolitika eta anti-industria Oscarretan

Mikel Garcia

http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Hollywoodeko ordezkarri aske eta garbiek [barreak] erabaki dute dagoeneko nortzuk merezi dituzten igandean banatuko diren Oscarrenak.

Baina Film Onenaren eta Ingelese Ez Den Film Onenaren sariak faborito direnek irabazten badituzte, kuriosoa izango da.

Ingelese Ez Den Film Onenaren hautagai kutunak *A separation (Jodaeiye Nader az Simin)* du izena. Harrigarria da istorio xume eta itxuraz arruntak zenbat sakontasun eta emozio gorde ditzakeen bere baitan: garrantzi gutxiko lapurreta bat, nahi gabe emandako bultzada, bikote baten banaketa hasiera batean hutsala... zama pisutsu bilakatuko dira eta bueltarik gabeko bide malkartsuan amilduko, ertz ugariko errealtatearen isla. Iraniarra da Asghar Farhadi zuzendariaren pelikula hau. Mahmoud Ahmadinejadren Gobernuak arbuaturiko

zuzendari iraniarrei elkartasuna adierazteagatik –tar-tean Jafar Panahi kartzelaratua edo Bahman Ghobadi erbesteratua–, filmaren errodeja gelditzera behartu zuten Farhadi. Barkamena eskatu ostean, ordea, eta batez ere nazioartean sariz sari dabilenetik, Teheranen babes sutsua du pelikula. Farhadik berak, diplomazia handiz erantzuten ditu kazetarien galdera arantzatsuenak, batzuk zein besteak ez mintzeko hitzak neurtuz. Kontua zera da, Ahmadinejadren sostengua duen lan batek lortuko al du Oscarra? Zenbaterainoko eragina izan dezake AEBen eta Iranen arteko gatazkak? Ezinikusiak salto egingo al du zarpigarren artera? Hori gutxi ez eta Ekialde Ertaineko interes politikoen *ménage à trois* honetan beste protagonistetako bat den Israel ere hautagai da sari bererako, *Hearat Shulayim (Footnote)* lanarekin.

Pelikula Onenaren garaikurra jasotzeko berriz, estreinatutako zenetik urratutako bide arrakastatsuan jada makina bat sari lortu dituen *The Artist* ekoizpen frantziarrak aukera handiak ditu. Zuri-beltzean, mutua eta

industriaren aurrekontu hanpatuetatik aldendua, Oscarra ematea bere buruari harriska egitea bezalatsu litzateke: batetik, ikusgarritasunaren, efektu berezien eta hiru dimentsioen aldeko apustua egiten duen Hollywoodeko ereduaren kontrako norabidean doalako. Michel Hazanavicius zuzendariak erakutsi du, modu originalean kontatutako istorio fresko eta burutsuek harrera bikaina dutela kritikaren eta publikoaren artean. Bestetik, zeharkakoa baina argia delako *The Artist*-ek industriaren barrunbe egiten diren kritika, zinemak berak sortutako produktuak gailurrean paratzeko eta handik lokatzetara jaurtitzeko duen trebezia salatuz.

Dena den, biak ala biak izan daitezke garaile.

Industriak maisutasunez daki *mainstream*-etik kanpo dagoena irensten, barneratzen eta bere egiten.

Edo, ikuspegi baikorragotik, Oscarren kultur ekitaldia dira [barreak berriz] eta jakin badakigu kultura ez dagoela interes politikoen, industriaren apeten, faktore ekonomikoen eta marketin operazioen menpe [barre algarak].

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza.

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
**ARRASATE 20500:**  
Utalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutba  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:** Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Legu Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale.  
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



**Euzko Jaurlaritza**  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





Jose Antonio Agirrebeña, Elikagaien Bankuak Bergaran duen biltegian. | ENEKO AZKARATE

**Jose Antonio Agirrebeña** | Gipuzkoako Elikagaien Bankuko Bergarako arduraduna

## "Hiletik hilera, janaria behar duen gero eta eskari gehiago jasotzen ditugu"

- ▶ Bergarako Elikagaien Bankuak urtebete egingo du aurki
- ▶ Debagoienari ez ezik, beste eskualde batzuei ere ematen die zerbitzu

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Urtebete egingo du laster Bergarako Elikagaien Bankuak. Oiarzungoarekin batera, Gipuzkoan dagoen bakarra. Elikagaiak batu eta premia dutenei banatu. Hori ere da duten egitekoa. Zehaztasun gehiago eman dizkigu Bergarako Bankuko arduradunak, Jose Antonio Agirrebeña.

**Laster urtebete beteko da ireki zenutela Bergarako Elikagaien Bankua. Zer moduz?**

Ondo joan da urtea, hasi ginetik asko aurreratu dugu: gehiago batzen dugu, hobeto, hornitzaile gehiago ditugu, boluntario gehiago ere bai... Iaz martxoan ireki genuen Bergarako Elikagaien Bankua eta apirilera egin genuen lehenengo elikagaien banaketa.

**Jendeak ulerdez: zer da Elikagaien Bankua?**

Erakunde bat, legez onartua, apolitikoa, akonfesionala eta irabazi asmorik bakoa.

**Eta zein da zuen egitekoa?**

Elikagaiak jaso eta behartsuei banatzea. 1997an hasi zen lanean, Oiarzunen. Ikusi zuten elikagai banatzaile edo saltzaileek janari asko eta asko bota beharrean izaten zirela; hau da, alferrik botatzen zutela. Eta, bestalde,

ikusten zuten jendea premian zegoela. Halaxe hasi ziren boluntario batzuk eta urtetik urtera hazten joan zen. Elikagaiak, lehen, zaborrontzira joaten ziren. Orain, hori saihesten dugu: batetik, aprobetxatu egiten da janaria, baina, bestetik, zabor kopuru bat ez sortzea lortzen da.

**Inguruan, Oiarzungoaz gain, beste non daude elikagaien bankuak?**

Gipuzkoan bi daude eta gainerako lurraldeetan ere badaude. Euskal Herriko batzorde bat dago eta, aldi berean, batzorde hori Espainiako Elikagaien Bankuko Federazioko kide da. Lurralde bakoitzean bat dago. Gipuzkoan, bi.

**Zein da Bergarako Elikagaien Bankuaren funtzionamendua?**

Bergarako San Juan auzoan biltegi bat daukagu, 200 metro koadrokoa. Hotz-ganbera bat daukagu, izozkailua ere bai, eta bulego txiki bat. Bankuak hilean behin jaso eta banatzen ditu elikagaiak. Beste banku batzuetatik ere etortzen zaizkigu elikagaiak. Horretaz gain, azken minutuko elikagaien programa ere badugu. Eroskik, Carrefourrek, El Corte Inglesek... egunero-egunero beritzen dituzte apalategiak, eta pro-

duktu freskoak edo iraungitzeko daudenak edo itxura txarra duten edo mazpilduta dauden frutak, esaterako, egunero jasotzen ditugu; premia dutenen artean banatzen ditugu.

**Nori banatzen diozue?**

Astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, 09:30erako joaten da Arrasateko Hiper Eroskira gure hozkailu-furgoia. Batzuetan 100 kilo eta beste batzuetan 300 kilo egoten da jasotzeko. Han jasotzen ditu elikagaiak, eta Bergarara ekarri. Bospasei lagun izaten ditugu egun bakoitzean boluntario lanetan, jaso, sailkatu eta berriro ere banatzeko. Banatzeko

moduan ez daudenak zaborrera botatzen dira. Hala ere, pentsatzen gabilta konposta egiteko edukiontzia pare bat ekartzea hona, geure biltegiaren ondoan ortua daukagu-eta. Hartara, konposta ongari moduan erabili eta zabor gutxiago sortzeko.

**Debagoienari ez ezik, Gipuzkoako beste eskualde batzuei ere ematen diezue zerbitzua Bergararik, ezta?**

Bai; Debagoiena, Debabarrena, Urola eta Goierri. Ikaztegiatik Eskoriatzaraino, Zumaia, Azpeitia...

**Zenbat erakunderekin diharduzue harremanetan?**

**"Udalekin, etorkinen elkarteekin-eta egiten dugu lan"**

**"1.300 pertsona baino gehiagori banatzen dizkiegu elikagaiak"**

**"Europako Batasunetik 830.000 kilo janari etorri dira hona"**

**"Saltoki handietatik eta elikagai ekoizleetatik datorkigu janaria"**

Une honetan, guztira, 30 erakunderi ematen diogu zerbitzua. Iaz, apirilaren 10ean, Oiarzundik jaso genuen zerrendarekin hasi ginen elikagaiak jaso eta banatzen. Lehenengo banaketa zortzi erakunde eta 286 pertsonaren artean egin genuen. Gaur egun, oster, 30 erakunde eta 1.300 pertsona baino gehiagori banatzen dizkiegu elikagaiak. Guztira, 66.000 kilo elikagai banatu ditugu iazko apiriletik urte amaierara arte. Bailara osoko erakundeak, udaletakoak-eta, etortzen dira elikagaiak jasotzera. Norbanakoei ez diegu banatzen.

**Boluntario kopurua ere hazi egin da?**

Bai; gehienak erretiratu edo pensiodunak dira; beste batzuk, ordea, lanean dabiltzanak: gure furgoiaren txoferra, esaterako.

**Europako Batasunetik ere jasotzen dituzte elikagaiak gero hemen banatzeko, ala?**

Bai, Europako Batasunak herrialde guztietan ditu banatzaileak. Madrilgo federazioaren bitartez, Oiarzundik eta Gasteizetik iristen zaizkigu elikagaiak guri. Aurten, Europako Batasunetik 830.000 kilo elikagai etorri dira hona. Guztira, milioi bat eta erdi banatu genituen iaz Gipuzkoan, bertatik eta kanpotik jasotako elikagaien artean. Europatik datorrena urtean lau bider banatzen dugu, hiru hilean behin. Bankukoa, berriz, hileroko; eta azkeneko minutuko, egunero. **Zeini banatzen diezue elikagai horiek?**

Janari bila datoz Caritaskoak, etorkinen elkarteak, udalak, aterpetxeak, laguntza zentroak, eskolak, jangelak... Arrasateko Ebanjelisten Taldea, Gizakia Proiektua...

**Ze tipologiatakoa da onuraduna?**

Gehiena etorkina, baina hemen go betiko jendea ere bai, gero eta gehiago. Bergaran, esaterako, premia duenak Udalera jo behar du, eta han paper bat jasotzen du.

**Igartzten da krisia? Hau da, gero eta onuradun edo beharra duten gehiago dago, eskariek gora egin dute?**

Bai, asko, hiletik hilera gero eta eskari gehiago jasotzen ditugu. Zerrenda bat daukagu banatzeko daukagun elikagaiena. Gero, familiak, lau pertsonakoak hartzen ditugu kontuan, eta bakoitzari 21 kilo eta erdi elikagai ematen diogu aldiko behin.

**Elikagaien hornitzaileen aldetik arazorik bai? Hau da, haiek ere krisia igarri dute?**

Ez dugu igarri; izan ere, saltoki handietatik ez ezik, elikagaiak ekoizten dituzten enpresetatik ere zuzenean jasotzen dugu. 7.000 kilo elikagai dugu biltegian.

**Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egin zenuten hitzarmena iaz, eta aurten berritu egin duzue orain dela gutxi.**

Bai; 116.000 euroko dirulaguntza jaso dugu. Izan ere, boluntarioak gara, baina furgoiak, esate baterako, gasolio eta bestelako gastuak sortzen ditu. Furgoia iaz Diputazioak emana da.





TORRA+PORTELLA

Zure Tekno sofa baino leku hoberik ez duzu interneten ibiltzeko. Bere eserleku irristagarriekin, eta sofak berak duen argindar-hartunearekin, bateriarik gabe gera ez zaitezten, erosotasun guztia ematen dizu. Izan ere, Kibuc-en altzariak eta osagarriak zure bizitzeko moduaren neurria egindako konponbide moduan ulertzen baititugu. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

# ZU on-line zaude



Zuri bizitza errazteko aukerak

gutxieneko prezioa bermatuta



## 1.369 €

114,10 € x 12 hilabete interesik gabe\*

 Irriagarria

 Bizkar etzangarria

## KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 [gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com)



Proiektu eta eraberritze integralak

## KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

**Tekno sofa** Erosotasun eta teknologia proposamena. 3 lagunentzako sofa eta chaiselonguea Claudia 9 ehun grisean. Neurriak: 270/165 zm. Eskuz mugi daitezkeen eserlekuak eta buruko etzangarriak ditu. Motorrak jartzeko aukera dago (2 eserlekurentzat, 240 euro). Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. Ehun eta kolore aukera handiaqoa ere badaqoa (Brontzea eta Sustapena serieak). BEZ barne. \*Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

## DUELA 10 URTE

2002-02-19

## Edukiontzia berriak kaleetan

Orduz geroztik hamarkada bakarra baino gehiago igaro dela iruditu arren, 2002ko otsailean hasi zen Mankomunitatea zabor poltsak jasotzeko edukiontzia jartzen. Arrasaten, esaterako, 170 izan ziren herrian zehar jarritako edukiontzia; Bergaran, 119; eta Aretxabaletan, 56.

Edukiontzia horiek jartzearekin, desgertu egin ziren Debagoieneko kaleetatik zabor poltsen pilaketak.



Edukiontzia berriak jartzen. | GOIENA

2002-02-22

## Rokodromoan berrikuntza lanak

Herriko eskalatazaileak eurak astetan lanean ibili ostean, hainbat berrikuntza erakusten zituen Bergarako Labegaraietako rokodromoak. Erabiltzaileen segurtasuna bermatzea izan zen lanen helburua. Besteak beste, paneletako bat aldatu egin zuten, eskalatazaileek leku handiagoa izateko harmailetako zati batean plataforma jarri zuten eta koltxo berriak jarri zituzten Udalak ordaindu zituen lanak: 7.212 euro.

## DUELA 5 URTE

2007-02-23

## Diru zaparrada

Poz-pozik zegoen duela bost urte Arrasateko Jesus Vidal ONCEko kupoi saltzailea. Izan ere, egubakoitzeko zozketarako 35.000 euroko saria jaso zuten bost kupoi saldu zituen, eta, denera, 175.000 euro.

76.764 zenbakia izan zen Arrasatera zortea (eta, bidez batez, diru ugari) ekarri zuena.

## ONATI

## HERRITARRAK

**Alex Martin** Gaur egun denbora laburragoan egon arren, ez da zaila oñatiar hau Azkoagainen aurkitzea; duela 17 urtetik hona, Oñatiko zelai nagusiaren mantentze-lanez arduratzen da | TXOMIN MADINA

# "Futbola ez zait inoiz ere gustatu, beti gustatu izan zait gehiago eskupilota"

**D**uela 48 urte jaio zen Caceresko Moraleja herrian, baina hilabete batekin Oñatira etorri zen bizi izatera. Egun, gutxi ezagutuko dituzte Azkoagainen futbol zelaiko sekretuak hark baino hobeto, hark egiten ditu-eta mantentze-lanak.

## Noiztik Azkoagainen kargu?

17 urte daramatzat. Laun lanean nembilen Jose Luis Agirre zena-rekin, eta hark proposatu zidan Azkoagainen laguntzen hastea. Irakasle ona izan nuen hona heldutakoan: Karmelo Lazko; hark irakatsi zizkidan belar naturalaren zainketari buruzkoak.

## Eta zure lanaren barruan zer sartzen da? Zeintzuk dira zure eginbeharrak?

Belar naturala zegoenean, belarra moztu egin behar zen, ongarrria bota, haziak landatu... Belar artifizialarekin, elurra edo euria egiten badu izurtzeak edo zuloak egin daitezke zelaian, eta malla bat pasa behar da, edo hutsuneak kautxuz bete. Aldagelei dagokionez, orain dela urte batetik hona beste enpresa bat da garbitasunaz arduratzen dena. Baina mantentze-lan orokorreaz neu arduratzen naiz: sarrailez, ateetako sareez, hodiak oztopatuta badaude askatzeaz, aulkiak konpontzeaz... Oraingoz, behintzat, hori nire ardura da.

## Belar naturala izatetik belar artifiziala izatera pasatzeak aldaketak ekarri zituen, beraz...

Askok, esaterako, ordutegietan. Lehen, zapatueta, goizeko zortzietan sartu eta gaueko hamaika eta erdietan edo hamabietan irteetan nintzen. Ez nintzen familiarekin bizi, Oñatiko familia handiarekin baizik. Nire bi seme nagusien hazkuntza ia osorik galdu nuen; orain, laguntza dudanez, bi txikienekin egoteko astia dut. Nire familiarekin beharrean, hemen egoten nintzen dena ematen.



Alex Martin, Azkoagainen futbol zelaian. | TXOMIN MADINA

**"Belar naturala sufrituagoa da, baita esker onekoagoa ere"**

**"Estimu handia diot hemengo gazteria osoari; asko maite ditut"**

## Dena den, nahiago omen duzu belar naturala.

Bai, nahiago dut zelai naturala, baina jokariendako. Zelai artifiziala sufrituagoa da, egur handiagoa emateko. Hala ere, egia da naturala esker onekoagoa dela: lehen, zaintzen nuen moduan zainduta, denboraldia bukatzean ederki egoten zen. Oraingoa beti berdin dago; malla pasatu edo ez, ez da alderik nabaritzen.

## Jendeak ondo errespetatzen ditu instalazioak?

Hemen sartzen den jende guztiarekin, jendeak errespetu handia du, kiroldegiekin alderatuta, esaterako. Baina ni neu gainean egoten naiz: norbait kolpeak ematen badabil, harekin berba egitera joaten naiz, modu onean eta iskanbilatan sartu barik. Saiatzen naiz gaztetxoek adierazten ingurua zaindu egin behar dutela.

## Baloratuta sentitzen zara?

Bai, eta nik neuk ere estimu handia diot hemengo gazteria osoari. Askok maite ditut, ez dut inoiz inorekin arazorik izan eta ni ere maitatua sentitzen naiz. Lehen, harreman zuzenagoa nuen, eta hori nabaritzen den zerbait da: zurekin gutxiago egoten zinen, baina gehiago bizi zenuen taldeko jendearekin. Orain ere, mutikoak prest egoten dira laguntzeko.

## Azkoagainen lan eginda zara futbolzalea, ala aurretik ere bazinen?

Egia esan, ez zait futbola inoiz ere gustatu; beti gustatu izan zait gehiago eskupilota. Futbol partiduak ikusten ditut ikusi beharra dudalako; baina ez esan etxean partidu bat ikusteko, ez dut ikusiko-eta. Azkoagainen, animatze-kotan, Aloña animatzen dut, noski: hala sentitzen dudalako, baina ez futbola delako. Nire mutilak animatzen ditut; eskubaloian jokatu balute, berdin animatuko nitzuke.

## NIRE HERRIAN

### HERRITIK DENA GUSTATZEN ZAIT

Alex Martinek ez du herria saltzeko, ez horixe: "Zer den Oñatitik gehien gustatzen zaidana? Dena, Oñatitik dena gustatzen zait", dio, zalantza handirik egin gabe.

### EZ DAGO ATSEGIN EZ DUDAN EZER

"Ez dakit Oñatitik kanpo bizi ahal izango nintzatekeen, ez dago gustatzen ez zaidan ezer. Uste dut inoiz ere ez naizela egon Oñatitik kanpora, ezta soldadutzan egon nintzenean ere; orduan etortzen utzi izan ez balidate, ihes egingo nuen. Ezkondu ostean ere, bi astera etxera itzultzeko gogoz nengo. Etxezalea naiz".

## Urte hauetan guztietan, Aloñarekin momentu onak eta ez hain ona bizi izango zenituela...

Azkoagainen bizi izan dudan momenturik txarrena oraïndik ere faltan igartzen dudan Jose Luis Agirreraren heriotza izan da. Momenturik onena? Denak: egunerokoan mutikoen aldetik sentitzen dudan babesa, klubeko jendeak duen giroa...

## Animalia-denda bat izandakoa zara. Zeintzuk dira eroateko errazagoak: animaliak ala Aloñako jokariak?

Batzuek esaten dute zenbat eta jende gehiago ezagutu, orduan eta gehiago maite dutela euren txakurra. Hori ez da nire kasua: oso ondo eroan naiz guztiekin, uste dut pertsona bakoitza merezi duen moduan tratatu dudala. Behar denean babesa eta aholkua ere eman diet: talderako hautaketetan kanpoan geratu direnean, maitasun arazoak dituztenean...

# HERRIAK

ARAMAIO

## Herriari jositako lege berezia

- ▶ Euskal foru zuzenbideak Aramaiori ematen dizkion berezitasunek jakin-mina piztu dute
- ▶ Auzo alkateei dei egin zien Udalak eta erantzuna ona izan zen; euren iritzia jaso ditugu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Joan den egubakoitzean euskal foru zuzenbideak Aramaion duen eragina azaltzeko hitzaldia arrakasta borobila izan zen. Ez bakarrik herritar asko agertu zelako, baita gaiak jakin-min handia piztu duelako ere. Izan ere, hitzaldian egoterik izan ez dutenetako asko egunotan enteratuko ziren aramaioarrek abantaila berezi batzuk dituztela, foru zaharretik eratorri den eta egun oraindik indarrean dagoen euskal foru zuzenbideak eskaintzen dizkienak.

Horrek esan gura du, adibidez, tronkalitatea, herentziak eta senar-emazteen arteko harremanak foruen bidez arautzen direla, Aramaion Bizkaiko foru-zuzenbidea aplikatzen delako. Historikoki baserri inguruan berebiziko garrantzia izan zuen lege berezia

izan da eta horregatik Udalak auzo alkateei deialdi berezia egin zien gaia Aramaion horren pisu handia duten auzoetara ere hel dadin.

### Gai zailari azalpen argiak

Gai juridikoak eta arrotzak dira gehienendako eta hitzaldian egon zirenek nabarmendu dute hizlari izan zen Andres Urrutia euskaltzainburuak gaia ulertarazteko egindako saiakera. Sei auzo alkateekin egon gara asteon eta guztiek goraiatu dute Urrutiaren gertutasuna eta adibide praktikoko eguneratuak emateko gaitasuna: "Herritar asko agertu zen eta horrek esan gura du jendeak gaian enteratzeko beharra zuela. Jakin-min hori asetzen saiatu zen Urrutia, zoragarri aritu zen", deritzo, esaterako, Jon Arriaran Barajuengo alkateak.

Bestalde, Alaitz Elexpuru Matxaingo alkateak gaiaren konplexutasuna nabarmendu du: "Oso interesgarria da gaia baina ez dut uste nire ingurukoak ideia argiekin irten zirenik, izan ere, ez dira egunerokotasunean lantzen ditugun gaiak. Testamentua eta halakoak berriz begiratu behar ditugun sententzioarekin irten ginen batzuk, ea dena ondo eginga dugun. Urrutiaren azalpenak oso onak izan ziren, baina gai juridikoak dira...".

### Etorkizunera begira, zer?

Hitzaldia oinarri bat izan da, gaia herritarrei aditzera emateko lehen puntua. Eta orain zer? Argia da Andres Urrutia: "Herritarrek badute zer esan; izan ere, komenigarria zaie euren zuzenbidea gordetzea. Hala, besteak beste, oinordetzan askatasun handiagoaz gozatzeko aukera izango dute".



Etxaguen auzoan 1920. urte inguruan ezkontza baten ostean ateratako argazkia. | PERUENA BASERRIA

### Antzinakoa ez, gaurkoa baizik

Urrutiaren arabera, azalpen bat ematea zen helburua: "Jendeak jakin zezan zertan dagoen aplikagarria zaien zuzenbidea. Ez delako antzinako kontua, gaurkoa baizik. Eta lehen baserrian aplikagarria zena egun kalean ere erabil daitekeela. Abantaila edo aldeotasun batzuk daudela elkarbizitzaren zenbait arlo arautzeko". Bestalde, Urrutiaren ustez, "oso atsegingarria" izan zen herritarren jakin-mina jendartean jarri eta asetzen saiatzeko aukera izatea.

### ALAITZ ELEXPURU MATXAIN AUZOKO ALKATEA

"Hitzaldi aurretik egin genuen bileran interesgarria iruditu zitzaidan gaia, baina akaso ostean jendeak ez zuen ulertu zein zen helburua. Berezitasun batzuk ditugula jakiteko balio izan zuen; hori ondo dago".

### EKAITZ ZUBIA UNTZILLA AUZOKO ALKATEA

"Baserri giroan egunerokoak diren gaiak landu ziren, adibide eguneratuekin, eta, beraz, interesgarria izan zen. Aditzera emateko balio izan zuen, askok ez zuten-eta gaia ezagutzen; nik barne".

### JON ERRASTI ARRIOLA AUZOKO ALKATEA

"Gaia berria zen niretzat, ez nekien pribilegiatu batzuk ginenik... Herentzia zehazteko orduan, adibidez, beste aukera batzuk ditugula jakitea ondo dago. Hitzaldia interesgarria iruditu zitzaidan".

### KEPA LIZARRALDE ZALGO AUZOKO ALKATEA

"Oso gai garrantzitsua da eta jende askok ez du ezagutzen. Beharrezkoa da herritarren artean gure berezitasun hori ezagutzera ematea. Ez da teoria kontua; jarduera praktikoa dira, egunerokoak".

### JON ARRIARAN BARAJUEN AUZOKO ALKATEA

"Oinarri bat jarri da herritarrek gaiaren gainean kontsultak egin dezaten. Nik ez nuen ezagutzen, duela hogeit bat egun hasi nintzen zerbait entzuten. Aukera hor dagoela jakitea interesgarria da".

### MIGUEL INUNTZIAGA GANTZAGA AUZOKO ALKATEA

"Jende asko egon zen eta gustura irten ginen gehienok. Tronkalitatearen aukera ez nuen ezagutzen, adibidez. Hori hor dugula jakitea ondo dago, orain aprobetxatu egin beharko dugu".

Kantariko Wii kontsola  
**IRABAZLEA**

Zuk zeuk  
hurrengo  
saria irabazi  
nahi?

goienakluba 2012

**LEIRE  
CALVO  
MENDIA**  
Nintendo Wii kontsola  
**ZORIONAK!**



### IRABAZLEAK ASTELEHENEAN!

Astelehenean,  
otsailaren 27an,  
argitaratuko ditugu  
otsaileko sarien  
irabazleak.  
Adi egon!

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!



# Herri egitamuari egindako ekarpenei erantzuna, laster

Aurkakotasun handienak: Udalatxeko harrobiak eta San Andresko etxeak

UBANE MADERA | ARRASATE

Udalatx barruko harrobiak eta Azeri esparrurako (San Andres auzoa) aurreikusitako eraikuntza planek eragin dute herritarren aldetik erantzun-ekarpen kopururik handiena Kulturaten izandako erakusketan. Hain zuzen, azaroaren 18tik otsailaren 15era arte 1.945 lagunek bisitatu dute Arrasaterako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) erakusketa, eta 500 ekarpen baino gehiago jaso dituzte.

Ekarpen horien artetik gehienak herriko bi gairekin lotutako aurkakotasun iritziak izan dira: Udalatxeko harrobiaren barne-ustiapenari eta Azeri esparruaren (San Andres auzoa) antolamenduari egindakoak.

## Udalatxeko barne harrobia

Udalatxeko harrobiari dagokionez, 413 ekarpen jaso ditu Udalak. Orokorrean, salatu dute harrobi mota hori "justifikatuko duen harri eskaririk" ez dela egongo, "eskariaren ehuneko handiena gure lurraldea txikitzen duten makroproiektuak elikatzeko"

## Mugatzeko eskaera

San Andresko hainbat auzotarrek auzorako aurkeztutako egitasmoa salatu gura dute. "Ez dugu ulertzen zela gura duten berriro ere gai hori aztertu, hainbat urtean borrokan ibili eta Auzitegi Gorenaren sententziaren zain gaudenean (...) Ze interes daude ezkutuan Arrasateko Udalak bere horretan segi dezan? Beste ustelkeria urbanistiko baten kasuan ote gaude?", galdetzen dute.

Gaineratu dute ez daudela etxeak eraikitzearen kontra, baina eskatu dute eraikuntza Polmetasaren lursailera muga dezatela, Cordoba y Oro plaza errespetatuz. Nabarmendu dute garaje falta, oro har, auzoko arazo izan barik, herri osoko arazo dela.

dela, "Udalatxeko urak arrisku larrian" jarri ahal dituela, "interres merkantilistak" bultzatuko dituela eta, besteak beste, "kareharran egindako lehen barne harrobia izanik, Euskal Herriko beste hainbat mendiren (Anboto, Aizkorri) barne ustiapenerako aurrekari" izango dela.

## San Andreseko plana

San Andres auzoko planeamenduari dagokionez, berriz, Udalak jakinarazi du "Azeri esparruaren antolamendu berriarekiko aurkakotasuna adierazten duen ekarpen bat" jaso dela, "278 pertsonaren sinaduren sostenguaz aurkeztuta. Gai horren harira, Udalak gogora ekarri du epaitegiaren dagoela gaia, eta, edozelan ere, "HAPOren berrikuspenean" aztertuko dela.

## Erantzunak noiz

Hain justu, horixe izango da datozen asteotako jarraibidea: Hiri-gintzako Aholku Kontseiluak aztertuko ditu ekarpen guztiak, eta "bere iritzia jasotzen duen txostena prestatuko" du ostean.



UBANE MADERA

## Autoa errekan, zelan baina?

Gaur ere oraindik bada Aramaio erreka jausitako autoaren gainekoa komentatzen duenik. Izan ere, Arrasate barruan halako zerbait gertatu den lehenengo aldia da eta herritar askok eta askok gura izan zuten lekuko izan eguaztenean, automobila ateratzen ibili zirenean. Gehienek, gainera, galdera-erantzun bera ahotan: "Ez dakigu zein izan den, baina seguru lehenago edo geroago jakingo dugula".

## Sasoiko produktuak ohi baino merkeago bihar Merkemerkaian

Bihar, zapatua, 10:00etarako aterako dute materiala 37 sal-tokik merkealdien azokarako. 20:00ak arte, eten barik eman-go dute aukera jantzi, oinetako eta bestelakoak erosteko ohi baino deskontu handiagoekin. Girotzeko, gainera, batukada (11:00-13:00 eta 18:00-20:00) eta Erraldoi eta Kilikien Konpartsa (16:30-18:00) ibiliko dira.

## Azoka biziberritzeko parte-hartze saio irekia bihar Kulturaten

Biharko, zapatua, 10:00etarako egin dute hitzordua Kulturateko areto nagusian. Herriko azoka biziberritzeko prozesuan interesa duten herritarrei dei egin gura diete bihar egingo duten parte-hartze saio irekirako. Azoka birpentsatzeko taldeak eratu gura dituzte bihar-ko saioan. Ekain edo uztaile arte jardungo dute taldeok.

**Eder-eder egoteko atzerako kontaketa**

**Helburua: Gorputza birmoldatzea.**

**Zelulitisari aurre egin!**



**Biguntasuna**

**Zelulitisa**

**Horiei aurre egiten lagunduko dizugu!**

Diagnostiko pertsonalizatua eta lan-programa doan.  
Etorri eta kontsultatu konpromiso barik

**Mikropigmentazioan**

**%30eko deskontua**

Begi, bekain eta ezpainen mikropigmentazioan %30eko deskontua martxoaren 31 arte.

**AG**  
**Amagara**

Erdiko kalea 54 behe 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09



**Kabitazioa**  
**Elektroterapia**  
**Bakunterapia**  
**Ultrasoinuak**

**Estalkiak – hidromasajea**  
**Terapia medikoak (mesoterapia)**  
Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073

# Martitzeneko mozerro eta kolore festak agurtu ditu Aratusteak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aratuste-martitzenean herriko txikienak dira protagonista, ikastetxeetako ospakizun bereziak direla-eta. Eguraldia lagun, gustura ibili dira haurrak aurten. Arrasate Herri Eskolako Bedoñabe gunean ikasleak patiora irten ziren gurasoen aurrean mozerroak erakutsi eta dantzan egitera. Arizmendi Ikastolan ere jaialdi berezia egin zuten. Gazteluondo gunean dantza eta bestelako emanaldi laburrak eskaini zieten ikasleek gurasoei. Amaitzeko, txokolatea izan zen bi ikastetxeetan. Gero, Txatxilipurdik antolatutako mozerro desfilea egin zuten Herriko Plazan. Hainbat haur eta gaztetxo igo ziren pasarelara, eta, trukean, euskarazko mahai joko bat eraman zuten etxera.

## Kosta zitzaion erretzea

Iturbide egoitzan ere Aratuste giroa izan zen martitzen arratsaldean. Musika entzun eta txokolatea hartzeaz gain, zenbait egoiliar dantzatzera ere irten ziren egoitzako langileek animatuta. Eta, nola ez, Aratusteak ezin dira agurtu sardina erre arte; kosta zitzaion, baina erre zen erabat azkenean. Datorren urtera arte!



Arrasate Herri eskolako txikienak Bedoñaben egin zuten ospakizuna. | J.B.



Arizmendi Ikastolako ikasleak Gazteluondon; gurasoak, adi-adi. | J.B.



Iturbide egoitzan ere ospatu zuten Aratuste-martitzena, dantzaldi eta guzti. | JOKIN BEREZIARTUA



Sevillana, Txatxilipurdik antolatutako Herriko Plazako mozerro desfilean. | J.B.



Indiarra eta Super Mario Bros. | J.B.



Sardinaren hiletaren eta Herriko Plazako erreketa ondoren, datorren urtera arte agurtu zituzten Aratusteak. | IMANOL SORIANO



Haritza Cristobal, Arrasateko zentroaren atarian.

## Haritza Cristobal

Fisioterapia uroginekologikoan aditua

“Gernu-inkontinentzia hobetzeko lanean %90eko arrakasta dugu”

Arrasaten jaioa, oso gaztetatik Donostian bizi da. Fisioterapia ikasi zuen eta bereziki uroginekologikoan espezializatu zen.

**Z**eintzuk dira zoru pelbikoa hondatzen joatean eragin ditzakeen arazo nagusiak?

Arazo ezberdinak izaten dira. Ohikoena esfortzuak eragindako gemu-inkontinentzia da. Zer den? Eztula edo doministiku egitean –horiek dira hasierako sintoma ohikoena– pixa irteten dela. Urgentziako gemu-inkontinentzia ere badago: bat-batean sekulako pixa-larria sartu eta komunera heltzen ez diren kasuak, adibidez. Eta azkenik, bi arazoak batzen dituen inkontinentzia dago.

**Arazo horien aurrean zein aholku emango zenuke?**

Lehen aholkua kontsultatzea da, gehienetan ginekologoarekin. Nik aholkatzen diot haurra izan duen emakumeari koarentena pasatu ondoren bere zoru pelbikoa berriku dezala. Izan ere, lehen haurdunaldian hasten dira zoru pelbikoaren muskulaturan gabeziak gartzen. Ordurako prebentzio-tratamendua eskaintzen dugu.

tamendua eskaintzen dugu.

**Fisioterapia tratamenduak ere eskaintzen dituzue; zeintzuk?**

Teknika ezberdinak daude. Biofeedback delakoak baginako zunda batzuen bidez zoru pelbikoan uzurdura eragin eta zundak uzurdura hori jasotzen du, gero ekipo informatiko sofistikatu baten bidez grafiko baten islatzeko. Grafiko horrek hainbat informazio ematen digu. Beste bat da elektroestimulazioa: korronte elektrikoaren bidez zoru pelbikoaren muskulatura estimulatu –ez da mingarria– eta zunden bidez informazioa jasotzea. Teknika manualak, gimnasia abdominal hipopresioa eta Kegel-en ariketak ere lantzen ditugu, besteak beste.

**Datu zehatzen bat ematerik?**

Esfortzuak eragindako gernu-inkontinentzia da arazo ohikoena, eta horietan %90eko arrakasta dugu. Hau da, hamarretik bederatzik hobera egiten dute.

Haurra izan duen amari aholkatzen dio koarentena pasa ondoren zoru pelbikoa berrikusteko



Haritza Cristobal, kontsultan, lanerako tresnaz inguratuta.

Consultorio Ginecológico  
Miramón

edersalud  
ZENTRO MEDIKOA

Nafarroa etorbidea 4, Arrasate ■ Tel.: 943 79 20 18  
www.edersalud.com

## Mondrak jaitsierako postuetan segitzen du, baina goranzko joera darama Rodriguezen taldeak

Goragoko kategorietan gauzak zelan dauden ikusita, aurten oherreko erregional mailan lau taldek galduko dute seguruenik kategorian. Eta, nahiz eta azken partiduetan emaitza onak lortu –joan den astean Elgoibarren kontra lortutako garaipena, esaterako–, Mondrak mutilek jaitsiera postuetan segitzen dute oraindik. Postu arriskutsu horiek ez dituzte lehenbailehen atzean utziko, hori lehen ere jakinekoa zen, baina hortik irteteko gauza direla erakutsi dute, hori da garrantzitsuena. Bihar hitzordua zaila izango dute, bosgarren dagoen Oiartzunen zelaian (17:45).

## Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko ordezkariak Eibarren lehiatuko dira zapatuan

Eskola arteko B mailako txapelketa egingo dute zapatuan Eibarren (10:00etan hasita Ipuruako kirol instalazioetan), eta bertan izango dira Arrasateko Dragoi taldeko hainbat ordezkari. Alebin mailan, taldeka, Araitz Altube, Maialen Diaz, Leire Elizaran, Ane Gorosabel eta Maite Iraeta izango dira. Infantiletan, taldeka, Andrea Hernandez, Alba Rebueta, Amaiur Mendizabal, Maitane Ugarte eta Eneritz Lage. Eta infantiletan, bakarka, Maialen Gallardo lehiatuko da.



Arrasate dragoi taldeko gimnastak. | DRAGOI

## Euskadiko Mendi Federazioko galan, babesle onenaren saria jaso zuen Ternua-Import Arrasatek

Joan den asteburuan egin zuten Euskadiko Mendi Federazioko gala, eta lehenengoz Donostian egin zuten ekitaldi hori. Fortuna klubak hartu zuen ekimena antolatzeke ardurak, eta ekitaldi hunkigarria izan zen; besteak beste, berezia izan zen Antxon Bandres gogoan izan zuten momentua –joan den urteko irailean hil zen Bandres–. Galan, 2011n protagonista izan diren kirolariak izan ziren protagonista; tartean, Oihana Kortazar elgetarra –mendi lasterkari onena–, baina Arrasateko enpresa batek ere jaso zuen saria: Ternua-Import Arrasate babesle onena izendatu zuten.

## Mertxe Aranak irabazi du Arrasate Pilota Taldearen eskutik angula kiloa

Azken urteotan Gabonen bueltan Arrasate AGT Pilota Taldeak egiten duen zozketa bereziak dagoeneko baditu irabazleak. Aurtengo edizioan Arrasateko Mertxe Aranak irabazi du angula kiloa (orain momentuan gutxi-gorabehera angula kiloa 780 eurotan dago). Sari potoloa angulak baziren ere, baina, pilotako ordezkariak bi bisiguren zozketa ere egin zuten –bigarren saria–, eta sari hori Andoni Ruiz de Azuak gozatuko du. Hala, bi sari horiek gaur, egubakoitza, banatuko dituzte, Eguren arrandegian (19:00). Zorionak, irabazleei.



Herrero, geraezin, kontrarioa zintziliek duela. | JULIO CALLEJA

# Ford Mugarri geratzeko gauza izan den bakarra

Ane Herreroen taldeak Romo hartuko du bihar Musakolan; joanekoan "sufritu" egin zuten

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ford Mugarri orain arte izan duen makalaldi bakarretakoa Romoren kantxan izan da, ligako joaneko partiduan. Jokatu-tako 20 partiduetatik bakarra berdindu dute Arrasatekoek –ez dute partidurik galdu–, eta Romon izan zen berdinketa hura.

Hala, Arrasatekoek buruhauste handiena sorrarazi dien taldea izango da zapatuan Musakolako kantxan (17:45): "Kontrario gogorra izango da, euren kantxan txarto pasatu genuen eta berdindu egin genuen partidua hura. Baina, azken partiduetan egiten gabiltzan defentsarekin jarraitzen badugu –Soraluce BKEren derbiko lehenengo hamar minutu txarrak kontuan hartu barik– oso zail izango dute guri irabaztea", adierazi dio Goienari Arrasateko taldeko entrenatzaileak, Ane Herrero.

Izan ere, Bizkaiko taldea erabat aldatzen da etxean ala etxe-

tik kanpora jokatzeko dutenean, eta Arrasaten ez dute bertsiorik gogorrena espero: "Markagailuan aurretik jartzen badira Romokoak arriskutsuak izan daitezke, horrelako egoeratan ondo moldatzen den taldea delako. Baina, partidua hasieratik gu aurreratzen bagara behera etorriko dira, ez dakite markagailua kontratan dutenean zelan jokatu. Gure maila erakusten badugu ez dute uste sorpresarik egongo denik".

### ESANAK

"Ondo jokatzeko badugu, ez da sorpresarik egongo"

ANE HERRERO | ENTRENATZAILEA

## ZALDIBAR

### EMAITZAK (AZKEN JARDUN.)

Portaboleiros-Sonografos	6-11
Aldatz-At. Betrayer	2-4
Lasagabaster-Iluntz	4-4
Fidel-Aston Birra	7-1
Iriztu-Iluna	8-1
Dublin-Ekaltz	12-3
Abokajarro-Dribling	4-5
Fidel-Iriztu	2-5
Iluna-Iluntz	0-3
Sonografos-Abokajarro	3-7
Lasagabaster-McAwen	4-5
Ekaltz-Portaboleiros	3-6
Dribling-Aston Birra	12-7
Dublin-Aldatz	1-1

### SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Dribling	31	12
2 Iriztu	28	12
3 McAwen	27	12
4 Dublin	26	13
5 Sonografos	24	12
6 Abokajarro	24	12
7 AT Betrayer	22	12
8 Aldatz	21	12
9 Lasagabaster	15	13
10 Fidel&Discipulos	15	12
11 Iluntz	13	12
12 Iluna	9	12
13 Ekaltz	4	12
14 Aston Birra	3	12
15 Portaboleiros 2.0	3	12

### PARTIDUAK

Otsailak 25, zapatua

10:30	Abokajarro - Ekaltz / McAwen
11:30	Iluna - McAwen / Abokajarro
12:30	Portaboleiros - Aldatz / Iluna
16:00	Fidel & - Iluntz / Antolatzaileak

Otsailak 26, domeka

10:30	Dublin-AT Betrayer / Dribling
11:30	Iriztu-Dribling / AT Betrayer
12:30	Sonografos-Aston Birra / Iriztu

## Oilarren arteko lehia domeka goizean

Aratusteen atsedenaldiaren ostean, ligako 12. jardunaldia jokatu dute asteburuan. Domeka goizean izango da partidua erakarriena, sailkapenean aurrean dauden bi taldeek elkarren kontra jokatu dute-eta, Dribling-ek eta Iriztuk (11:30). Dena dela, Driblingek segituko du agintzen.

## Zapatu arratsaldekoa, antolatzaileen esku

Lehia guztietan talde-tako ordezkariak egingo dituzte epaile lanak, Fidel-Iluntz partiduan izan ezik.

Maizt  
ILEAPAINDEGIA

## PREZIO BEREZIAK

### ILEAREN LUZERAREN ARABERA

• Orraztea	14€	16€	18€
• Moztea eta orraztea	25,5€	28,50€	31,50€
• Kolorea ematea, moztea eta orraztea	44,50€	48,50€	55,50€
• Kolorea ematea eta orraztea	32,50€	35,50€	42,50€

• Gizonentzako ile-moztea	14,50€
• Umeen ile-moztea (8 urte beherakoak)	9€

Antso Abarka 3 behea • Musakola  
ARRASATE • Tel.: 943 79 58 78

## Lizarran 'erretako' kableak konpondu nahi ditu MUK

X.U. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko jokariak lur jota itzuli ziren joan den astean Lizarratik, Oncineda taldearen kantxatik. Izan ere, partiduan zuri-moreak agintzen joan ostean, 14 segundo geratzen zirenean egin zuten Oncinedak garaipena eman zion saskiratzea (63-62). Markagailua kontratan lehenengoz, Arrasatekoek azken saskiratzea egin ahal izan zuten,

baina uztaiz azpian ihes egin ziren baloiak. Jokaldi hark laburbildu zituen Arrasatekoen azken bost minutuak, partidua errematatzen jakin gabe tarte hartan ez zuten -eta saskiratzerik egin, eta Larraetegiren mutilek zigor gogorra jaso zuten ordainetan.

"Kableak erre zaizkigu denoi". Halaxe laburbildu zuten Larraetegi entrenatzaileak Oncinedaren kantxan gertatutakoa, eta, hain

zuzen, kable horiek lehenbailehen konpondu nahi dituzte, bihar bertan, Seky.es taldearen bisitarren aurrean (18:00, Iturripe).

Gasteizko taldea ligako talde indartsuenetakoa bat da, eta aste gutxi barru iguera fasean egongo da borrokan, horretarako nahikoa puntu ditu-eta. Liga erregularreko azken partidua izango da biharkoa; etxeokoei jaitsiera fasea jokatu dute.

## 'Herrixa dantzan'-en saio berezia, Ibaialderen alde

Hitzordu bikoitza dago gaur: 17:45ean, ikastolaren alde plazan, eta 20:00etan, Garaian

M.B. | ARRASATE

*Herrixa dantzan* egingo dute gaur, egubakoitza, Arrasateko Herriko Plazan. Arizmendi Ikastolak Lodosako Ibaialde ikastolaren alde antolatu duen jaialdiaren harira, saio berezia gertatu dute 17:45erako; haur eta gurasoei zuzenduta dago, elkarrekin dantzan egin dezaten. Ordubete inguru iraungo du ekitaldiak.

Horretaz gainera, Portaloi elkarateak antolatuta, ohiko saioa egingo dute gaur ere, 20:00etatik 21:30era bitartean. Garaia berri-

kuntza gunean dagoen jatetxean egingo dute, eta, ohi bezala, sarrera doan izango da eta parte-hartzea librea. Antolatzaileek gogorarazi dute herriko autobusa han bertan geratzen dela ordu erdian behin.

Patxi Montero irakasleak gidatutako dantzaldi irekia da *Herrixa dantzan*, Euskal Herriko eta Europa osoko dantza tradizional ludikoekin osatutakoa. Helburu nagusia da askotariko herritarrek dantzan egiten elkarrekin gozatzea.

## Bakarrizketak itzuliko dira gaur lamai kafetegira

Denera, sei aktore izango dira martxoaren 30era arte; gaur Roberto 'Chapu'-ren emanaldia dago

M.B. | ARRASATE

Iamai kafetegian umorezko bakarrizketak egiten hasiko dira gaur, egubakoitza; 12. edizioa da aurtengoa. Denera, sei umorista etorriko dira; otsailak 24, Valladolideko Roberto *Chapu* aktorea igoko da taula gainera. Martxoaren 2an Sevillako Manu Baezaren txanda izango da; martxoaren 9an Talaverako Sergio Murorena; martxoaren 16an Miki Maka

madrildarrarena; martxoaren 23 Espainiako hiriburuko Manu Kasena; eta martxoaren 30ean Valladolideko Nano Arranzena. Bakarrizketak 23:30ean hasiko dira.

### Azken edizioa

Umorezko bakarrizketen azken edizioa izango da aurtengoa; Aste Santuan obrak egingo dituzte kafetegian, eta aldaketak aurreikusten dituzte.



ARANTZAZU EZKIBEL

## Giza keinuen gaineko lehiaketa

Urbe auzoko Hilbehera tabernan giza keinu eta gorputz-espresioen argazki lehiaketa antolatu dute. Interesa dutenek hamabost eguneko epea dute tabernan erakusgai dauden 80 argazkien artean gustukoena dutena aukeratzeko; parte-hartzaileen artean saria banatuko dute, baita irabazle irtetzen diren hiru argazkien egileen artean ere.

# Xabi eta Petti, Que Par Che Teatro, Kokein eta Inoren Ero Ni, martxoan

Kooltur Ostegunak ekimenaren harira datozen asteotan izango diren ekitaldiak iragarri dituzte

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren martxoko egitaraua ekintzaz josita dator. Martxoaren leian hasiko dira horiek, Xabi eta Petti-aren kontzertuarekin. Joan den azaroan argitaratutako diskoa aurkeztuko dute gaztetxean, 22:30ean; lagun artekoa da, musikariak eta entzuleak ondo pasatzeko helburuarekin egindakoa.

Diskoa grabatu aurretik kontzertu asko eman dituzte taberna eta areto txikietan; kontzertu akustiko eta gordinak dira, baina biziak, beroak eta elektrizitatez betetakoak, zeinetan gustuko dituzten kantarien kantuak jotzen dituzten, hala nola Ray Charles, David Bowie eta Jimi Hendrixenak. Horieta batzuk diskoan jaso dituzte, musikari talde zabalaren laguntzaz: Ultracuerpos taldeko Mikelini (kontrabaxua) eta Kiko (gitarra), Rafa Aceves (pianoa), Jose Martinez (bateria), Oscar de la O (kaxoia), L. M. Moreno *Pirata* (saxofoia) eta Chris Casello (*steel guitar*), besteak beste.

### 'Soltarlo al aire'

Martxoaren 8an, ostera, antzerkia izango da Que Par Che Teatro taldearen eskutik. *Soltarlo Al aire* ikuskizunarekin etorriko dira. Pertsona bakarrek *clown* antzezlan horretan emakumearen gaia jorratzen da: Marina Nuatinak bidean gelditua egin du; bertan, bere burua hobetzeko eta norberarengan sinesteko bidea bilatuko du etengabe. Ibilbide horretan, pasiozko momentu umoretsu eta atseginean murgilduko du publikoa. Ordubete inguru iraungo duen antzezlan edozeini dago zuzenduta.

Ez da lehenengo aldia Que Par Che Teatrotik Arrasateko



Xabi eta Petti, kontzertu batean. | GAZTELUPEKO HOTSAK

gaztetxea bisitatzen duela, 2010-2011 ikasturteko Kooltur Ostegunetan ere izan zen-eta.

### Kokeinen 'Izan' diskoa

Bestalde, martxoaren 15ean Kokein taldekoak igoko dira gaztetxeko agertokira. Denboraldi luzeko isilaldiaren ostean, indarberriturik dator Eibarko taldea: *Izan* izeneko lana labetik atera berri dute. Denera, hamabi kantuz osatuta dago; aurreko lanekin alderatuta, aldaketak ditu; izan ere, taldeak berak ekoiztu du lana. Martxoaren

22an, ostera, Inoren Ero Ni taldearen txanda izango da. Mikel Abregok diskoa grabatu eta handik gutxira taldea utzi zuen eta Guanchek (*Safety Pins*, *Lobo Electrico...*) hartu zuen haren lekua. Horren ondoren, Okenek, Marianok, Borjak eta Guanchek zenbait hilabete eman zituzten kantuak moldatzen eta taldea berregiten, eta dagoeneko kontzertuak eskaintzen hasi dira. Azkenik, martxoaren 29rako hitzordua oraindik zehazteko dagoela jakinarazi digute antolatzaileek.



Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56



- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante  
UGARAN  
Jatetxea

Garagartzua auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

# Azoka txikia gaur eta bihar Bedelkarren eskutik

Herriko merkataritza indartzeko plana esku artean dauka Udalak

E.M. | BERGARA

Bedelkar herriko dendarien eskutik, azoka txikia izango da gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua. Hasiera baten Munibe plazako karpan hainbat komertzioaren eskaintzen batzea zen asmoa, baina nahi bezain eskaera batu ez dutenez, komertzioek euren lokaletan egingo dute eskaintza berezia. Horietako askok kalera aterako dituzte euren jeneroa. Jantzi-dendak izango dira nagusi gaurko eta biharko eskaintza berezian. Iaz ere otsaileko azken aste bukaeran egin zuten Bedelkarrek azoka txikia, eta salmentarako sasoi aproposa dela diote Bedelkarrekoek. Beherapen erakargarriak aukeran izango direla aurreratu dute herriko dendariak.

## Indarberritze plana

Herriko merkataritza indartzeko plana abian jarri zuen Bergarako Udalak joan den urtean, eta zehaztutako ekintzen berri emango dute arduradunek datozen asteotan. Inguruko herri askotan gertatu bezala, krisiak eta bestelako faktoreek eraginda, merkataritza



Dendariak kalera aterako dute jeneroa gaur eta bihar. | GOIENA

tzaren beherakada izan da Bergaran azken urteotan. Horren erakusgarri dugu azkenaldian itxitako komertzioak edota Bidekurutzetak, San Pedro kaleak edo Artekalek merkataritzari dagokionez galdutako protagonismoa.

Egoera horrekin kezkatuta, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Bedelkar herriko denda-

rien elkartearekin batera, merkataritza indartzeko neurriak aplikatu nahi dituzte.

Ikertalde aholkularitza taldeak eraman du azterketaren zuzendaritza tekniko eta azken hila-beteotan 600 inkesta inguru egin dituzte. Herriko merkataritza indartzea da helburu nagusia. Bedelkar da indarberritze plana aurrera ateratzeko agente nagusietako bat.

## Mikel Askasibarren senitartekoei elkartasuna adierazi die Gobernuak

Udal Gobernuak bat egin du Udaleko langileek asteleneko osoko bilkurara begira aurkeztutako idatziarekin. Mikel Askasibar *Aska* eta haren senitartekoei elkartasuna adierazi nahi die Udal Gobernuak; zigorraren hiru laurdenak beteta dituelako askatasuna eskatzen dute: "21

urte asko direlako, salbuespeneko neurri guztiak desaktibatzea eta askatasuna aldarrikatzea, baita hori gauzatu bitartean Euskal Herriko espetze batera gerturatzea eta azkenik, datorren larunbaterako [biharko] antolatutako diren ekitaldi eta ekimenak babestea".

## Haurdunentzako gimnasia eskolak igerilekuan martxoaren 2tik aurrera, Saneren eskutik

Sane fisioterapia zentroaren eskutik, haurdunentzako gimnasia eskolak emango dituzte martxoaren 2tik aurrera, egubakoitzero, Agorrosinen, 12:00etatik 13:15era. Igerileku txikian izango dira eskolak. Haurdun dauden emakumeak erditze unera fisikoki primerako osasun egoeran heltzea da ikastaroaren helburua. Izen-ematea Sane fisioterapia zentrori deituta (943 25 24 40 telefono zenbakia) edota e-mail bitartez (*sanefisioterapia@hotmail.es*) egin daiteke.

## Nerabeen gurasoei zuzendutako 'Berbaz konpondu' ikastaroa kultura etxean martxoaren 5etik 21era

*Berbaz konpondu* izenburuko ikastaroa antolatu du Udaleko Prebentziorako Zerbitzuak. 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago eta talde mugatua izango da (15 lagun gehienez). Eskolak martxoaren 5etik 21era bitartean astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara. Erain zentroan, Gazteen Osasun Integralean lanean diharduten profesionalak emango dute ikastaroa. Izen-ematea 943 77 91 26 telefonoan edo *aloidi@bergara.net* helbidean egin daiteke, otsailaren 29ra arte.

## Arantxa Muruamendiaraz | Zubikua dendakoa

# "14 urterekin hasi nintzen lanean eta 'karrera' dendan egin dut nik"

- Erretiroa hartuko du Zubikua dendako jabeak
- 1939an zabaldu zuten denda, oraingo tokian

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aratuste-martitzena da eta bezeroak hartzen dabilen bitartean elkarrizketatu dugu Arantxa Muruamendiaraz. Erretiroa hartzerara doa Arantxa, 51 urtez Zubikua dendan lanean jardun ondoren. Urte hauetako guztietako oroitzapenak biltzen zaizkio egunotan. Bezeroen fidelitasuna eskertzen du, eta hori agerikoa da; emakumezko bezero bat pare bat txiste kontatzeraz hurbiltzen zaio eta barrez lehertzen dira biak; handik gutxira, Pello Garitano laguna dator, emakumez dotore mozorrotuta. Dendako erakusleihoan tokia hartzen du Pellok eta sekulako ikusmina pizten du di-da baten. Herriko komertzioen, betiko denden xarma da hori.

## Denda historikoa da Zubikua. Noiz zabaldu zen?

Gure amak, Felisa Elkoroberezi-barrek, eta haren ahizpa Lorenzak zabaldu zuten denda, 1939an. Barrenkaleko 24. zenbakian jarri zuten hasierako denda; ordura arte Galarreta zapata-denda zegoen han [geroago, gaurko Munibe plazan eta Irizar kalean kokatu zena, hain zuzen]. Ondoa bi elikadura-denda zeuden garai hartan, bata Julian Muniategian-dikoetxearena eta bestea Felix Agirre *Etxetxo*-rena. Eta denda haiek itxi zituztenean Zubikuak hartu zituen lokalak.

## Txikitatik hasi zinen dendan laguntzen, ala?

Bai, 14 urterekin. Bi ahizpa gara eta 11 hilabeteko aldea besterik



Arantxa Muruamendiaraz. | E.M.

ez diot ateratzen diot ahizpari, Begoñari. Hura oso ikasle finazena eta Donostiara bidali zuten ikastera. Nik orduko *errebalida*

## "73 urtez fidelitasuna erakutsi digutenei eskerrak eman nahi dizkiet"

egin... eta dendan egin dut nire *karrera*.

## Orain erreleburik ez...

Pena ematen dit etxean erreleburik ez izateak, eta azken bi asteetan emozioak pilatu egin zaizkit denda uzteagatik. Ez dira egun errazak hauek. Dena dela, nirekin urtetan lanean egon diren Kristina Agirrek eta Edurne Gallastegik dendarekin jarraituko dute, baina emakumeendako jantziekin bakarrik.

## Zertan aldatu dira gauzak lanean hasi zinenetik hona?

Gure saltzeko modua ez da aldatu, zuzeneko salmenta izaten jarraitzen duelako. Betiere, bezeroen beharrak asetzen ahalegindu gara Zubikuan, eta hori lortzen badugu, gu pozik. Hain zuzen, horregatik da hain polita eta esker-garria ofizio hau. 73 urtez fidelitasuna erakutsi diguten bezeroei eskerrak eman beharrean nago; haien laguntza barik ezinezkoa izango litzakeelako horren denbora luzean denda zabalik izatea. Lagun asko eta asko hurbildu dira egunotan dendara, agurtzera, eta oso pozik nago jendeak izandako erreakzioekin.

## Jantzi-denda izan duzunez, zelan uste duzu jantzen dugula bergararrok? Garai bateko dotoretasuna galdu egin da, ala ez?

Jendeak Bergaran gustu ona du jantziak aukeratzen. Kalitateaz arduratzen da jendea eta erostera datozenean igarri egiten da hori. Oraindik ere Bergaran ondo jantzita joateko tradizioari eusten zaiola esango nuke. Eta erosleek exigenteak izaten jarraitzen dute; gehienetan argi daukate zer erosi nahi duten.

## Bukatzeo, Arantxa, behin erretiroa hartuta, zer?

Familiari denbora luzeagoa eskainiko diot, eta badaukat hizkuntzaren bat eta bestelakoak ikasteko gogoia eta ilusioa... Hori bai, bezeroekin, jendearekin urtetan izan dudana hartu-eman hori faltan igarriko dut, ziur.



# 'Aska'-ren aldeko pilota jaialdia bihar frontoian

Mikel Askasibarren lagunak eta Mikel Goñi-Iñarra eta Mugurutz-Lasa III.a bikoteak kantxan lehian

E.M. | BERGARA

Mikel Askasibar presoaren aldeko pilota jaialdia izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 18:00etan hasita. Bi partidu izango dira: lehenbizikoan herriko laupilozale izango dira lehian, *Aska*-ren

koadrilakoak tartean. Andoitz Garitanok eta Patri Bideluzek Patxi Puertas eta Patxi Aiastuiren kontra neurtuko dituzte indarrak. Bigarren partiduan, Mikel Goñi ezagunak Beñat Iñarra bergararrarekin osatuko du bikotea:



Mikel Askasibarren aldeko plataforma aurkeztu zuten joan den otsailaren 8an. | ANDER MONEDERO

Eneko Muguruza bergararra eta Lasa III.a izango dituzte aurkari. Bi partiduen artean ekitalditxo bat egongo da Askaren askatasuna aldarrikatu eta bere lagun eta senideei elkartasuna adierazteko.

**21 urte kartzelan**

Mikel Askasibar Herrerako espetxean dago eta joan den otsailaren 9an 21 urte bete zituen kartzelan. Aurten kalera atera beharko luke 3/4 legea errespetatzen badiote (jasotako zigorraren hiru laur-

denak beteta ditu), eta Parot dotrina ezartzen ez badiote behinik behin. Horixe azpimarratu zuten *21 asko dira* plataformako kideek. Zapatuan Udal Pilotalekua betetzea da plataformako kideen helburua.

## Hotzari aurre egiteko, mozorroa eta umorea ezinbestekoak Aratusteetan

E.M. | BERGARA

Joan dira aurtengo Aratusteak eta aurtun ere umore ezin hobea erakutsi dute herritarrek. Hotzari aurre egiteko mozorro beroa bezain ezinbestekoa izan da umorea, Aratusteetako osagarri nagusia. Ikastetxeetako ikasleek kaleak

hartu zituzten egubakoitzean, eta martitzenean eta zapatuan, berriz, adin guztietako herritarrek izan ziren protagonista. Batzuen irudimenak ez dauka mugarik, eta, betiere, eskertzekoa da hori. Orain, hurrengo urteko mozorroa makinatzen hasi behar...



Igluarekin etorri ziren Mariaren Lagundiko eskimalak.



Igerilari sinkronizatuek eraman zuten Bedelkarreko saria zapatuan.



Suhiltzaile bat suaren bila.



Neska koadrila bat martitzenean, San Martin plaza ondoan.



Edurnezuri, ondo lagunduta.



Aranzadiko neskek alaitsu ibili ziren egubakoitzean.



Pello Garitano, Zubikuako maniki ezin hobea.



Iraunkortasuna landu zuten San Martingoek.



Les Enfantskoek giroa piztu zuten.



Katu dotoreak ibili ziren martitzenean.

## NIRE USTEZ

JOSU ELORTZA

Aratusteak, 'Ai Amatxo!'

Aratusteak ez dira ez El Corte Ingles edo bazar txinatarren asmakizun bat, historia handiko festa dira gurean. Horren adibide, aurreko ostegunean herriko kaleetan ikusitakoa. Iazko Aratustetako kontzertuan berreskuratutako tradizioek herritarrek txunditu zituzten, eta aurtun kalera bueltatu dira. Bergararrok berriz ere Ostegun Gizen eguna ospatu genuen, gazte zein helduek tra-

dizioez disfrutatu genuen.

Kontzertuari helduz, erronka handia zen aurtengoa. Hunkigarria harmailen irudia eta izugarria denbora gabe eta talde ez profesional batek lortutakoa. Dena primeran atera zen. Eskerririk beroena zaleei eta hilabetetako lanarekin musika, antzerkia eta dantza elkartzeko dituen musika posible egin dutenei beste urte batez.

Aurtengoan ere lau buru horiei

herritar zein kanpotar artisten laguntzaz osatutako 180 lagunengan lan eta ilusioa batuz, mugarik ez dugula erakutsi dugu. Zorionak!

**"Elkarlanak ikuskizun borobila aurkeztea ahalbideratu zigun"**

Esperientzia berria zen askorentzat, baina elkarlanak ikuskizun borobila aurkeztea ahalbideratu zigun. Plazera, benetan, izandako taldearekin lan egitea.

Lana eta ilusioa elkarlanarekin batuz dena lor daitekeenez, zergatik ez gure metodologia jarraitu? Hasiara guztiak dira zailak, ez da etsi behar, hesiak saihestu eta eman bidea imajinazioari! Ez ahaztu.

# Osintxun hasiko dira lanean gazte mailakoak, bihar

Soraluce Koop. Saria antolatuko du Lokatzak, denboraldiko lehen lasterketa

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bihar, zapatua (16:00), Osintxun batuko dira gazte mailako txirindulariak -100 inguru- denboraldiko lehen lasterketari aurre egiteko. Parte-hartzaileen artean, talde gipuzkoarrez gain, Burgostik, Kantabriatik, Bizkaitik, Arabatik eta, oro har, inguruko beste probintzia batzuetatik etorritako ziklistak izango dira. Gizonezkoekin batera, aurreko ekitaldian gertatu den moduan, hainbat emakumezko ere espero dituzte irteera puntuan, eta haiendako sari bereziak izango dira, nahiz eta Soraluce enpresak babestuta aurrerago ere Osintxun egingo duten emakumezkoendako lasterketa.

Biharko lasterketarako, antolatzaileek ibilbidearen azken kilometroetan malda bat sartzea erabaki dute. Ez da puntuagarria izango, baina bat baino gehiago

ausartuko da, helmugatik hiru kilometrora dagoela kontuan hartuta. Soraluce S. Coop. enpresak babestutako lasterketa horrek 85 kilometro izango ditu Osintxu, Zubillaga eta Elgoibar artean. Beti bezala, antolatzaileek, parte-hartzea bultzatzeko eta txirindulariek lasterketa amaitzeko bidea izan dezaten, ibilbide laua prestatu dute, aipatutako azken hiru kilometroetako malda izan ezik; horrek, baina, ez du inor lasterketatik kanpo utziko.

## Maila oneko ziklistak iaz

Iaz Xabier Peñagarikanok irabazi zuen lasterketa -Peñagarikano aizkolariaren semea-, eta Espainiako selekzioako kide izan zen hainbatetan. Harekin batera Oscar Santamaria burgostarra ere egon zen podiumean: gaur egun ziklista profesionala da.



lazko lasterketaren irteera unea; bihar, hiru kilometroko malda izango dute azken kilometroetan. | JARANTZABAL



Lokatzako gazte mailan jardungo duten ziklistak, zapatuko aurkezpenean. | IRATI GOITIKA

## Txirindulari hauek ordezkatu dute Bergara

Gazte mailako ziklistendako neguko entrenamendu saioetan landutakoa errepidean erakusteko sasoi iritsi da. Bihar, erretratuko gizonak izango dira Osintxuko irteera puntuan: Mikel Muxika, Iñigo Agirrezabal, Julen Irizar,

Txomin Larrañaga, Andoni Lasa, Andoni Rico, Xabier Gallastegi, Beñat Etxabe, Jokin Etxabe, Asier Taboada eta Jon Arantzabal. Haiekin batera izango dira ibarreko ordezkari Dorletako Amakoak, eta baita Aloña Mendikoak ere.

## "Partidu guztietan zati txar bat izaten dugu, eta hor egiten digute min"

Soraluce BKEk sailkapenean aurrerago dagoen Egiaren kantxan jokatu du

X.U. | BERGARA

Liderraren bisita utzitako gortuzaldi txarra uxatu nahian egingo du bidaia Josetxo Muniategiren taldeak Donostia aldera asteburuan (zapatua, 18:00). Bergarakoek haserre amaitu zuten Ford Mugarriren kontrako partidua, batez ere epaileek aurrekusi baino erraztasun handiagoak eman zizkielako Arrasateko taldeari. Jakinda, gainera, Herreoren mutilek ez dutela aparteko faborerik behar kantxan nagusitzeko, gaur-gaurkoz alde handia dago eta Debagoieneko bi taldeen artean.

Derbiak utzitako kontuak ahaztuta, Egiaren kontrako partidua dute mahoneroek begiz jota, eta hori prestatzen eman dute astea: "Azken partiduetan ez gabilta txarto jokatzeko, baina ez dugu partidua errematatzen jakin, eta hor egiten dugu kale. Donostiako Egia taldea gure aurretik dago sailkapenean, oso indartsu hasi zuen liga, baina azken partiduetan moteldu egin da, ez dio hasierako dinamikari eutsi", adierazi zion Goienari Josetxo Muniategik, derbia amaitu ostean egindako adierazpenean.



Josu Agirre, baloiaz, derbian. | JA

## Puntu beharrean

Sailkapenean hamargarren postuan egonda -14 punturekin-, Bergarakoak puntu beharrean daude, lasaitasun handiagoz ibiltzeko puntu beharrean, egoera ez da eta kritikoa: "Argi eta garbi esanda, partidua irabazi behar dugu lehenbailehen, ea orain arteko joko mailari eusten diogun eta Donostian ezustekoa ematen dugun".

Mahoneroek etetik kanpora bi puntu baino ez dituzte lortu aurtengo denboraldian; hor bada go zer hobetu: "Normalean, partidua guztietan zati txar bat izaten dugu eta kontrarioek min handia egiten digute minutu horietan. Ea oraingoan ez zaigun halakorik gertatzen".

## Liderraren bisita momentu txarrean Soraluce BKErendako

X.U. | BERGARA

Astebeteko atsedendialdiaren ostean liderraren bisita izango dute Soraluce BKE taldeko mutilek bihar, zapatua, Labe-garaietako kantxan (16:30). Jon Beistegiren taldearendako ez da kategoriako liderra hartzeko momenturik onena, jaitsiera postuetatik urrundu nahian dabilta eta Bergarakoak; gainera, emaitza aldetik ere azken hilabete eta erdia negargarria izan da.

Soraluce BKEk bost porrot jarraian batu ditu ligan; urtarriaren 8an irabazi zuten azkeneko Aluminios Francisco Alberdi taldearen kontra, etxean (66-52). Eta bihar aurrean izango duten Bosteko -hori da taldearen izena- moduko talde



Tapoia jartzen. | SORALUCE BKE

baten kontra gaitza izango da erreakzionatzeko gaitasuna erakustea, talde horrek hiru partidua baino ez ditu eta galdu denboraldi osoan. Bada, sentsazio onak berreskuratzeko partidua izango da, datozen astei begira, batez ere.

## Ander Mugurutzak datorren martitzenean izango du Soraluce Sariko hurrengo kanporaketa

Soraluce Sariko Lau terdiko Txapelketa badabil afizionatu mailako pilotari onenak aukeratzen, kanporaketak aurrera doazen neurrian geroago eta gutxiago geratzen dira eta lehian. Bergarako ordezkari bakarrak, Ander Mugurutzak, datorren martitzenean, hilak 28, izango du hurrengo partidua (19:30). Mugurutzak Urbietaren kontra jokatu du, eta bigarren partiduan Yoldik eta Arrietak jokatu dute. Joan den astean Bilboak eta Arratibelek egin zuten aurrera.

## ESANAK

"Egia oso indartsu hasi zen, baina moteldu egin da"

"Partidua errematatzea falta zaigu, hori dugu hobetzeko"

JOSETXO MUNIATEGI | ENTRENATZAILEA

# Iker Valleren margolan abstraktuak ikusgai

Gaurtik martxoaren 11ra bitartean egongo da donostiarraren erakusketa zabalik Aroztegi aretoan

MIRIAN BITERI | BERGARA

Beste erakusketa bat zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Iker Valle donostiarraren margolanak ikusgai egongo dira martxoaren 11ra arte, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara. Berezi margolan abstraktuak ikusi ahal izango dira; tamaina ertaineko eta handiko hamaika pinturak, Xabier Agirrerren istorio laburrez lagunduta doazenak.

Lehenengo aldiz erakutsiko ditu lanak Debagoienean. Haren anaia Bergaran bizi da eta behin baino gehiagotan egon da Aroztegin. Hori dela-eta, bere ibilbidearen gaineko txostena gertatu eta herriko kultura arduradunei aurkeztu zien. Handik gutxira, erakusketa jartzeko gonbita jaso zuten.

## Sukaldaritza abiapuntu

Iker Valle Andoainean jaio zen, 1976an. Txikitatik izan du margotzeko zaletasuna; horren harira, esan digu 1996. urtean hasi zela artelan autodidakta egiten. Komentatu digu sukaldaritza ikasi zuela, eta, horren bidez, koloreak, konposaketak eta beselakoak lantzen hasi zela. "Irriki" horren ondotik, prestakuntza



Iker Valle artista donostiarra Aroztegi aretoan. | IKER VALLE

osetzen joan zen, askotariko ikastaroak eginda. Besteak beste, 1998tik 2001era bitartean, marrazketa ikastaroak egin zituen Alfredo Bikondoarekin, baita pieza zeramikoetan dekorazio ikastaroa, oihalean margotzeko eta metal ezberdinen imitazioen aplikazioa ikastaroa, egurrean margotzeko eskolak, marmol eta egur nobleen imitazioen ikastaroa eta zink soldadura Iñaki Olazabal eskultorearekin, Zumaian.

Pinturaz gain, eskulturak ere egiten ditu donostiarrak. Horren harira, honakoa esan digu: "Eskulturak egiten dituen pintorea naiz ni; gustuko dut bi artelan horiek

nahastea. Batzuetan, egin ditudan koadroak eskulturekin joan dira lotuta, bolumen aldetik; egiten dituzun marrazkiak pinturatik kanpo ikusi nahi dituzu, bi dimentsiotan beharrez, hirutan ikusi nahi dituzu".

Artelanak egiterakoan zertan oinarritzen den ere azaldu digu: "Barruko bilakaera da. Lehen, zirriborroak egiten nituen, baina orain, ez. Goizeko zortzietan mihise zuri baten aurrean jartzen zarenean, hasten zara pixkanaka zikitzen; gero, horrek beste zerbait iradokitzen dizu. Azkenean, zure eta egiten ari zaren horren arteko elkarriketa sortzen da".

## 'Campanilla y el gran rescate' eta 'Cisne negro' etzi Zabalotegin

Etzi, domeka, zinema dago Zabalotegi aretoan, 17:00etan. Haurrek B. Raymondren *Campanilla y el gran rescate* filma ikusi ahal izango dute eta helduendako, osteran, D. Arotskyren *Cisne negro* eskainiko dute. Txikitxoendako sarrerak bi eurotan salduko dira eta gainerakoendakoak, hiru eurotan.

## Eguaztenera arte eman daiteke izena Photoshop ikastaroan

Eguaztenean, otsailak 29, amaituko da Photoshopen sakontze mailako argazkilaritza ikastaroan izena emateko epea. Plaza kopurua 14 lagunera mugatuta dago eta izen-emateak 30 euro balio du. Ikastaroa martxoaren 5etik 15era izango da, astelehenetik eguenera, 19:00etatik 21:00etara, Migel Altuna institutuan.



Haurrendako antzezlanaren irudia. | BEHIBI'S TALDEA

## Behibi's taldeak 'Murren bidaia' taularatuko du gaur Zabalotegin

M.B. | BERGARA

Haurrendako antzerkia dago bihar, zapatua, 18:00etan, Zabalotegi aretoan: Behibi's antzerki taldearen *Murren bidaia* antzezlan. Lierni Fresnedok zuzendutako eta Patricia Francok antzeztutako ikuskizun horretarako sarrerak hiru euro balio du. Antzezlan familiarra da, 5 urtetik gorako ume guztientzako.

Hain zuzen, aniztasunaren edertasuna agerian utziko nahi dute istorio horretan Behibi's taldekoek. Mur Afrikatik etorri da eta Txema hemen bizi da, elkar ezagutu eta lagun egingo dira. Broder beltzekin kontuz ibili beharra dagoela uste du, eta euren familiek ez dute begi onez ikusten. Zein polita den desberdintasuna! Zenbat kolore eta forma! Zuriak eta beltzak... Edo ez?



Karlos eta Iker, Artekalen duten egoitzan.

Karlos Etxaniz eta Iker Muruamendiaratz Pikupe Produkzioak

## "Gure asmoa da ekitaldi kulturalak sustatzea"

Bergarak enpresa berria du: Pikupe Produkzioak. Iker Muruamendiaratz eta Karlos Etxaniz daude atzean.

## Nondik dator Pikupe sortzeko ideia?

Aspaldi geneukan ideia hori. Bergaran eta Debagoienean, kultura mailan dagoen eskaintza zabalak kontuan izanda, ideia lantzen hasi ginen. Inguruko iritzia jaso genuen, eta, oso harre- ra ona izan zuenez, aurrera egitea erabaki genuen. Hasieran, nahiko sinplea zen, baina apurka joan gara horri forma ematen.

## Zertaz arduratuko da, zehazki, Pikupe?

Kultura jorratzeaz. Gaur egun ditugun eta etorkizunean lortzen joango garen produktuak merkaturatu jartzeaz. Lotu nahi ditugun bi gai daude hor: batetik, artistak edo taldeak daude, hasten direnak nahiz esperientzia daukatenak. Gazteek edo esperientzia handirik ez dutenek izugarritzko lana egiten dute eta gero ez dakite nora jo hori saltzeko, eta, horregatik, gure asmoa da laguntzea; izan ere, diru eskasia dago, eta horrek aukera emango digu produktu eskuragarriagoak eskaintzeko. Bestetik, agenda kulturalak prestatzen dituztenei laguntza eman nahi diegu; epe motzean, guk dauzkagun produktuak saltzea eta, epe ertainera, haiendako erreferentzia izan nahi diegu.

**Azken horren harira, agenda kulturala antolatzen dutenei zerbaitzua eskaintzeaz gain, partikularrei zuzendutakoa ere baduzue, ezta?**

Hala da. Herritarrei hainbat ekitaldi antolatzen lagunduko diegu. Esaterako, ezkontza baterako dantzariak, txistulariak edo txalapartariak izango ditugu, edo enpresa batek 25 urte egiten dituela eta horren harirako ekitaldi berezia antolatze-ko bidea ere izango dugu.

## Seguruak ere eskainiko dituzue, ezta?

Bai; Generali Seguros etxekoenak. Agente moduan jarduteko eskaini ziguten. Produkzio kontuarekin bateragarria dela iruditzen zaigu, ekimenak ere aseguratzeko direlako. Ekimen bat antolatzerakoan, antzerki taldea edo dena delakoa behar izateaz gain, seguru ere behar da, derrigorrezkoa da. Erraztasuna emango diegu gurekin ekimenak antolatzen dituztenei. Dena dela, partikularrei ere eskainiko diegu zerbaitzua; edozein seguru mota.

## Hori guztiari, epe motzera begira; eta ertainera begira zer?

Bergarako balio kulturala ezaugarritzeko asmoa dugu: Bergarako herria kanporatzea. Hori aztertzen joango gara denborarekin. **Amaitu aurretik, noiz egingo duzue inaugurazio ekitaldia?**

Martxoaren 2an izango da, 19:00etan, Artekalen kalean zabalduko dugun bulegoan. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Sorpresatxoa ere izango da ekitaldian.

Esperientzia handirik ez dutenek izugarritzko lana egiten dute eta gero ez dakite nora jo saltzeko; gure asmoa laguntzea da



PIKUPE PRODUKZIOAK

INAUGURAZIOA

Martxoaren 2an, arratsaldeko 19:00etan gure bulegoan elkartuko gara

Artekalen, 7 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)

www.pikupe.com



lazko areto-bizikleta maratoiko parte hartzaileak Zubikoa kiroldegian, irakaslearen aginduak jarraitzen. | OSCAR CARRASCAL

# Spinning erabiltzaileen topaketa martxoaren 24an

Oñatiko Udalak eta E-goitek Kirol Zerbitzuek antolatu dute eta Zubikoa kiroldegian izango da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Iazko erantzuna ikusita, II. areto-bizikleta maratoia antolatu dute Oñatiko Udalak eta E-goitek Kirol Zerbitzuek enpresak: martxoaren 24an egingo dute, Zubikoa kiroldegian.

Oraingo, izen-emate epea zabalik dute: interesatuek [www.oinati.net](http://www.oinati.net) atarian egin behar dute inskripzioa martxoaren 21a baino lehen. Plaza mugatuak dituzte; hori horrela, aholkatu dute izena lehenbailehen ematea.

Oñati, Bergara, Zumarraga, Arrasate, Aretxabaleta, Legazpi eta Antzuolako spinningeko udal kirol zerbitzuen erabiltzaileek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 20.

"Iazko erantzuna oso ona"

Antolatzaileen asmoa da iazko parte-hartzaile kopuruari eustea. Lehenengo spinning maratoian 140 lagun egon ziren. 140 bizikleta ipini zituzten eta 140 parte-hartzaile egon ziren. "Egia esan, oso gustura geratu ginen iazko maratoiarekin. Erantzuna oso ona izan zen, eta aurten errepikatzea espero dugu. Oñatiko eta inguruko herrieta kirol zerbitzuetako bizikletak ekarriko ditugu, ahalik eta pertsona gehien erakartzeko", esan digu Oñatiko Kirol teknikari Oskar Carrascalek.

Areto-bizikleta maratoia hiru ordukoa izango da: 16:00etatik 19:00etara arte, eta spinninga ematen duten irakasleek emango

dituzte eskolak. "Iazko maratoian erabilitako sistema bera erabiltzeko asmoa dugu: 40 minutuko lau saio eta batetik bestera bost minutuko atsedena. Dena den, oraindik erabat zehaztu barik daukagu nola egingo dugun mara-

DATUA

# 140

PARTAIDE

Horiek dira iaz egindako areto-bizikleta maratoian parte hartu zuten lagunak.

toia", esan digu Oscar Carrascalek.

E-goitek Kirol Zerbitzuek enpresako irakasleek emango dituzte eskolak. "Iaz ere haiek izan ziren irakasleak. Haiek prestatuko dituzte 40 minutuko saioak. Irakasle bakoitzak saio bat egitea da asmoa", esan digute.

Spinning festa bukatuta, eta aldageletarako bidea hartu aurretik, enpresa laguntzaileek emandako hainbat opari zozketatuko dituzte.

Parte-hartzaileek bete beharreko baldintza bakarra hau da: toalla erabili beharko dute.

**Spinning erabiltzaileak**

Debagoieneko udal kirol zerbitzu guztietan ematen dituzte spinning eskolak. Bada, horietan dabilzanak elkartzeko asmoz antolatu dute maratoia. "Askok egiten dute spinninga. Azken urteetan bilakaera nabarmena izan du. Gure helburua da inguruko herrietako kideak hitzordu berean elkartzea, esperientziak elkarri kontatzea eta, bidez batez, spinningari bultzada ematea. Herri-tarrak animatu gurako nituzte", dio Carrascalek.

## BETERANUAK

### EMAITZAK "A" TALDEA

Zorrobero-Sasquatch	5-2
Gibel Boys-Bundeswehr	3-2
Joxely-Ankarteko	4-0
Xaguxar-Indar 85	7-0

### SAILKAPENA "A" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Kalañatasaray	15	6
2 Dollygans	13	5
3 Etxaikat	10	6
4 Txarrixak	10	5
5 Albok	9	6
6 Lozoromo	7	5
7 Nandrolona	3	5
8 Paketinaikos	3	5
9 Txuskos	0	5

### SAILKAPENA "B" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Xaguxar	15	6
2 Zorrobero	13	6
3 Gibel Boys	13	6
4 Joxely	12	6
5 Indar 85	7	6
6 Bundeswehr	4	6
7 Sasquatch	3	6
8 Ankarteko	1	6

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

A TALDEA, 9. jardunaldia

**Zapateria 13:00** Dollygans-Txarrixak

**Zapateria 14:30** Lozoromo-Nandrolona

**Zapateria 18:30** Paketinaikos-Etxaikat

**Domeka 13:30** Txuskos-Albok

**Atsedena:** Kalañatasaray

**Arduraduna:** Zorrobero

### Liderrak, atsedena

Kalañatasaray taldeak atsedena hartuko du aste bukaeran. Hori horrela, norgehiagoka interesgarriena Dollygans eta Txarrixakek jokatuko dute. Bigarren eta hirugarren lekuetan daude, hurrenez hurren. Txarrixak, irabazten badu, bigarren lekuan jarriko da. Dollygans nagusi bada, aldiz, liderrarengandik puntu batera jarriko da.

### Xaguxar, lehen lekuan

Aurreko aste bukaeran 7-0 irabazi ondoren, Xaguxar da B multzoko liderra.

## Nekazaritzako ur-kontsumoan beherapenak egingo ditu Udalak

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udalak behin eta berriz erakutsi du lehen sektorea indartu eta bultzatu gura duela. Hori horrela, nekazaritzarako erabiltzen den ur-kontsumoa diruz laguntzea erabaki du. Beherapena aurreikusten duen ordenantza urtarrileko osokoan onartu zuten. Oraingo, hasiera bateko izaeraz onartu dute dokumentua, eta alegazioak aurkezteko epea zabalik dago martxoaren 8ra arte. Dokumentua ikusgai dago udal bulegoetan.

### %50eko deskontua

Beherapena aplikatuko diete, hiruhileko, 62 metro kubikotik

gorako kontsumoa duten nekazaritza ustiatuei. Haiek kontsumoaren %50eko dirulaguntza zuzena jaso ahal izango dute. Betiere, hobaria aplikatzeko gehieneko oinarria 1.000 euroko ur-kontsumoa izango da.

### Dirulaguntza, ordainketa baten

Dirulaguntza horiek eskatu gura duten herritarrek bi baldintza bete beharko dituzte: Oñatin erroldatua egotea bi urteko antzinatekin eta nekazaritza ustiatuek Oñatin inskribatua egotea eskaera egin baino bi urte lehenagotik. Eskaerak udal bulegoetan egin beharko dituzte ohi-ordutegian.

Nekazaritza ustiatuei bakoitzak onuradun bakarra izan dezake. Hori horrela, laguntza bakarra jaso ahal izango du.

Udalak ordainketa bakarrean egingo du aurreko urteko kontsumoari dagokion dirulaguntza.

### Kontuan hartzeak

Eskaerak egiteko orduan, nekazaritza ustiatuek titularrek hainbat betebeharrak bete beharko dituzte; besteak beste, araudi sektorialeko exijitutako administrazio baimen guztiak izan beharko dituzte; landareen osasuna, abereen identifikazioa eta osasuna, eta, horien ongizate eta ingurumenari dagokionez, indarrean dauden araudiek diotena betetzea; eta bestelako higie eta osasun baldintza guztiak betetzea.

## 'A cappella' lehiaketa prestatzeko Ganbarakoen kontzertua

M.B. | OÑATI

Ganbara Abesbatzak kontzertua egingo du domekan, hilaren 26an, 19:00etan, Santa Ana antzokian. *Kultura herri-jorran* ekimenaren barruko zuzeneko *A cappella* delako lehiaketa prestatzeko izango da.

Aitor Biainek zuzentzen duen nagusien Ganbara Abesbatzak Berribeiteko (Iruñea) estatu mailako abesbatzen lehiaketan parte hartuko du, beste lau taldeekin batera. Martxoaren 16tik 18ra arte jokatuko den lehiaketa "gogo handiz" prestatu dute, eta hor abestuko dituzten piezak kantatuko dituzte etzi.

Bestalde, Ganbara Abesbatzak irudi berria estreinatuko du: uniformeak aldatu dituzte, eta martxoko lehiaketara berriak erango dituzte.

### Josu Elberdinen kantuek

Kontzertuaren lehen zatian sei kantu abestuko dituzte; besteak beste, *Alleluia*, *Lauda Sion*, *Gloria* eta *Sleep*.

Bigarren zatian zazpi pieza eskainiko dituzte; tartean, Josu Elberdinen *Segalariak* eta *Izar ederrak*, Aita Donostiaren *Iru Txito*, eta Carole Haywooden *Dind't my lord deliver Daniel*. Lehiaketarako entsegu garrantzitsua izango da.

# Kolorea, kolorea eta kolorea Aratusteetan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Eguraldiak lagunduta, kolorea izan da nagusi Oñatiko Aratusteetan. Egubakoitzetik martitzenera arte, mozorroak eta kolorea izan dira protagonistak herriko kaleetan. Ikastetxeetako neska-mutikoeak eta herritarrek giro


eta gai askotariko mozorroekin bete dute herria: ipotzak, euskal jaiak, Mari Domingi, sorginak, pailazoak, Spiderman, sevillanak, printzesak, erleak, marrubiak, punkak, rockeroak...

Aratuste-martitzena izan zen egun koloretsuena.

Kiroldegian elkartu ziren txikiak Txorromorro taldearen *Gramola* ikuskizuna ikusteko. Dantzan egin zuten, eta, koloretako diskoak aukeratuz, hamar-kada askotariko musika entzun eta dantzatu zuten. Koloretako banderak eta baloi erraldoiak

erabili zituzten ume eta helduak dantzan ipintzeko. Disko festan ere gustura egin zuten dantzan.

Era berean, elkartasunerako eguna izan zen martitzena: Parrokiako Misio Taldeak elkartasunerako txokolata-jana egin zuen Foru plazan.



Piolin txikia plazan.



Elkar Heziko ikasle taldea Mari Domingi mozorroarekin.



Pinguino txikia, ondo babestuta.



Bakeroak, txakurra, pailazoa, mimoa, rockeroa, Superwoman...



Pailazo taldea: ama eta bi alabak kiroldegiko ikuskizunean.



Errekalde Herri Eskolan euskal jaiak izan zituzten hizpide mozorrotzeko.



Pailazoa kamera agurtzen.



Eskale bikotea.



Mus-man, tigre txikia, Superman eta pirata.



Txantxiku Ikastolako ipotzak eta perretxikoa Herriko Plazan.



Argazkiko neskatilak pijamarekin eta panpinekin irten ziren kalera.



Pinotxo, sudur luzearekin.



Erlea eta sevillana ogitartekoa jaten kiroldegian. | MIREIA BIKUÑA

## Egoera politikoaren gaineko herri batzarra egingo dute bihar

Oñatiko ezker abertzaleak herri batzarra egingo du bihar, zapatua, 11:00etan, kultura etxean. Bi gai nagusi landuko dituzte: egoera politikoaren analisia eta 2012. urteko ildo politikoa. Bestalde, domekan ezker abertzaleak Donostian aurkeztuko duen "ekarpen" berriaren aurkezpena gonbidatu dituzte herritarrek.

## Aste Santuan eski irteera egingo dute Tignes-Val d'Iserera

Aloña Mendi eski sailak aste osoko irteera egingo du Aste Santuan: apirilaren 6tik 14ra, Tignes-Val d'Iserera. Bestalde, denboraldiko aste bukaerako azken irteera egingo dute martxoaren 23tik 25era, Baqueira Beretara. Interesatuak izena eman dezakete 615 72 15 69 telefonoan edo Aloña Mendi tabernan, astelehenean.

## Zuazola Institutuko ikasleek antzerki musikatua egingo dute

Zuazola Institutuko DBHko laugarren mailako ikasleek *Txirrina kantari* delako antzerki musikatua egingo dute bihar, 18:00etan, aretoan. Peru izeneko mutikoaren eta bere lagunaren abenturak kontatuko dituzte.

Sarreraren dirua (nagusiak bi euro eta umeak bat) Londresera egingo duten ikasbi-daiarako gordeko dute.

## Aloña Mendiko ziklismo taldeak aurkeztuko dituzte

Aloña Mendi txirridulari sailak gertu ditu taldeak, eta horien aurkezpena egingo du domekan, 11:30ean, Etxe Aundi jatetxean.

Lau talde izango ditu errepidean Aloñak: gazteak, kadeak, infantilak eta alebinak. Taldeak banaka-banaka aurkeztu, eta denboraldirako helburuak azalduko dituzte.

## Umeei hausterrea ipintzeko familia-meza egingo dute domekan

Hausterre Egunak hasi zuen Gari-zuma eguaztenean, eta hori ospatzeko elizkizun berezia egingo dute domekan, hilaren 26an, parrokiaren, 12:00etan. Familia-meza ospatuko dute, eta parte hartzen duten neska-mutikoei hausterrea ipiniko diete. Umeei kapera txikian jasoko dituzte Hausterre Egunaren eta hausterrearen gaineko azalpenak.

## 55 lagun joango dira gaur Almeriara Kepa Urraren 20. urteurrena dela eta

Hainbat ekitaldi izango dira hurrengo egunetan; tartean, torturak eta sakabanaketa berbagai

M.A. | ARETXABALETA

Kepa Urraren 20. urteurrena gogoan *Hiru baietz* ekimena jarri du abian herritarrek osatutako talde bategi, eta hainbat ekitaldi antolatu; gaur Almeriara martxa egingo dute, han dago-eta Urra. Autobusa bete-beteta joango da Andaluziarantz, 55 lagunek eman dute -eta izena.

### Hausnarketa eta jaia

*Hiru baietz* egitarauko gainerako ekitaldiak datorren astean egingo dituzte. Martitzenean, torturaren gaineko hitzaldia izango da eta egunean, sakabanaketa eta bizi arteko zigorren gaineko mahai-ingurua, Aretxabaleko preso senideak ere bertan direla. Arkupen izango dira biak (19:00).

Eta ekitaldiok bukatzeko, jai giroa izango da martxoaren 3an, zapatua. Bolo txapelketa egingo dute, bolatokian, eta manifestazioa gero herriko kaleetan; mokadutxoarekin agurtuko dute eguna.

### 'HIRU BAIETZ' EGITARUA:

#### OTSAILAK 28

19:00 Arkupen

#### Filma eta hitzaldia:

*Tortura Euskal Herrian.*  
Hizlariak: TAT elkarteko kide bat eta torturatu bat.

#### MARTXOAK 1

19:00 Arkupen

#### Mahai-ingurua:

*Sakabanaketa eta bizi arteko zigorra.*

Hizlariak: abokatu bat, preso ohi bat eta Aretxabaleko preso senideak.

#### MARTXOAK 3

17:00 Bolo-txapelketa

19:00 Manifestazioa eta ondoren mokadutxoa

## Vazquez, bigarren, autonomia erkidego arteko txapelketan

M.A. | ARETXABALETA

Logroñon (Errioxa) jokaturako XII. autonomia erkidego arteko karate txapelketan bigarren postua eskuratu zuen Odei Vazquez aretxabaletarra joan den zapatuan. Kumite modalitatean jardun zuen norgehiagokan, 60 kiloz azpikoa.

Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Errioxako karatekak elkarrekin ziren Logroñon, eta, norgehiagoka gogorak izan baziren ere, UDA elkarteko aretxabaletarren finalera arte eutsi zion. Hala, pozik itzuli da eskuraturako dominarekin.

### Estatu mailako txapelketa

Martxoaren 10ean eta 11n Espainiako txapelketa jokatu dute Barakaldon. Vazquezen ilusioa da txapelketa horretarako sailkatzea eta Euskadi ordezkatzeko, eta bide onetik doa. Izan ere, Euskadiko txapelketa da kumite modalitatean (60 kiloz azpikoa). Hala ere, hautatzaileek oraindik ez dutela egin aukeraketarik jakinarazi du Odilo Vazquez entrenatzaileak: "Euskadiko ordezkariak antolatutako entrenamenduetara joan beharra dauka eta han erabakiko dute nortzuk joango diren estatu mailako txapelketara".

# "Maiatzean zabaldu gura dugu, baina ez edozelan"

Maiatza da kiroldegia zabaltzeko azken data, baina lanak bukatzen badituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kiroldegiko eraikinaren obra planak dioenez, otsailaren 28ra, hau da, martitzenerako bukatuta izan behar dute eraikina. Baina ez da hala izango, Ana Bolinaga alkatearen ustetan: "Atzeratuta dabiltzala jakinarazi digute eta arrazoia da materiala ez zaiela iristen: panel batzuk falta dira, instalazio elektrikoetarako osagaiak...".

Eraikinaren lanak bukatuta, Industria Saileko ikuskaritzak onartu behar du; gero, makinak martxan izango dituzte 15 bat egunean; eta bukatzeko, ekipatu egin behar da. Hortaz,

obraren atzerapenak eragina izango du gainerako kontuetan, baita irekiera datan ere: "Gure asmoa da maiatzean zabaltzea, baina ezin dugu ziurtatu. Gainera, ez da gure asmoa edozelan, lanak behar bezala bukatu barik, zabaltzea", jakinarazi du Bolinagak.

### Esleipena erabaki barik

Bestetik, kiroldegia kudeatuko duen enpresa hautatzeko prozesua bukatzeaz dago. Enpresa bi aurkeztu ziren lehiaketara: batetik, Goiena Sport -kirol jardueren ardura duena orain-; eta bestetik, LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatu duten denboraldi baterako elkarteak. Hainbat bilera egin ditu hautaketa mahaiak eta laster hartuko dutela erabakia jakinarazi du alkateak.

Bada, kudeatuko duen enpresa hautatu ondoren, tarifen berri emango dute eta abonatzeko kampaia abian jarri: "Kuotak oraingoen aldean handiak izango dira, baina eskainiko den zerbitzuak ere ez du zerikusirik izango orain artekoarekin".

Zabaldu bitartean Eskoriatzako -hiru hilabeteko abonua- eta Arrasateko -bi hilabeteko abonua- kiroldegietara joaten segi dezakete aretxabaletarrek.

## Aurrekontuaren onarpena gaur

Gaur egingo duten ezohiko osoko bilkuran 2012ko udal aurrekontua eztabaidatu eta, ondo bidean, onartu egingo dute. Alkateak aurreratu du daukaten dirua egokitu egin dutela obra eta proiektuetarako: "Eta xemaiko xemaiko banatu, ez dugulako gehiago zorpetu gura". Hala, behera egingo ez duen bakarria Gizarte Zerbitzuetako aurrekontua izango da. Azpikontratazioaren gainean hausnartu gura dutela ere jakinarazi du.

### ESANAK

"Lanak behar bezala bukatu barik ez dugu zabalduko"

ANA BOLINAGA | ALKATEA



Oihan Vega irrati esataria *Euskeraren espektakulua* aurkezten. | JULIO CALLEJA

## 'Euskeraren espektakulua', hausnarketarako bidea

M.A. | ARETXABALETA

Hilabete eskas dela eskaini zuen Loramendi Elkarteko Sustapen taldeak *Euskeraren espektakulua* ikuskizuna, eta Arkupeko Zariaia aretoa bete egin zen hiru saioretan. Orain, hausnarketarako sasoi da, eta ikusle horietako batzuen iritziak jasotzen jardun dute.

### Es Kerrak ikusleei

Ikusleek oso ondo pasatu zutela jaso dute Sustapen taldeko kideek, eta bereziki ondo baloratu dute herritarren parte-hartzea egingo esketxetan. Hain zuzen ere, euskararen erabileraren inguruan hausnartu eragin dietela onartu dute ikusleek, baina ez dagoela

zertan tristatu gaineratu dute: "Gai garelako errealitate horri buelta emateko eta euskaraz gustura hitz egiteko".

Sustapen taldearen helburuak bete ez ezik gauditu ere egin direla diote bertako kideek, "jendetza ikaragarria" joan zelako, eta benetan eskertu nahi diote jendeari "espektakulua ikustera joateko eta iritzia zintzo emateko egin duen ahalegina". Era berean, jakinarazi dute ikusteko gogoz geratu zirenek izango dutela aukera inguruko herrietan.

### Ondorioei konponbidea

Bestalde, espektakuluaren inguruko lana hasi besterik ez dela egin diote Loramendikoek: "Bigarren parte geratzen da: hausnarketatik ateratako ondorioei konponbidea ematea". Eta, ildo horretatik, hauxe gaineratu dute: "Gure emozioak -haserre, amorruta, maitasuna...- gure hizkuntzan adierazteko zailtasunak ditugula konturatu gara. Eta horiei izena jartzeko ordua iritsi dela uste dugu". Horretarako herritarren ekarpenak ezinbestekotzat jo dituzte: "Emozioei izena jarriko dien jendearen parte-hartzea behar dugu. Irekita dituzue ateak edozein ekarpenetarako".

Eta Sustapen taldearen azken helburua zein den ere argitu dute: "Ea denon artean aretxabaletarren behar guztiak kalitatezko euskaraz asetzera heltzen garen".



Santakurtz 24, behea ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak  
•  
Obra bukaerako garbiketak  
•  
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak  
•  
Kristalen garbiketak  
•  
Arropa garbiketak

# Musikaz eta kolorez jantzita ospatu zuten Aratuste-martitzena umeeek

500 neska-mutiko baino gehiago elkartu ziren plazan, kalejira egiteko gero

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Goiz hotzari moztorro beroa jantzi eta Herriko Plaza neska-mutikoz bete zen martitzen goizean. Pausokako, Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi Ikastolako 2 eta 12 urte arteko 500 bat elkartu ziren moztorroak aldean: txatxoak, sorginak, iratxoak, bolantak... 5 urtekoek txino-dantza egin zuten, urtero legez, eta kalejira joan ziren gero guztiak.

Kurtzebarri eskolakoek bazkalostean utsi zieten Aratustee-tako ospakizunei, dantzen erakustaldia eginda guraso eta herri-tarren aurrean. Euskal dantzen ibilbide zabala erakutsi zuten, adin bakoitzeko ikasleek dantza bat eskainita. Horiak, gainera, herriko jai eta bestelako ospakizunetan ere dantzatzeko aukera izango dutela jakinarazi dute eskolako kideek.

## Agurra, 'Txin' erreta

Aratuste-martitzen arratsaldea, ostera, buruhandi eta erraldioen atzetik pasatu zuten ume eta gaztetxoek, txarangak girotuta. Eta aurtengo moztorro jaia agurtzeko, Santa Ageda neska-mutilek plazaraino eroandako Txin-en zerraldoa erre zuten.



Bolanta koadrila martitzen goizean dantzan hasteko gertu. | M.A.



Kurtzebarriko ikasleak plazan dantzan, martitzen arratsaldean. | KURTZEBARRI ESKOLA

## OHARRAK

### LODOSAKO IKASTOLAREN ALDEKO EKITALDIA

Arizmendik antolatuta, Ibaialde ikastolaren aldeko ekitaldia izango da gaur Herriko Plazan (15:30-19:00): trikitalariak, umeendako tailerrak, denda, txosna, bertso-lariak, herri-tarren dantza saioa, txalapartariak...

### 'LA DAMA DE HIERRO' ETA 'EL GATO CON BOTAS' FILMAK

Aste bukaeran Margaret Thatcher politikari ingelesaren istorioa izango dute helduek Arkupen: gaur eta bihar (22:00); domekan (19:30); eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *El gato con botas* dute bihar eta etzi (17:00).

### IRTEERA APOTZAGA ALDERA

Kurtzebarri eskolako Gurabari guraso elkarteak ibilaldia egingo du bihar herri inguruan. Hitzordua eskolako kantxan dute (10:00); hona: Apotzagaetxerri, Salluente ermita (San Blas), Apotzaga, Galartza eta Aretxabaleta.

### 'AI AMA!' SAIOA IKUSTERA JOATEKO IZEN-EMATEA

Loramendi elkarteak autobusa antolatu du ETBko *Ai ama!* saioa ikustera joateko. Martxoaren 21ean izango da irteera: 18:45ean atera Aretxabaletatik eta saioa bukatutakoan (zuzenean da), gauean, itzuli. Mokadutxoa eskainiko dute bertan. Izena emateko Loramendira jo behar da.

## ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari!



11. Zeini esaten zitzaien Aretxabaletan Damaikasía?

12. Zein ez da sinonimoa?  
a) kakapirri b) ipurterre c) zaztar d) zazpiki

**Erantzunak eta zure datuak** (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaleta 96 posta-kutxa edo [lehiaketatxabalta@gmail.com](mailto:lehiaketatxabalta@gmail.com).

11: \_\_\_\_\_ 12: \_\_\_\_\_  
Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ Tel.: \_\_\_\_\_

**Azken eguna: Martxoaren 2a.**

**Aurreko galderen erantzunak:**

9: c) Murualde Elkarte.  
10: Ezer gabe gelditu.

**Mobiliario  
ARENAZA**

- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**zenbaki**  
aholkulariak-abokatuak

#### • Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.  
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.  
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.  
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkursoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioeko espedienteak.  
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioak.  
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)



Felis Beltran de Heredia, Eguzkigrafinprimategian. | M.A.

**Felis Beltran de Heredia** | Eguzkigrafinprimategia

## "Herri aldizkari asko egiten ziren gurean sorrera garaian"

M.A. | ARETXABALETA

Eguzkigrafinprimategia kooperatiba elkarteak 33 urte beteko ditu aurten. Arrasateko bi inprimategi -Goya eta Mondragonesa- eta Aretxabaleta Graficas Leniz batuta sortu zen. Felis Beltran de Heredia presidentek haren nondik norakoen berri dakar.

### Zer eskaintzen duzue?

Gure merkatua oso zabala da: kartelak, eskuorriak, errifak, pegatinak, jai egitarauak, taloitegiak, hildakoen oroigarriak, bisita txartelak... Argibide-liburu mordoa egiten dugu eta liburuak ere egin izan ditugu.

### Eta azken urteotan asko aldatu da eskaintza hori?

Eskaintza antzekoa da, aldatu dena teknologia da. Lehen, diseinu eta maketazio lanak ere geuk egiten genituen, ondoren eskuz muntatu eta makinara. Gero, ordenagailuekin hasi ginen

lanean eta orain, diseinu agentziek eginda ekartzen dute gehiena; guk inprimatu eta manipulazio lanak egiten ditugu.

Aipatu gurako nuke herri aldizkari asko egiten zirela gurean sorrera garaian. Hori aldatu egin da...

### Egun, zenbat langile zaudete?

Orain dela hiru urte 20 ginen; egun, aurre-erretiroak direla-eta, hamar bazkide gara.

### Zuen egutegia oso ezaguna da, jendea zain izaten duzue, ezta?

Bai; azaro aldean egutegi eske izaten ditugu batzuk. Zaila da argazkiarekin asmatzea, baina pozik hartu izan ohi dute. Egutegi handiak 1.000 ateratzen ditugu, agortu egiten dira.

### Eta pilota partiduetarako sarrerak ere egiten dituzue...

Bai, Asegarre enpresarendako kartelak, sarrerak eta pilotarien postalak sarri egiten ditugu.

## Aingeru Guardakoaren eguneko bazkarirako txartelak salgai Basotxon

M.A. | ARETXABALETA

Urtero legez, zaindari duten Aingeru Guardakoaren eguna ospatuko dute Basotxo erretiratu elkarteak kideek martxoaren 1ean, eguna. Hona hemen egun horretako gertatu duten egitaraua: salda, Basotxoko tabernan (11:00); meza, agustindarren monasterioan

(12:00); eta bazkaria, Arrasateko Sara jatetxean (14:00). Autobusa egongo da jatetxera joateko: 13:15ean joan Basotxotik irtenda, eta 18:30ean itzuli.

Bazkarirako txartelak hartzeko azken eguna gaur da, Basotxoko bulegoan (11:00-12:00). Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte.

**Mobiliario  
ARENAZA**

- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**zenbaki**  
aholkulariak-abokatuak

#### • Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.  
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.  
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.  
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkursoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioeko espedienteak.  
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioak.  
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)

25  
urteurrena



## NIRE USTEZ

DORLETA  
KORTAZARHikastaroa  
(sic)

**H**or gabitz, Eingeinkek antolatutako hitano ikastaruen, neu be tartien (hor be bai!). Giro jatorra eta ikasteko gogua daukou, eta horrek laguntzen dau. Lotsak alde batera utzi eta hor gabitz, gure ama hizkuntza izan dana ebalterako orduen, orekarixa soka gañien letxe... hiru bider pentsau biher esaldixa zelan osatu hanka sartu barik! Sarri akordetan naz euskaldun barrixen ahalegiñakin, eta oin nire burua hor ikustian, nire miresmena berresten dot. Guk be berbalagun talde barrixa sortu biherko dou, bagabitz bittartien, saiakerak eitten ordu txikitan!

Lehengo saiuen galdetu zuzkun irakasliak, ia hitanua galduz gero zeozer pasauko litzaken, eta askok bi bider pentsau barik baietz erantzun geben. Bihotzeko miña sentiru neben; izen be, hitanua galduz gero, munduak duda barik bueltak emuten jarraituko leuke, baina guk, pertsona moduen, asko galduko geuke. Arbasuei zor dotzau gure hizkuntza eta izaerian parte dan altxor hau zaintzia. Eta hori da taldien bizi dotena askoren begixetan, guria dan hori zaindu eta mantentzeko.

Hitanua badauko berezixa eitten dauen hainbat arau, eta horreik apurto eta egungo egorara moldatziaren inguruen iritziak daz. Ni ez naz hortan sartuko. Eingo neuke erakustalditxo bat, ikastaruen zenbat ikasi douen ikusi daizuen, baina hitanua arauetako bat bete bihera dauket: komunikabidietan hitanoik ez!; beraz, irakasliak kasu ein eta oingoz libre!

**"Hitanua galduz gero, pertsona moduen asko galduko geuke"**

Lodosako  
Ikastolari  
584 euro eman  
dizkio Udalak

M.B. | ESKORIATZA

Otsaileko ohiko osoko bilkuran, Lodosako Ibaialde ikastolari 584 euro bideratzea onartu zuen udalbatzak. Arizmendi Ikastolak udalerrian dagoen ikasle bakoitzeko euro bateko laguntza ematea eskatzen zion Udalarari, eta Bildu, Elizateak, EAJ eta Ezker Anitzako udal ordezkariak eskaera onartu zuten. PSE-EE taldeko Jose Luis Canterok kontra bozkatu zuen; hark argudiatu zuen eskaeraren edukiarekin bat badator ere, hori legezkoa den jakiteko txosten juridikoa eskatu beharko litzatekeela.

Bestalde, Arizmendik Nafarroako ikastolari laguntzeko ekitaldia egingo du gaur. Plazaraino kalejiran joango dira txanpon bana eskuan dutela, eta 19:30era arte askotariko ekintzak egingo dituzte.

## OHARRAK

## KIROLA ETA TXOKOLATEA

Gaztelekuko gazteek frontenisean jokatu dute bihar, 18:00etan, eta gero, txokolate-jana egingo dute. Etzi, ostera, filma izango dute.

## KIROL HITZORDUAK

Bihar norgehiagoka bi daude kiroldegian: 16:00etan, saskibaloian, Eskoriatza eta Txirritta lehiatuko dira, gazteetan; eta 18:00etan, areto futboleko Euskal Ligan, etxeokak eta Kukuiaga Etxebarri. Etzi, ostera, areto futboleko Eskoriatzako gazteek San Martinen kontra jokatu dute, 11:00etan.

## 'BABE TXERRITXOA'

Etzi, domeka, *Babe txerritxoa* filma ikusi ahal izango dute umeek museoan, 17:30ean.

## ARATUSTEETAKO OTZARA

Aratuste-zapatuan, Koldotxo Luis Ezeizako Ikasleen Gurasoen Elkarteak otzara bat zozketatu zuen. Saria 5.207 zenbakiari egokitu zaio.

## Gurean izango dira 'Buah txabal!' eta Anai-Arrebak

Jon Zubiaga 'Osoron' arrasatearraren antzezlan gaur da, 22:30ean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Antzerki eta musikazaleendako hitzorduak daude asteburuan gurean. Gaur, egubakoitza, Arrasateko AED elkarteak ekoitzi duen eta Unai Iturriagak idatzi duen *Buah txabal!* antzezlan taularatuko du Jon Zubiaga *Osoron* arrasatearrak. Ikuskizuna 22:30ean hasiko da, unibertsitatean, eta sarrera deialde da.

Gazteez eta eleaniztasunaz diharduen bakarrizketa umoretsu eta probokatzailerak da antzezlan. Garikoitz Kortabitarte *Beti* da obrako protagonista. 20 urte bueltako gaztea da *Beti*, eta goitizena beti gazte lokalean sartuta egotetik dator. Behin herrira aterako da parrandan eta tragedia bat geratuko zaio: eskuko telefonoa galduko du. 45 minutuko iraupena duen bakarrizke-



Jon Zubiaga Osoron. | GOIENA

taren bidez, telefonoa galtzea ezbeharrak izateaz gain, euskarekin duen harreman gatazkatsua, bere izaera xebea eta lokaleko gazteen gaineko topikoen

parodia muturreko baten lekuko egingo ditu ikusleak.

Bihar, zapatua, ostera, kontzertua dago Inkernu tabernan; hain justu ere, Pasai Donibaneko Anai-Arrebak taldea. Musika emanaldia 22:30ean hasiko da, eta, ohikoa den moduan, sarrera deialde izango da.

## Dantzarako gogoia

Hainbat hilabetetako lanaren ondoren, boskoteak lehen lana kaleratu du, bost abestiz osatua dagoena. Musika dantzagarrria egiten dute; besteak beste, Beth Ditto, Men, Women and Children, Jackson 5, The Rapture, Parchis, Bee-Gees, Iggy Pop eta Justice taldeen eragina igar daiteke egiten duten musikan. Bada, dantzarako gogoia baino ez dute behar Inkernura doazenek.

Ikasleek  
kolorez jantzi  
zuten plaza  
martitzenean

ARGAZKIAR: MIRIAN BITERI

Aratuste-martitzenean, Luis Ezeizako eta Arizmendiko Jose Arana eta Almen gunetako umeekin bete zen plaza, goizean. Eskolan gertatutako mozorroa jantzi, eta 200 neska-mutiko inguru batu ziren; taldea banatuta, ikuskizuna eskaini zieten jaialdia ikustera joan ziren guztiei. Arratsaldean, ostera, kukumarroekin ezin hobeto ibili ziren gora eta behera haurrak, eta horren ostean, gorputza astintzeko aukera izan zuten Mikel Egiluzekin batera.

**LENIZ**  
ESKORIATZA

**SUZUKI**

## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



Iñaki Agirre | Antzuolako futbol jokalaria

# "Antzuola ohorezko mailan ikustea da taldearen ametsa"

Antzuolako futbol taldeak ia desagertzeaz egotetik sasoi betean dagoela erakutsi du

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako futbol taldeko kapitaina da Iñaki Agirre; jokalariek hala erabaki eta bozkatu zutelako. Futbol zelai berrian egin dugu hitzordua Agirrerekin. Taldearen bolada bikaina ikusita, pozik eta irribarrea aurpegian duela azaldu da 26 urteko antzuolarra.

**Gauzak ondo egiten ari zarete.**

Hamar partidu falta dira, eta bakarria galdu dugu. Ea orain arteko zorte onari eustea lortzen dugun. Bigarren gaude sailkapen nagusian eta ohorezko mailara igotzeko ilusio eta gogo handia daukagu; baina ondo egin behar ditugu gauzak.

**Ametsa, egon badago.**

Jende gazte askok osatzen du taldea; gehienak antzuolarrak. Egia esan, taldearen bueltan jende asko mugitzen da; Bergarara joaten garenean, esaterako, harritura geratzen dira antzuolarren animo eta mugimendurekin. Aste honetan derbia dugu Aretxabaletaren kontra, giro polita izango dugu!

**Gustura etortzen dira Eztalara.**

Zelai berria dugu, duela hiru uda egindakoa. Inguruko zelai politena da, daukan parajearekin! Gainera, horrelako belar zaindu eta hain erabilera txikia duen zelairik ez dago. Gustura etortzen dira hona jokatzera!



Iñaki Agirre, Eztalan. | M.A.

**"Herriko futbol taldearen bueltan jende asko mugitzen da"**

**Bigarren buelta hasi duzue.**

Lagun Onak eta Ordizia taldeek beldurra ematen digute. Getariarrek ere gogor dabilta; ea zortea dugun eta lehenengo jartzen garen. Espero genuena baino gorago ibili gara. Eguneroko lana egin behar dugu orain. Antzuolak inoiz ez du talderik izan ohorezko mailan, historian lehen aldia izango litzateke. Herriagatik polita izango litzateke ohorezko mailan egotea!

**Noiztik duzu futbolarekiko zaletasuna?**

Txikitatik ibili naiz futbolean. 12 urte nituela, Zumarragako taldean jokatzeko nuen; izan ere, Antzuolan ez zegoen talderik. 18rekin erregional mailan herrikoekin jokatzera pasa nintzen.

**Kapitain aukeratu zaituzte.**

Bozketa egin genuen orain dela bi urte, eta halaxe tokatu zitzaidan. Lehen, jokalaria zaharrena aukeratzeko zena.

**Taldea ez desagertzeko lan handia egindakoa zara.**

Taldea desagertzeaz zegoen, eta zuzendaritza berria sartu zen; lan handia egin genuen. Zortea izan genuen, herriko jendeak ez zuelako futbol barik geratu nahi.

**Harrera ona izan du odol-emaleen urteroko diru batzeak**

Odol Emaleen Elkartek eskerri eman nahi dizkie herriarrei. Izan ere, domekan egindako urteroko diru batzean jendearen erantzuna bikaina izan dela azpimarratu dute. Astelehenean bertan 65 lagunek eman zutela odola nabarmendu gura izan dute elkarteko kideek. Hirugarren deialdia martxoaren 17an izango da.

**Martxoko topaketetan parte-hartzeko deitu du Gazte Asanbladak**

Martxoaren 2rako eta 3rako topaketak antolatuta dituzte. Hala, herri eta belaunaldi ezberdinetako gaztetxeko kideekin bilduko dira martxoaren 2an, 22:00etan. Zapatuan, aldiz, goizeko hamarretan, gaztetxearen kudeaketa oinarri izango duen topaketara joateko deia egin diete antzuolar guztiei Gazte Asanbladako kideek.

## NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI



Dendia bakarrik ez

**M**aiatzian urte bat izengo da *Xinkona* dendia zabaltu neba. Txikitatik daukaten afiziño eta trebetasuna da eskulanak eittia, beti jardun dot eitten eta hau jendiakin konpartidu ahal izetia nere betiko ilusiñua realitate bihurtzia izen da. Neuk eindakua erakustiaz gain, jendiai norberak eindakua gustatzia benetan da betegarria. Eskulanez gain, beti umien munduan sartuta ibili naiz eta horregaittik esan neike gaur egun nere bi pasiñuak lotzia lortu dotela: umiekin eskulanak eittia. Hasiera baten ez nekixen zela plan-teau, baina gogoa, ilusiñua eta

borondatia dagonian dana lortu leikela konfirmatu neike. Ikastarotan ixa ordubete alkarrekin pasatzia baino dexente gehixau eitten dogula pentzaten dot, sormena, konfiantzia eta bizitzako beste aspektu batzuk be trukatzeko baitittu. Horrekin, egun hain galduta zeren baluak eta ohiturak pixka bat berreskuratzea lortu dala antzeman dot; ume eta gaztetxuak berriz hasi dia etxian eskulanak eiteko ohiturak hartzen, gurasuekin eta lagunekin eskulanak konpartitzen, ideiak trukatzeko, alkarri erakusten eta laguntzen... Horixe da nik daukaten helburua, eta bagoiatz danon artian gero ta aberatsua eitten. Aprobetxau gura dot esateko bihotz bihotzez ESKERRIK ASKO nigan eukittako konfiantziagaittik!

**"Gaztetxuak eskulanak etxian eitten hasi dia"**

**Aratustefestaz disfrutatzeke adinik ez dago!**



Herriko txikitxoak eta nagusiak primeran ibili dira Aratustefestetan. Herriko eskolak barikuan egin zuen festa 45 litro txokolate eta 20 ogi torrada banatuta. Ondoren, pailazoaren emanaldiaz gozatu zuten Torresoroan. Erretiratuek, aldiz, martitzenean egin zuten jai. 80 lagun batu ziren merienda egiteko. Bestalde, mozzorro lehiaketaren aurtengo irabazlea Isabel Pantojaz mozzorrotu zen Karmen Egaña izan da.

MAIDER ARREGI

## OHARRAK

**HERRI BATZARRA**

Martxoaren 1ean, eguena, Olanen, 19:00etan, ezker abertzaleak herri batzarra egingo du. Gaia: 2012rako lan-ildoak.

**FUTBOLA**

Zapatuan, Aretxabaletan, 16:30ean, jokatu du Antzuolak.

**LARRUZKO PELOTA**

Olalde eta Landarek jokatu dute gaur, 20:00etan hasita.

**MENDI IRTEERA**

Arrolak mendi taldeak irteera egingo du domekan, 08:15ean; izena emateko, aurrez deitu telefono honetara: 635 20 58 41.

**'KONTATINAK'**

*Kontatinak* akordeoi diatonikoarekin kontaktutako ipuin saioak dira. Luis Correiaren eskutik, gaur, Torresoroan, 22:30ean hasita.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# Finalerdietara nor pasatzen den erabakitzekeo derbi ederra bihar

Arabako koadrila arteko bertso txapelketaren lehen fasea amaitzeaz dago

**JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO**  
Aramaio ordezkaritza izango du Arabako bertso txapelketako finalerdietan, bat-bateko modalitatean. Hori ziurra da, izan ere, Zuiako ligako talderik onena eta beraz finalerdietara pasako dena Aramaio bi taldeen artean erabakiko da.

Aramaio Marixeka eta Aramaio Izarrak taldeek neurtuko dituzte indarrak bihar, hilak 25, 20:30etik aurrera San Martin eskolako jantokian hasiko den bertso afarian. Atzo amaitu zen

izena emateko epea –gaur egingo dituzte afarirako erosketak– eta 80 bat lagun egongo dira afarian, bertsolariak barne.

**Giro ona eta 'pikea', bermatuta**  
Beraz, giro ederra bermatuta dago; hala azaldu digu Xabi Igoa Aramaio Marixeka taldeko kideak: "Derbi handia da, sekulako giroa egongo da. Txapelketara Aramaio bi talde aurkeztea erabaki genuenean pareko maila mantentzen saiatu ginen eta zapatuan ikusiko da asmatu

genuen edo ez". Marixeka taldeak arerio izango duen Aramaio Izarrak taldeko Manex Agirrek ere *pike* handia egongo dela uste du: "Finalerdietara nor pasako den dago jokoan, nor izango den Zuiako ligako irabazle eta, beraz, *pikea* bermatuta dago. Gainera, bi taldeak herrikoak garenez jende asko etorriko da, eta giro ederra bermatuta dago".

**Antzeko maila, faboritorik ez**  
Era berean, saio parekatua izango dela uste du Agirrek: "Taldeak

banatu genuenean bertso eskolakoei aukera ematea pentsatu genuen. Hala, bi taldeen maila oso antzekoa da, ez dago faboritorik".

## Idatzizkoan ere derbia

Idatzizko modalitatean ere Aramaio bi talde lehiatuko dira, gazte asanblada eta Ai ene izena hartu duen herritarrez osatutako taldea. Beste derbi bat, eta erabateko gertutasuna. Izan ere, gazte asanbladako zenbait kide Ai ene taldekoen seme-alabak dira eta beraz, saio horretan ere *pikea* bermatuta dago. Aramaio bi taldeen eta Izarrako beste biren artean erabakiko da zein talde pasako den finalerdietara. Horrek esan gura du idatzizko modalitatean ez dagoela ziurtatu Aramaio ordezkaritzarik. Hala ere, aramaioarrak protagonista izango direla ezin ukatu.

## Afarietatik aretoetara

Asteburuan jokatuko dira lehen faseko azken saioak. Aguraingo Sorginetxe taldeak lortu du finalerdietarako plaza baina, beste hiru geratzen dira. Finalerdiak aretoetan egingo dira.

### ESANAK

**"Derbi handia, sekulako giroa egongo da"**

XABI IGOA | ARAMAIO MARIXEKA

**"Maila oso antzekoa da, ez dago faboritorik"**

MANEX AGIRRE | ARAMAIO IZARRAK



Haur Hezkuntzako ikasleak Charlot jantzita irten ziren. Irudian, ikasleak eta irakasle bi eskolako patioan.



Bosgarren mailako ikasleak Harriketarrak izan dira aurten.



Seigarren mailakoak plazan, *Grease* ikuskizunarekin.

## Zinema gai hartuta, San Martin eskolakoek giro ederrean ospatu zituzten Aratustekak

**J.B. | ARAMAIO**  
Martitzen arratsaldean ospatu zituzten Aratustekak San Martin eskolako ikasleek. Aurten, zinema eta filmak izan dira aukeratu duten gaia, eta, urtero moduan, maila bakoitzeko ikasleak mozorro berarekin irten ziren. Hala, Charlot, Hamelingo txirulari, Heidi, Pipi Galtzaluz, Harriketar eta *Grease* ikuskizuneko kideek

hartu zuten Aramaio. Eskolako atarian elkartu, eta Herriko Plazan askotariko emanaldiak eskaini zituzten, mailaz maila. Orduan film zuzendariak nahiko lan izan zuen pelikula antolatzen. Grabazioa bukatzean –hainbat hartualdi errepikatu ondoren, hori bai–, eskolara bueltatu ziren ikasle eta irakasleak, txokolate goxoa dastatzera.



Filmaren zuzendaria, adi-adi lanean. | ARGAZKIAK: SAN MARTIN ESKOLA

## Etxaguen auzoaren eraberritze-lanak Gasteizko Opacua enpresari esleituko dizkio Udalak

Atzo ezohiko osoko bilkura egin zuen Udalak. Hartu ziren erabakien artean Etxaguen auzoko eraberritze-lanen behin-behineko esleipena izan zen garrantzitsuena, zalantza barik. Gasteizko Opacua SA enpresak egingo ditu. Aukeraketa horren aurretik, Mecuma SLU eta Antia SL enpresen eskaera atzera bota zuen Udalak, baldintza guztiak betetzen ez zituelako.

Orain, hamar eguneko epea izango du enpresa aukeratuak tramitazio guztiak egin eta lanean has dadin.

## Memoria tailerrak aurrera egingo du, azkenean, eta, orain, ordutegia zehaztu behar dute interesatuekin

Leire Espinosa Aramaioko Gizarte langileak jakinarazi duenez, aurrera egingo du, azkenean, memoria tailerrak. Izen-ematea luzatu eta Udalak ahalegin berezia egin ostean, 13 lagunek eman dute izena. Datozen egunotan bilera bat egingo dute guztiak ikastaroaren ordutegia zehazteko.

Gainera, tailerra emango duen KL kooperatibak parte-hartzaileen maila jakin gura du, euren beharretara moldatzeko. Lurgorri eguneko zentroan emango da.

## Eski irteera martxoaren 9tik 11ra, Orixolen eskutik

Izena emateko azken eguna martxoaren 4a da



Eskiaz gozatzeko aukera eskainiko du Orixol mendizale elkarteak.

**J.B. | ARAMAIO**

Orixol mendizale elkarteak eski irteera antolatu martxoaren 9tik 11ra. Iluntzean irtengo dira autobus geltokitik; ordua ez dute zehaztu. Astun, Candanchu edo Formigalera joateko aukera eskaini dute, ostalua Jacan hartuta. Elkarteko bazkideek 120 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 130 euro. Prezio horretan sartzen dira bi gau, bi gosari, zapatuko afaria, autobusa eta forfaitak. Zapatu eta domekako bazkaria norberaren kontu joango da eta eskiatzeko materiala ez da prezioan sartzen; estazioan bertan materiala alokatzeko aukera dago.

Izena emateko azken eguna martxoaren 4a da. Nola? Bada, herriko tabernetan izen-abizenak eman edo [orixolme@hotmail.com](mailto:orixolme@hotmail.com) helbide elektronikora idatzita.

## ELGETA

# Ludoteka zerbitzuari eusteko eskaera berretsi dute gurasoek

Gazteleku zerbitzua, berriz, erakargarriagoa egin behar dela uste dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hogei bat guraso elkartu ziren ludoteka eta gazteleku zerbitzuen etorkizuna aztertzeko Udalak eguaztenez egindako bileran.

Oxel Erostarbe alkateak zerbitzuaren bideragarritasuna izan zuten hizpide. Azaldu zuen zerbitzuaren finantzazio iturriak Udala, erabiltzaileen kuotak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzak direla. Jaitsiera nabarmenak izan dira, eta defizita, egun, 9.000 euro dela esan zuen.

Erostarbek zerbitzuaren inguruan Udalak dituen kezkak plazaratu zizkien gurasoei, eta bi lantaldetan banatuta kezka horiei erantzuna ematen saiatu ziren gurasoak. Beharrak zeintzuk diren, zerbitzua zenbat hilabetez eman behar den, erabiltzaileen adinak zein behar duen eta kuotek zenbatekoak behar duten galdetu zuen alkateak.

## Ludotekari eutsi

Gurasoek ludoteka zerbitzuaren premia argia ikusten dute, eta zerbitzuari eusteko eskaera aho batez berretsi zuten. Zerbitzua urte osora zabaltzeko eskatu zuten, baita nahiz eta hezitzaile gehia-



Bi guraso taldeetako bat eguaztenezko batzarrean. | L.Z.

go eskatu zerbitzua hiru eta lau urteko haurrei ere emateko. Zerbitzuaren erabilera ezberdinak egiten direla ere onartu zuten. "Ez da gauza berdina ikasturte guztian zehar haurra eskolatik jasotzeko, merienda emateko eta arratsaldean ludotekan edukitzeko eskatzea, edo tarteka aisialdi zerbitzua erabiltzea". Hala, egoera horiek kuotetan isla izatea ontzat jo zuten. Dena den, argi utzi zuten kuotak ezin direla inondik inora gaur egungoak baino handiagoak izan.

## Gaztelekua berriz aztertu

Gaztelekuak, aldiz, azterketa sakona eskatzen duela esan zuten gurasoek. "Erakargarriagoa egin behar dugu; ezin du zaintza zerbitzuaren jarraipena izan", esan zuten. Bestelako dinamikak eskatu zituzten, eta herriko beste baliabideak gaztetxoek esku uzteko; kiroldegia edo ordenagailu gela, esaterako. Gaineratu zuten gazteleku zerbitzua urritik aurrera emanda nahikoa izan daitekeela. Beste batzar bat egingo dute 15 egun barru.

## Total fit jarduera berria eskainiko dute kiroldegian

L.Z. | ELGETA

Bigarren spinning taldea bertan behera geratu da, eta Udalak total fit jarduera proposatzen du. 15 bat minutuko hiru atal izango dituzte saioek: lan aerobikoa—spinninga, zirkuitua, stepa...—, tonifikazioa—beheko eta goiko gorputz atalak—, eta luzatzeak. Interesatuak jarduera ezagutzeko aukera izan dezaten, parte-hartzea doan izango da hiru astez. Total fit martitzenetan eta eguaztenez egingo dute, 20:15ean. Hileko kuota 25 euro da.

## Markos Untzeta eta formatu berriko 'Herrixa dantzan' Espaloian

L.Z. | ELGETA

Markos Untzeta eibartarra Elgetako kafe antzokian izango da gaur, barikua, 22:30ean. Bere hirugarren lana den *Mississippi* izeneko diskoa zuzenean aurkeztera dator. Hala, folk, blues eta country-rock estiloak izango dira nagusi. Giro intimistako emanaldia iragarri du musikariak; izan ere, Untzetaren gitarra akustikoak kontrabaxua eta bateria izango ditu lagun Espaloian. *Mississippi* diskoko kantuek gain, hiru musikariek eibartarraren aurreko lanetako kantuek ere abestuko dituzte. Sarrera bost euro da; bazkideendako, hiru euro.

## 'Herrixa dantzan', 18:00etan

Hileko azken domeka izanik, dantzazaleek hitzordua dute Espaloian *Herrixa dantzan* saio irekiarekin. Ordu bete lehenago, 18:00etan, hasiko da *Herrixa dantzan*; izan ere, berrikuntza batekin dator. "18:00etatik 19:00etara haur eta gurasoendako saio berezia egingo dugu", adierazi du Patxi Monterok. Hala, ordu bete horretan 5-10 urte bitarteko haurrei bereziki zuzendutako saioa egingo du Monterok, "haurrendako dantza aiposekin". Eki-menak harrera ona izan du Bergaran, eta Elgetan ere maiatzera arte egingo dute.

## LEINTZ GATZAGA

## Eugenio Otsoa dagoeneko alkatea da ardura guztiak bere gain hartuta

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Mikel Gonzalez zinegotziak, lehenengo alkateordeak hain zuzen, izan du Gatzagako alkate ardura oraintsu arte. Baina dagoeneko Eugenio Otsoak hartu ditu ardurak horiek eta alkatea ere bada, otsailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarritako moduan.

Mexikon egon da lanean Otsoa azken urteotan. Alkate kargua hartzeko etorri zen ekainean, baina gero hara itzuli zen berriro, eta Gonzalezek hartu zituen orduan alkatearen eginbeharrak.

Gabon inguruan itzuli zen Otsoa Gatzagara, eta orain, dagoen ardurak hartu ditu bere

gain. Debagoineko Mankomunitatean ere hura izango da Gatzagako ordezkaria.

## Martitzenetan, udaletxean

Otsoaren asmoa da martitzen goizetan udaletxean egotea, lanak aurreratzeko; baina ez da liberatuko. Herrian orain arte egindako berri jasotzen dabil udalbatzako kideengandik azken asteotan, aurrera begirako lanak zehazteko. Agintaldiko lehenengo osoko bilkura gidatu du, gainera, astean.

## FRONTENIS TXAPELKETA

### AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Iban Retolaza-Xabier Ubera	25-13
Jon Irazabal-Asier Untzetabarrenetxea / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	25-22
Idoia Serna-Asier Osoro / Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo	25-20
Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga / June Dosuna-Xanti Dosuna	25-24
Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Iban Retolaza-Xabier Ubera	atzeratua
Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Eneko Maguregi-Andoni Elortza	atzeratua
Mikel Zubiaurre-Danel Cusi / Adrian Gorostiza-Asier Osoro	atzeratua

### PARTIDUAK ZAPATUAN, HILAK 25, 16:30EAN

Mikel Zubiaurre-Danel Cusi / Adrian Gorostiza-Asier Osoro	
Eneko Maguregi-Andoni Elortza / Jon Irazabal-Asier Untzetabarrenetxea	

### PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 26, 10:30EAN

Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga / Idoia Serna-Asier Osoro	
Idoia Elkoro - Enrike Elkoro / Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo	

## Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea eta ezker abertzalearen herri batzarra gaur iluntzean

Udaletxean egingo dute herri batzarra, 20:30ean. Lau puntu aztertuko dituzte: gatazka konponbidearen ildo, aliantza politika, Euskal Herria ezkerretik—garapen sozioekonomikoa eta hondakinen kudeaketa— eta herriko egituraketa eta plangintza. Bestalde, gaur otsaileko azken barikua izanik, presoen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea dago deituta, 20:00etarako.

## Gaztetxoendako saskibalo saio irekia eta Kantsatzeke taldearen mendi irteera aste bukaeran

Udalak Bergarako saskibalo taldearekin elkarlanean antolatuta, gaztetxoendako saskibalo saioa egingo dute gaur, barikua, 18:30etik 19:30era kiroldegiko gimnasioan. Parte-hartzea librea da. Kantsatzeke mendi taldeak, berriz, irteera egingo du bihar, zapatua, Anboto aldera. Lau bat orduko irteera da, eta 08:00etan abiatuko dira Ozkarbi aurretik.

## Domekan bisita gidatua Intxortako lubakietara eta martitzenean baserriko plastikoa biltzeko deia

Etzi, domeka, 10:00etan abiatuko da Espaloitik Intxortako ibilbide tematikoa ezagutzeko bisita gidatua. Izena emateko deitu 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakira. Bestalde, baserri inguruan sortutako plastikoa jasoko dute martitzenean, hilak 28. Plastikoa arratsaldean utzi behar da ohiko lekuetan. Argibide gehiago behar izanez gero, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira.

## Bular minbiziari buruzko hitzaldia eguaztenez, hilak 29, Kattalin elkarteko kideen eskutik

Hitzaldi irekia da, baina, arrisku faktorea handiagoa izanik, Udalak dei berezia egiten die 50-69 urte bitarteko Elgetako emakumei. Diagnostiko goiztiarraren inguruan ariko dira Kattalin elkarteko kideak, eta nork bere burua nola miatu ere azalduko dute. Hitzaldia 18:00etan hasiko da, kafe antzokian.

## Domekan jokatuko dituzte pilota txapelketako lehenengo partiduak

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Mauri Zubillagak antolatutako pilota txapelketak izugarriko arrakasta izan du, eta sekula baino bikote gehiago ibiliko da norgehiagokan. Federatuen artean, Debagoieneko herrietakoekin batera Otxandio, Legutio, Gasteiz eta Elorriotik etorritako pilotariak elkartuko dira. Adinaren arabera 11 mailatan bana-

tuta daude eta maila bakoitzean bi bikotek jardungo dute. Domeka goizean jokatuko dituzte lehenengo partiduak.

Bestalde, beteranoen izenemate epea ere bukatu da, eta 19 bikotek hartuko dute parte txapelketan. Horiendako Gatzagako pilotalekuan ez daukate lekurik, eta inguruko herrietara joango direla iragarri du Zubillagak.

**TXIRRINDULARITZA**

# Bederatzi ziklista eta zazpi lasterketa afizionatu mailan

Domekan hasiko dute afizionatuek denboraldia, Soraluzen

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Afizionatuen mailan, Andaluzia osoan ez dute Debagoienean izango diren lasterketa kopurua baino askoz gehiago. Hemengo klubek egiten duten lanagatik, zale kopuruarengatik... arrazoi askorengatik dago osasuntsu txirrindularitza gurean (edo beste leku batzuetan baino osasuntsuago). Azken urteotan, baina, lasterketak bai, baina ez ditugu bertako nahi beste ziklista izan. Iaz Jon Rivero bergararra izan zen talde batean lehiatu zen ordezkari bakarra (Debabarrenan) –independente moduan izan zen beste txirrindulariren bat edo beste–, eta 2010ean afizionatuetan jardundako Iban Caballerok, Xabier Arantzetak eta Asier Penabadek txirrindularitza utzi zuten.

Aurten, irauli egin da egoera, domekan Debagoieneko bederatzi txirrindularik hasiko dute eta Soraluzen (09:40) denboraldia.



Iaz, Antzuola sarian, bigarren postuagatik esprintean. | J. ARANTZABAL

Lasterketa ibarreko mugetatik kanpo hasi eta amaituko badute ere, adi, txirrindulariek gureko errepideetatik egingo dituzte eta lasterketak izango dituen 118 kilometroetako asko; mendate bakarra ere gurean igoko dute, Asentzio.

erreferente. Nobedade handia Kanpantzar Harrobiak Baiñu-Etxe taldearen sorrera izan da, eta talde horretan bost dira ibarrekoak. Etzi batuko dira denak, Soraluzen, irteera puntuan.

## DEBAGOIENENKO ZIKLISTAK

### KANPANZAR HAR.

- ▶ Alex Aranburu. 19 urte
- ▶ Rafa Cordero. 19 urte
- ▶ Iker Eskibel. 19 urte
- ▶ Aitor Umerez. 19 urte
- ▶ Kepa Otxoa. 25 urte

### DEBABARRENA

- ▶ Jon Rivero. 20 urte
- ▶ Eneko Lizarralde. 19 urte
- ▶ Odei Orobengoa. 19 urte
- ▶ Mikel Aristi. 19 urte

### Bi taldetan banatuta

Debagoieneko bederatzi txirrindulariak bi taldetan banatuta egongo dira. Bergara aldekoek (Rivero, Aristi, Lizarralde eta Orobengoa) Debabarrenan lider jarraituko duten Aitor Gonzalez eta Sergio Ruiz izango dituzte

**DATUA**

# 61

LASTERKETA

Euskal Herrian, guztira, 61 lasterketa egongo dira, klasikoak kontuan hartuta.

## LASTERKETAK

### EUSKALDUN T.

- Dorletako Ama Saria** Uztailak 1
- Leintz Bailarako Itzulia** Abuztuak 16

### LEHENDAKARI

- Soraluze Saria** Otsailak 26
- Gorlako Igoera** Martxoak 25
- Pentekoste Saria** Maiatzak 27
- Antzuola Saria** Uztailak 8
- Bergarako Martin Deuna** Irailak 16
- Oñati Saria** Irailak 22

## ASTE BURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

**LEHENENGO MAILA**  
Reala-Mallorca  
Domeka. 18:00. Anoeta.

**EMAKUM. BIG. MAILA**  
Mondra-Abanto  
Domeka. 12:15. Mojategi.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**  
Aretxabaleta-Lauro  
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Bergara-Hondarribia  
Zapatua. 16:30. Agorrosin.  
Oñati-Mondra  
Zapatua. 16:15. Karla Lekuona.  
Roteta-Aretxabaleta  
Zapatua. 17:30. Herrera.  
Aloña Mendi-Berio  
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
Aretxabaleta B-Antzuola  
Domeka. 16:30. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**  
Mondra B-Lazkao  
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**ERREGIONALA, KOPA**  
Aretxabaleta C-Trintxerpe  
Zapatua. 18:00. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**  
Euskalduna-Aloña Mendi  
Domeka. 11:30. Ubitarte.  
Ikasberri-Bergara  
Zapatua. 15:30. Azpeitia.  
Elgoibar-Mondra  
Domeka. 16:00. Mintxeta.

**EMAKUMEZKOEN IGOERA F.**  
Arizmendi-Zarautz  
Domeka. 14:00. Almen.

**ARETO FUTBOLA**  
**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Eskoriatza-Kukuia  
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

**BIGARREN MAILA**  
Aretxabaleta-Tecnun  
Zapatua. 17:00. Almen.

**SENIOR NESKAK**  
Arizmendi-Azpeitiko  
Gaur. 20:30. Almen.

**ESKUBALDIA**  
**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Egia Kata-Soraluce BKE  
Zapatua. 18:00. Donostia.  
Ford Mugarri Arrasate-Romo  
Zapatua. 17:45. Musakola.

**EMAKUMEZKO PREFERENT.**  
Leizaran-Aloña Mendi  
Domeka. 10:15. Allurralde.

**LEHEN TERRITORIALA**  
Izarraitz Aloña-Hegialde  
Zapatua. 15:45. Zubikoa.  
Leizaran-Bergara  
Gaur. 20:30. Andoain.

**BIGARREN TERRITORIALA**  
Arrasate-Donibane B  
Zapatua. 16:00. Musakola.

**SASKIBALDIA**  
**EBA**  
Natra Oñati-Deportes Ferrer  
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
MU-Seky.es  
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**  
MU-Take  
Domeka. 18:00. Iturripe.

**SENIOR MAILA, GIZONEZ**  
Leihoak Zast-MU  
Zapatua. 18:00. Antonianos.  
Soraluce Bergara-Bosteko  
Zapatua. 16:30. Labegarieta.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**  
Tecnun-Eskoriatza  
Egubakoitza. 20:15. Manuel M.

**TXIRRINDULARITZA**  
**SORALUCE KOOP. SARIA**  
Zapatua. 16:00. Osintxun.

**TRIALSINA**  
**ARETXABALETAKO SARIA**  
Domeka. 10:30. Aretxabaleta.

**PILOTA**  
**ESKORIATZA**  
Egubakoitza. 19:00. Bi partidu.

**ANTZUOLA**  
Egubakoitza. 20:00. Bi partidu.

**ARRASATE**  
Egubakoitza. 20:30. Bi partidu.

**ARETXABALETA**  
Zapatua. 16:30. Partidu bat.



JULIO CALLEJA

**ARETXABALETAK ETA ANZUOLAK DERBIA** Erregional preferentean aurre-aurrean dabilen Antzuolak Aretxabaletako bigarren taldearen kontra jokatuko du domekan Ibarra (16:30).

**FUTBOLA**

## Bergarak Hondarribia eta Aloña Mendik Berio hartuko dute

Ligako 23. jardunaldian bi partidu jokatuko dituzte ibarrean: Bergarak jaitsiera postuetan ez murgiltzeko lehian dabilen Hondarribiaren bisita izango du Agorrosinen (zapatua, 16:30). Aloña Mendik, berriz, ligan ondoen dabilen taldeetako bat izango du etzi Azkoagainen kontrario, hirugarren postuan dago-eta Berio (16:30). Mondrak behetik gora etorri nahian hitzordu zaila izango du, bosgarren dagoen Oñatzen zelaian jokatuko du eta bihar (16:15). Aretxabaletak, azkenik, dagoeneko ia-ia kategoria galdu duen Rotetaren zelaian jokatuko du bihar (17:30).

**SASKIBALDIA**

## Deportes Ferrer taldearen kontra jokatuko du Natra Oñatik bihar Zubikoan

Azken asteotan nabarmen hobetu du Oñatiko saskibaloitza taldeak, eta Xabi Igartuaren mutilek etxeko azken garaipena berretsi nahi dute zapatuan Deportes Ferrer taldearen kontra (18:00). Etxeko partiduak irabazita oraindik posible da amesten jarraitzea, duela aste gutxi pentsaezina zena. Joaneke partiduan Oñatikoek bi puntuko aldeagatik baino ez zuten galdu (70-68) Deportes Ferrer-en kontra, eta joan den astean Torrelavegan erakutsitako joko mailari eutsiz gero posible da denboraldiko laugarren garaipena. Defentsan ondo eta erasoan eraginkorrak izan ziren; azken laurdenean beharadarik ez izatea zaindu beharko dute.

**BESTEAK**

## Undak zilarra Suedian, eta Elortza munduko sokatira txapelketan

Londresko Joko Olinpiarretara bidean Maider Unda prestakuntza ona egiten dabil. Oletarrak zilarrezko domina jantzi zuen joan den asteburuan Klippan herrian (Suedia) jokatuko zuten Lady Open izeneko nazioarteko torneoaren. Kanporaketa saioetan ondo jardun ostean, Undak gaur egungo munduko txapelkun Natalia Vorobyeva errusiarraren izenaren finalean aurrez aurre.

Bestalde, egunotan dabil tza egiten, Eskozian, goma gaineko taldeen munduko sokatira txapelketa, eta Jone Elortza oñatiarra txapelketan parte hartzen dabil.

**SASKIBALDIA**

## Bergarako bi gaztek Gipuzkoa GBC taldearekin jokatuko dute Bartzelonan

X.U. | BERGARA

Aritz Oñatzen eta Alex Patonek, Soraluce BKE saskibaloitza taldeko ordezkariak, nekez ahaztuko dute egunotan Bartzelonan bizi izandako esperientzia. Jokalari bergararrek Gipuzkoa GBC taldearekin hainbat egun igaro dituzte Bartzelonan, Errege Kopak irau duen bitartean.



Oñatzen eta Paton. | SORALUCE BKE

Izan ere, nagusien torneoarekin batera talde bakoitzeko ordezkari gaztetxoendako ere izan dira txapelketak. Hala, nagusien partiduak jarraitzeaz batera, kantxan eurak protagonista izatea sekulakoa izan da, jakinda, eurek jokatzen zuten

bitartean harmailtan ACBko izar izandako askok gertutik jarraitu zituztela euren partiduak, baita egungo teknikariak ere.



# ZORROTZENEN ATSEDENERAKO

2012ko otsailaren 16tik martxoaren 14ra arte



## KOLTZOI MISTOA MALGUKIEKIN ETA BSKOELASTIKOA

**pikolin**

- Olympia Visco modelo
- Normablock Top malgukiak, biskoelastikoagoak
- 135 x 190 zm
- Barrubiguna, apar biskoelastikoa, aireztapenerako ehunka balbula.

**299€**

## KANAPE ERAISGARRIA, EGURREZKkoa

**pikolin**

- 135 x 190 zm
- Gereziendo kolorea

**299€**

INTERESIK GABEKO FINANTZAKETA 12 HILABETERA ARTE  
Baldintzak kontsultatu.

## LASA JATETXEA

Zure ezkontza ospatzeko leku paregabea!



Bisita gaitzazu  
[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA  
Tel.: 943 25 06 77

### Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
Tel.: 943 53 32 72  
[www.errekajatetxea.eu](http://www.errekajatetxea.eu)

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



GARAIA  
JATETXEA

## Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE  
Tel.: 943 71 02 28 / 647 83 23 86  
[ostalaritza@grupogureak.com](mailto:ostalaritza@grupogureak.com)

### Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO  
Tel.: 945 44 53 85 / 685 72 15 93  
[iturrietasagardotegia.blogspot.com](http://iturrietasagardotegia.blogspot.com)

### Eskaintza

- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35 / BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55  
[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)

### Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria  
Mas Gastronomía 2009.



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE  
Tel.: 943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

# KULTURA



Sharon Stoner taldeko kideak, ezkerretik eskuinera: Iñigo Ibarrodo, Egoitz Olalde eta Mikel Zarketa. | SHARON STONER

## Stoner doinuen itzulera

- ▶ Oñatiko taldeak hirugarren lana aurkeztuko du gaur gaztelekuan
- ▶ 2005ean Danbaka musika lehiaketa irabazi zuen Sharon Stonerrek

### ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Labetik atera berria dute oñatiarrek hirugarren lan luzea: *Puntu bakar baten elkartzen diren ertzak*. Oñatiko Xagu tabernan egingo dute aurkezpena gaur, 19:00etan, eta ondoren lancha izango dute; gauean, ostera, abesti berriak zuzenean entzuteko aukera egongo da: kontzertua gaztelekuan egingo dute, Trumbo taldearekin batera.

### 2011n grabatutako lana

Iaz maiatzean hasi ziren diskoa grabatzen. Bi zatitan grabatu dute: alde batetik, bateriaren zatia grabatu zuten 2011ko maiatzean, Iruñeko Estudio 21en; gainerakoa uztailean grabatu zuten, Oñatiko musika eskolan. "Musika eskolan lokal bat utzi ziguten eta produktore lanak egiten Iban Yañiz ibili da. Yañizek badu esperientzia horrelako gaietan", azaldu du Egoitz Olalde bateria joleak. Irailetik azarora bitartean nahasketa lanak egin dituzte Yañizen etxean. Taldekideak gustura geratu dira emaitzarekin: "Etxean egindako diskoa dela esan daiteke. Soinu aldetik gustura geratu gara. Bagenekien arriskutsua zela profesionala ez den batekin lan egitea, haren alde apustua egitea. Alde horretatik beldurra genuen, baina oso pozik geratu gara soinuarekin", dio Olalde.

"Nik esango nuke disko berria aurrekoaren jarraipena dela. Soinu gogorrek egin izan ditugu aurrekoetan, baina, ahots melodikoarekin lagunduta, koru asko sartu izan ditugu abestietan. Agian, disko berria aurrekoak baino zerbait geldiagoa da", argitu du Olalde. Bederatzi abestiz osatutako lana da: abestien musika eta letrak euren sortu dituzte

eta abesti guztiak euskaraz dira. "Ez dugu gai konkretu baten inguruan berba egiten, dena ukitzen dugu. Batez ere esperientzia pertsonalak kontatzen ditugu. Letretan ez ditugu aldarrikapenak egiten, gure letrak esperientzian oinarritzen dira: bizitza, maitasuna... Adibidez, badugu abesti bat alzheimerri buruzkoa dena. Ez da *alzheimer* hitza erabiltzen,

baina hori adierazi gura dugu", azaldu du abestien gaien gainean galdetuta.

### 10 urteko ibilbidea

2001ean sortu zuten Sharon Stoner taldea. Hala, iaz 10 urte bete zituzten Iñigo Ibarrodo, Mikel Zarketa eta Egoitz Olalde talde moduan. Orduan ez zuten ospakizun ofizialik egin; izan ere, hirugarren lan luzearekin buru-belarri lanean zebiltzan.

Urte hauetan guztietan hainbat mugarri izan ditu taldeak. Nabarmenenak hiru izan dira: 2005eko urtarrilean Danbaka musika lehiaketaren lehenengo edizioa irabazi zuten. "Bost abestiz osatutako maketarekin aurkeztu ginen eta sariak aukera eman zigun lehenengo diskoa grabatzeko: *3 mila bira*", dio Olalde. 2006ko ekainean, berriz, Bilbao Hiria Pop Rock lehiaketan Azkena Rock Festival saria jaso zuen talde oñatiarra, Euskal Herriko rock talde onenari ematen dioten saria. Abuztu bukaeran Gasteizen egindako Gasteiz rock jaialdian parte hartzeko aukera izan zuten; besteak beste, Pearl Jam talde ezaunarekin batera jo zuten.

Azkenik, Bilbon euren talde kutunetarik baten abeslariarekin jotzeko aukera izan zuten: Kyuss taldeko John Garciaeren talde berriarekin, Hermano taldearekin.




Trumbo taldeko kideak. | BLOGSPOT

### Trumbo taldeak girotuko du gaua


Kontzertua 22:30ean izango da. Gaztelekuko taula gainera Trumbo taldea igoko da lehenengo. Neubat taldeko Kanda eta Kashbad taldeko Gorka Lazkano baxu jolea dira taldeko kide bi; hirugarrena Eneko da, bateria jolea. Abesti gogorrek eta gordinak eskaintzen dituzte. Gasteizen sortutako taldea da eta izena Dalton Trumbo zinema zuzendari eta idazlearen omenez ipinitakoa da. Esperientzia handiko musikariak dira.



Sharon Stoner.



3 mila bira.



13 taupada



Diskoek karatulak. | GOIENA

### Hiru disko dituzte kalean

2003an Eibarren grabatu zuten bigarren maketa –aurrez lokalean grabatutako bat zeukaten–. Bost abestiz osatutako maketa zen. 2006an *3 mila bira* diskoa argitaratu zuten, 11 abestiz osatutako lana. Hiru taldekideek egin zituzten musika eta letrak, *3000 bira* abestiko letra izan ezik; hori Kepa Aranburuk egin zuen. 2008an *13 taupada* argitaratu zuten, 13 abestiz osatutako lana. Tolosako Bonberenean grabatu zuten.

### ESANAK

"Nahiko gustura geratu gara lanarekin; soinu ona duela uste dugu"

"Esperientzietan oinarritzen gara: bizitza, maitasuna... kontatzen dugu"

EGOITZ OLALDE | TALDEKO KIDEA

Iban Gonzalez | Unesco etxearen ikus-entzunezko lehiaketaren irabazlea

# "Justiziarik eza eta desoreka irudikatu gura izan dut"

'Eman minutu bat bakearen alde' lehiaketa irabazi du 'Nos-otr@s' lanarekin

**ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE**  
Aretxabaletarra jaiotzez, Arrasaten bizi da Iban Gonzalez. Baleuko ekoizpen etxean egiten du lan, errealizadore. *Nos-otr@s* film laburrean Unai semearekin egin du lan.

**Unesco etxeak antolatutako *Eman minutu bat bakearen alde* lehiaketaren sari nagusia jaso duzu. Nola-ko film laburra da?**

Minutu bat da eta minutu batean zaila da gauza asko kontatzea. Bake positiboaren inguruan izan zen lehiaketa. Bakea indarkeria gabezia bat da, baina bake positiboa da bakea oinarri hartuta aurrera begira egin behar diren gauzak. Bakearen eta giza eskubideen inguruan hitz egiten du filmak, baina nork bere girora eraman dezake.

**Epele ondoan, Etxezarretan grabatuta dago. Irudi nahiko poetikoak erabili dituzu.**

Bai; saiatu naiz leku zahar baten egiten, janda dagoen lekuren baten. Irudikatu nahi dudana egoera izan da: justiziarik eza eta desoreka

giroa. Han gure seme Unai kokatu dut, niretako munduko ederrrena dena. Kontraste hori irudikatu dut: Unai gu guztiak irudikatzen ditu, giza eskubideak denonak dira eta berdinak izan beharko lukete denondako, baina ez dira errespetatzen.

**Idea argi izan arren, ez da samurra izango minutu batean dena kontatzea. Nola-ko lana izan da?**

Nahiko lanpetuta bizi naiz; hortaz, lanetik etxerako tartea aprobetxatzen dut idazteko. Zaila izan zen hainbeste ideia minutu bakarrean sartzea. Badaude umeen kontuak, baita emakumeen aurkako erasoaren kontuak, baita giza eskubideek denondako izan behar duten hori... batez ere, mezuak izan behar du bakea ez

**"Zaila izan da hainbeste ideia minutu bakarrean adieraztea"**

dela indarkeria gabezia bakarrik. Bakea arnasa hartzea bezala da; ez baduzu bakerik, ezin duzu beste ezer egin. Euskal Herrian antzerako prozesu batean gaude orain. Beste herrialde batzuetan, Ipar Irlandan esaterako, bake prozesuak izan direnean, indarkeria geratu denean pausoak eman dira aurrera egiteko. Gure herrira ekarrita, ikusten dugu ez dela ezer mugitzen. Bultzada hori, bake positibo hori islatu gura izan dut.

**Zure semearekin, Unairekin egin duzu lan. Zelakoa izan da hori?**

Umekin lan egindakoa naiz, eta ikeragarri gustatzen zait. Pertsona gordinak dira, izan behar duten modukoak. Unai, esaterako, jaiotzetik kamera bat izan du aurrean eta oso ohituta dago. Artista hutsa da! Zatika joan ginen grabatzen. Unai ulertu egin behar zuen zati bakoitzak zer esan gura zuen. Esan daiteke samur egin dugula lan; gainera, benetako irudiak dira. Jolasean dagoenean benetan dago jolasean, eta nega-



Iban, Unai eta Iraitz seme-alabekin. | MONIKA BELASTEGI

rrez dagoenean benetan dago negarrez.

**Otsailaren 3an banatu zituzten sariak. Espero zenuen?**

Ez. Banekien finalisten artean nengoela, baina besterik ez. Bideo finalistak han eskaini zituzten eta batzuk oso landuta zeudela iruditu zitzaidan. Gainerakoetan, oster, iruditu zitzaidan bake positiboaren kontzeptua ez zutela ondo jorratu. Askotan, tendentzia izaten da denuntzia bat egitea:

egora txarrak erakustea. Nik uste dut ideia ez zela hori.

**Saria Kongora bidaia da, dokumental bat grabatzeko.**

Kongora joango gara, ekialdera, Kibura. Gerrak bizi izan zituztenean asko entzuten genuen hango egoerari buruz, baina orain ez da ezer entzuten. Oso egoera kritikoa bizi dira, baina iparraldeari ez zaio komeni zer gertatzen den jakitea. Uztailean joango naiz, Unai Aranzadirekin.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**  
BERGARA / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
[blasaga@conet.es](mailto:blasaga@conet.es)

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA /  
NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**  
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
[zenbaki@zenbaki.es](mailto:zenbaki@zenbaki.es)

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**  
BERGARA / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

**ASEGI AHOLKULARIAK**  
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
[asegi@asegim.com](mailto:asegi@asegim.com)

**TBG AHOLKULARITZA**  
BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**  
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
[zenbaki@zenbaki.es](mailto:zenbaki@zenbaki.es)

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**  
BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**  
ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
[uribesalgo@telefonica.net](mailto:uribesalgo@telefonica.net)

### PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**  
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



# Jolas birtualen mugak zeintzuk diren azalduko duen antzezlana

'Ilargiaren bi aldeak' lanaren protagonistak Miren Gaztañaga eta Maider labar dira eta testua Agurtzane Intxaurre eta Arantxa Iturbek idatzi dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Hika antzerki taldeak *Ilargiaren bi aldeak* antzezlana eskainiko du bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan. Ilargiaren alde banatan bizitzak duen taupada ezberdinak azalduko ditu antzezlana: zirkua, dantza eta antzerkia batu ditu ikuskizunak.

## Lagun birtualekin jolas egitea

Gerratarra jolas eginez dibertitzen den gazte bat dago ilargiaren alde batean, eta beste aldean, aldiz, gazte batek jolas egin behar du gerra ahazteko. Antzezlana zuzendari Agurtzane Intxaurre azaldu du: "Batek behar du beste gazteak berarekin jolas egitea. Txikitik amonak kontatu zion lagunak direla altxor preziatuena eta zaindu egin behar direla", dio. Gazte honek ikusten du kosta egiten zaiola lagunak egitea, ilargiaren beste aldean dagoen lagun horrek nahikoa duelako lagun birtualekin. Gainera, mundu birtualean zenbat eta etsai gehiago egin, orduan eta dibertigarriagoa da jokoa. "Marrarekin jolasten gara: marrak lotu egiten du, askatu..."



Antzezlanean bi lagunek parte hartzen dute. | HIKA ANTZERKI TALDEA

agertokian marra bat jarri dugu eta bi gazteak alde banatan daude, eta ezin dute bata bestearengana iritsi", dio Intxaurre.

## Etxeke arazoak

Agurtzane Intxaurre eta Arantxa Iturbek idatzi dute testua eta antzezlana Miren Gaztañaga eta Maider labar dira. Intxaurre azaldu du hiru ume dituela eta etxean sortutako arazoetatik sor-

tu zitzaiola jolas birtualen gaia lantzea.

Miren Gaztañagaren pertsonaiak garai bateko jolasak maite ditu: "Guduak beldurra ematen dio, bizi izan zuelako: harendako errealitatea da, eta ez jolasa".

Antzezlana testua *off*-ean doa eta lanaren oinarria mugimendua da. Aktoreek azaldu dute ez dutela patroirik, eta askatasuna dutela sortzeko. Horrek hegalak ematen die.

# Gorputza mugitzeko, bertsio ezagunen laguntza

Irratigintzari buruzko jardunaldiari amaiera emateko izango da kontzertua, 22:00etan

A.E. | BERGARA

Donostiako La pop'lla eta Alegiako Manillares Iturriaga taldeek kontzertua eskainiko dute zapatuan gaztetxean. 22:00etan izango da, doan. Egun osoan egingo duten irratigintza jardunaldiari amaiera emateko egingo dute kontzertua.

## Bertako kanpoko abestiak

La pop'llak eta Manillares Iturriaga taldeek bertsioak egiten dituzte. Manillares Iturriaga duela 25 urte sortutako Ciclos Garaialde taldearen jarraipena dela esan daiteke. Alegiakoak dira, eta gaztetxearen inguruan

dabiltza. Musika ulertu, bizi eta jotzeko modu bat dute. Herri kantugintza modernoan oinarritzen dira, 80ko hamarkadatik gaur egunera arteko taldeetan: Bap!, Rip, Kortatu, Delirium Tremens, La Polla, Berri txarrak, Zea Mays eta Garirenak, besteak beste.

La pop'lla, berriz, Donostiako alde zaharreko hainbat lagunek osatzen dute. Punka oinarri hartuta bertsioak egiten dituzte.

Irratigintzari buruzko jardunaldia 10:00etan hasiko dute; 14:00etan bazkaria egingo dute eta kontzertuak, gauean.

## Virginia Imazek ipuinak nola kontatu erakutsiko du domekan Antzuolako Laskurainhaundi baserrian

Oihulari Clown taldeak antolatuta, ipuin tailerra egingo dute Antzuolako Laskurainhaundi baserrian domekan, 10:30etik 21:00ak arte. Ipuin kontaketa buruzko formazioa erakutsiko dute, eta baita errepertorioa prestatzeko aukerak eskaini ere. Ikastaroa Virginia Imazek emango du. Tailerra gaztelaniaz da, baina ipuinak euskaraz eta frantsesez ere prestatu eta kontatuko dituzte. Interesatuak 943 76 97 90 edo 607 20 45 03 telefonora deitu edo [oihulariklown@oihulariklown.org](mailto:oihulariklown@oihulariklown.org) helbidera idatz dezakete.

## ETXEAN KONPOSTA EGIN NAHI AL DUZU?

Konpostatu itzazu etxeke hondakin organikoak lorategian, ortuan edo zelaian!

Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen etxeke hondakinen bilketa zerbitzuetik, batu eta tratatu beharreko hondakinen murrizketa lortze aldera, hondakin organikoen autokonpostatzea bultzatu nahi da.

### Autokonposta egiten duenarentzako abantailak:

- Bonifikazioa zaborren tasetan.
- Ikastaro bat konposta zer den azaltzeko.
- Konpostagailua eta hondakinok batzeko eta garraiatzeko edukiontzia doan.

**Murritzazu dezagun hondakin kopurua!**  
**Murritzazu dezagun hondakinen bilketa-kostuak!**  
**Murritzazu dezagun ingurumenari sortzen diogun kaltea!**

### Izenematea:

- Mankomunitateko telefonoa: 943 79 33 99 (09:00etatik 12:30era).
- <http://www.debagoiena.com/Ingurumena/Autokonposta>
- [autokonposta@debagoiena.net](mailto:autokonposta@debagoiena.net).

ANTOLATZAILEA



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

HONDAKINEKIN

selektiboak gara.



Zuriñe Madinabeitia | Zinema jaialdietan laguntzailea

# "Hainbat zinema jaialditan ibili naiz boluntario; orain, Mecal nazioarteko jaialdian nabil lanean"

IRATI GOITIA | OÑATI

Ikus-entzunezko eta Argazkilaritzako ikasketak eginikoa da Zuriñe Madinabeitia (Oñati, 1986). Horren ostean, Kultura Ekoizpena eta Komunikazioa graduondokoa egin zuen Bartzelonan. Irudia eta komunikazioa gustuko ditu.

**Zer du, ba, erakargarria irudiaren munduak?**

Irudiak berak erakartzen nau. Txikitatik gustatu izan zait marrazketaren mundua, baita eskulanak egitea ere. Gainera, komunikatzeko bidea ere bada; errazagoa iruditzen zait argazki bidez adieraztea hitzez baino.

**Eta irudiez zer duzu, ba, gustuko transmitzea?**

Ni neuk argazki kamera hartzean naturako elementuak islatzen ditut. Izan ere, natura nire izarearen parte handi bat da.

**Argazkilaritza ikasi zenuen; horretan ikusten duzu zure burua?**

Argazkilaritza mundua asko gustatzen zait. Dena den, zaila iruditzen zait hortik bizi izatea, eta une honetan ez dut nire burua argazkilari moduan ikusten. Hala ere, gogoko dut argazkilari baten lanak atzetik izan dezakeen zeregina; esaterako, erakusketak antolatzea.

**Orain, zehazki, produkzio lanetan zabilta, ezta?**

Bai. Beti gustatu izan zait zinema mundua, eta, hain zuzen, horregatik ikasi nuen Ikus-entzunezko Komunikazioa. Alabaina, denborarekin ohartu naiz alderdi teknikoa baino, gogokoago dudala kudeaketa arloa eta hortik biderratu nahi dudala etorkizuna. Grabazioak egitea eta editatzea oso dibertigarria iruditzen zait, baina kudeaketan sentitzen naiz gusturen. Hala, egun, Mecal nazioarteko zinema jaialdian laguntzen nabil: hornitzaileekin harremanetan jartzen naiz, produkzio planak zehazten ditut, datu baseak eguneratu... Egia esan, oso gustura nabil, eta asko ikasten.

**Beste jaialdi batzuetan ere ibilia zara.**

Hiri handi batean beti daude aukera gehiago kultura arloan, eta, hori horrela, bi zinema jaialditan lagundu dut boluntario gisa: batetik, Sitgesko beldurrezko eta fantasiako nazioarteko jaialdian; eta bestetik, DocsBarcelona dokumentalen nazioarteko jaialdian. Horietan egin duda-

na izan da: jendeari harrera egin, akreditazioak banatu eta jendea zegokion aulkira eramanez. Lan horrek, era berean, zinemako sare pertsonal bat eraikitzea ere ahalbideratu dit; izan ere, jende asko ezagutu dut eta ideiak konpartitzeko ere balio izan dit.

**Bartzelonan bizi zara. Gustura Katalunian?**

Esan beharrea nago kostatu egin zitzaidala Bartzelonako errutinara ohitzea: egunero metroa hartu beharra, distantzia-denbora erlazioa, hizkuntza ezezaguna, espazio natural gutxi aukeran... Hala ere, banoa ohitzen eta duen *enkanua* ezagutzen.

**Erabat integratuta zaudela esango nuke, castellers talde batean ere bazabiltza-eta.**

Kanpoan egon arren, garrantzitsua da nork bere lekua aurkitzea. Hala, euskal erroak mantentzeko Euskal Etxeko dantza taldean nabil. Kataluniako kulturari dagokionez, berriz, Santseko castellersen *collako* partaide naiz. Gazteluak sortzeko orduan, ezagunak fisikoak izaten dira kontuan. Nire kasuan, garaiera dela-eta, oinarrian izaten naiz, laguntza modura. Hala ere, nesken erakustaldi batean egin nituen oinarri lanak; hala, nire sorbalda gainera igo ziren.

**Erakustaldi gehiagotan hartu duzu parte?**

Castellers erakustaldiek denboraldia izaten dute; martxo inguruan hasi eta azarora bitartean izaten da. Denboraldi garaian, ia domekero hartu dut parte erakustaldi baten.

**Bartzelonara eginda egon arren, etxera gustura itzuliko zara, ezta?**

Bai; indarrak hartzeko bada ere, gustura itzultzen naiz. Bartzelona bezalako hiri handi batek eragiten duen estresetik alde egin eta, hain zuzen ere, lasaitasunean naturaz gozatzeko aukera ematen dit Oñatik.

## MARRA AZKARREZ

**Txoko maiteena:** Goikogañetako etxola.

**Film bat:** *Los chicos del coro*.

**Abesti bat:** *Haizeak daroma*, Eneko Labegerie.

**Ametsetako bat:** Utopikoa, injustiziak amaitzea. Errealista, gustuko lan bat aurkitzea.

**Kirol gustukoena:** Mendian ibiltzea.

**Kolore bat:** Berdea.

**Egindako azken bidaiak:** Errusia.

**Ametsetako bidaiak:** Egipto.

**Argazki erakusketa non:** Norberaren herrian egitea litzateke omenaldi politena.



Zuriñe Madinabeitia, argazki kamera eskuan eta Sitgesko akreditazioaz.



## ASTEAGOIENAN



JOSU TXINTXURRETA

## 'Harira' saio berria alkateak izango ditugu

Datorren martitzenean saio berria estreinatuko du Goiena telebis-tak: *Harira*. Eneko Azkaratek aurkeztuta, elkarrizketa saioa izango da. Datorren martitzenean Oñatiko alkate Mikel Biain izango da lehenengo gonbidatua.

'Harira'  
Martitzena, 21:33



AMAI TXINTXURRETA

## Aratusteen saio berezia izango duzue ikusgai

Aurtengo Aratuste jaiek eman-dako onena ikusi ahal izango duzue saio berezian. Egubakoitzean 17:11n eta 21:53an emitituko dugu. Zapatuan 15:20an eta 22:02an eta domekan, berriz, 16:48an eta 20:18an.

'Jaiak: Aratusteak 2012'  
Egubakoitza, 17:11

## GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 24

12:30 Magazinea  
13:30 Gipuzkoa kultura  
13:55 Kantari  
14:22 Onein  
14:47 Berriak  
15:14 28. Klip  
15:38 Bizitegia  
16:08 Leku txiki bat  
16:38 Berriak  
17:11 Jaiak: Aratusteak 2012  
17:56 Beranduegi.tv  
18:16 Berriak  
18:51 Kantari  
19:23 Magazinea  
20:23 Gipuzkoa kultura  
20:53 Magazinea  
21:53 Jaiak: Aratusteak 2012  
22:38 Magazinea  
23:38 28. Klip

ZAPATUA, 25

10:00 Kantari  
10:30 Ipupomamua  
11:00 28. Klip  
11:24 Erreportajea: Orakunde  
12:08 Kantari  
12:38 Ur eta lur  
13:08 Onein  
13:35 Berriak  
13:50 Magazinea  
14:50 Gipuzkoa kultura  
15:20 Jaiak: Aratusteak 2012  
16:20 Berriak  
16:35 Onein  
17:00 Kantari  
18:00 Gipuzkoa kultura  
18:30 Erreportajea: Moda zapore  
19:01 Kantari  
19:31 Berbaz  
20:31 Beranduegi.tv  
21:02 Magazinea  
22:02 Jaiak: Aratusteak  
23:02 Gipuzkoa kultura  
23:32 Bizitegia

DOMEKA, 26

10:00 Kantari  
10:30 Ipupomamua  
11:00 Kantari  
11:30 Magazinea  
12:30 Bizitegia  
12:55 Kantari  
13:22 Erreportajea: Orakunde  
14:06 Onein  
14:33 Gipuzkoa kultura  
15:03 Berbaz  
16:03 Kantari  
16:33 Berriak  
16:48 Jaiak: Aratusteak  
17:48 Gipuzkoa kultura  
18:23 Berriak  
18:38 Magazinea  
19:38 Walker  
20:03 Beranduegi.tv  
20:18 Jaiak: Aratusteak  
21:18 Erreportajea: Moda zapore  
21:49 Magazinea  
22:49 Berriak  
23:04 Bizitegia  
23:34 Magazinea

ASTELEHENA, 27

12:25 Magazinea  
13:25 Onein  
13:55 Kantari  
14:28 Beranduegi.tv  
14:45 Berriak  
15:15 Ikusmira  
15:42 Ur eta lur  
16:12 Erreportajea: Moda zapore  
16:43 Berriak  
17:13 Ur eta lur  
17:43 28. Klip  
18:10 Onein  
18:40 Berriak  
19:10 Kantari  
19:40 Magazinea  
20:40 Harmailatik  
21:25 Magazinea  
22:25 Harmailatik  
23:10 Gipuzkoa kultura  
00:03 Altxor Txokoa

MARTITZENA, 28

12:30 Magazinea  
13:30 Harmailatik  
14:15 Kantari  
14:45 Berriak  
15:15 Beranduegi.tv  
15:36 Harmailatik  
16:19 Onein  
16:45 Berriak  
17:15 Bizitegia  
17:45 Harmailatik  
18:30 28. Klip  
18:54 Berriak  
19:21 Kantari  
19:48 Magazinea  
20:48 Erreportajea: Moda zapore  
21:18 Beranduegi.tv  
21:33 Harira  
22:18 Magazinea  
23:18 Harira

EGUAZTENA, 29

12:15 Magazinea  
13:15 Harira  
14:00 Beranduegi.tv  
14:15 Kantari  
14:45 Berriak  
15:15 Gipuzkoa kultura  
15:45 Onein  
16:13 Berbetan  
16:48 Berriak  
17:18 Altxor Txokoa  
17:50 Walker  
18:15 Harmailatik  
18:55 Berriak  
19:20 Kantari  
19:50 Magazinea  
20:50 Bizitegia  
21:20 Magazinea  
22:20 Berbaz  
23:20 Magazinea

EGUENA, 1

12:30 Magazinea  
13:30 Gipuzkoa kultura  
13:55 Kantari  
14:20 Bizitegia  
14:45 Berriak  
15:15 Onein  
15:42 Berbaz  
16:42 Berriak  
17:12 Kantari  
17:42 Ikusmira  
18:09 Beranduegi.tv  
18:26 Onein  
18:46 Berriak  
19:16 Kantari  
19:46 Magazinea  
20:46 Bizitegia  
21:16 Magazinea  
22:16 Gipuzkoa kultura  
22:46 Erreportajea: Moda zapore  
23:16 Magazinea  
00:34 28. Klip

## ARRASATE IRRATIA

## Ingurumen batzordeburiari elkarrizketa

Josu Pereda Ingurumen batzordeburiari izango da Arrasate Irratian eguaztenean, zuzenean, 10:30ean. Ingurumen Sailak 2012rako dituen asmo eta lehentasunez jardungo dugu, besteak beste, Peredarekin *Igo autobusera!* irratsaioan.

## 'Aita, zombia naiz' filmerako sarrerak ditugu zozketan

*Aita, zombia naiz* filma ikusteko sarrerak eta kamisetak ditugu zozketan. Film hori ikusgai dagoen edozein zinema aretotan erabiltzeko sarrerak dira. Parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)-era.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## ARRASATE

Zapatua, 25	CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Domeka, 26	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Astelehena, 27	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 28	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguaztena, 29	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguena, 1	ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Egubakoitza, 2	A. AZKOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15

## BERGARA

Zapatua, 25	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Domeka, 26	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Astelehena, 27	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Martitzena, 28	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 29	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 1	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 2	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63

## OÑATI

Zapatua, 25	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 26	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 27	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 28	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 29	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 1	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 2	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28

## ARETXABALETAK / ESKORIATZA

Zapatua, 25	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Domeka, 26	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Astelehena, 27	ANITUA	Belorrieta, 1 (Are.)	943 08 11 43
Martitzena, 28	ANITUA	Belorrieta, 1 (Are.)	943 08 11 43
Eguaztena, 29	ANITUA	Belorrieta, 1 (Are.)	943 08 11 43
Eguena, 1	ANITUA	Belorrieta, 1 (Are.)	943 08 11 43
Egubakoitza, 2	ANITUA	Belorrieta, 1 (Are.)	943 08 11 43

Farmazien eskuko telefonotarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta ([www.althria.es](http://www.althria.es)).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA



Max. 12°  
Min. 7°



Max. 12°  
Min. 7°

**ZAPATUA, 25**  
Zapatua goibetik dator. Zeru oso hodeitsu egongo da eta noiz-behinka euri txikia egin lezake.

**DOMEKA, 26**  
Ildo beretik jarraituko du. Iparraldeko haize ahula ibiliko da, tarteka bizi. Temperatura berdintsu mantenduko da.


## EUSKAL HERRIA



Ipar partean zeru oso hodeitsu egongo da, hegoaldean, berriz, ostarteak zabalduko dira.

## ESKER ONA

## Jose Manuel Zurutuza Goiburu



2012ko otsailaren 18an hil zen, 62 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2012ko otsailaren 24an.

## ESKER ONA

## Mila Arregi Letamendi



Oñatin hil zen 2012ko otsailaren 15ean, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2012ko otsailaren 24an.

## URTEURRENA

**Bixente  
Markuleta Azurmendi**

1917-09-01 / 2011-02-24

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, otsailaren 25ean, 19:30ean,  
Oñatiko agustindarren elizan izango da.

Aldez aurretik esker on bertaratzen zareten guztoi.

## OROIGARRIA

**Sabino  
Elkorobarrutia Lamarain**

'Intxulintxa'

Arrasaten hil zen 2012ko otsailaren 16an, 79 urte zituela.

*Berdintasuna eta  
Eskuzabaltasuna  
Izan dira zure bizitzaren  
Ezaugarri  
Indarra eta laguntza oinarri  
Hauek eta zure maitasuna  
Dira guretzat oroigarri*

Emazte, seme-alaba eta bilobak.  
Arrasaten, 2012ko otsailaren 24an.

**Nerea eta Roberto**

Nerea Rozas eta Roberto Moreno zapatuan ezkonduko dira, Arantzazun, eta Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dute ospakizuna. Ondoren, AEBetara joango dira eztei-bidaian. Lagun guztien partetik, zorionak, bikote!

## URTEURRENA

**Marivi  
Ugarte Garai**

Iruñean hil zen 2011ko otsailaren 25ean, 54 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, otsailaren 25ean, 19:00etan,  
Arrasateko San Frantzisko elizan izango da.

Elizkizunera joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerri asko sendikoen izenean.

## OROIGARRIA


**Bixente  
Pagoaga Gallastegi**

2012ko otsailaren 16an hil zen, 65 urte zituela.

Txatxilipuri guztien partetik, eskerrik beroenak Bixenteri eman izan  
digu laguntza guztiagatik, eta doluminak sendi osoari  
eta, bereziki, Irati gure lehendakari zein Itsaso gure lankideari.



Txatxilipuri elkarte.  
Arrasaten, 2012ko otsailaren 24an.

**Dolores eta Jose Felix**

Dolores Obeso eta Jose Felix de Benito. Otsailaren 21an. Zorionak, bikote! Jada 25 urte bete dituzue ezkondua! Ea beste hainbeste izaten diren eta orain arte bezain zoriontsu izaten zareten! Besarkada handi bat, Oñatiko familia guztiaren partetik.

## URTEURRENA

**Eli  
Zuazabeitia Zuazua**

Aretxabaletan hil zen 2011ko otsailaren 24an.

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 26an,  
11:30ean, Aretxabaletako Andra Mariaren parrokiari ospatuko da.

Urtebete pasatu arren, egunera akordatzen gara zutaz.

Elizkizunetara joango zaretenoi  
aldez aurretik eskerri asko sendikoen izenean.

## OROIGARRIA

**Bixente  
Pagoaga Gallastegi**

2012ko otsailaren 16an hil zen, 65 urte zituela.

*Nun hago zer larretan,  
Degurixako artzaina...*



Santamas Komisiñue.  
Arrasaten, 2012ko otsailaren 24an.

## ESKER ONA

**Daniel  
Mendizabal Ayastuy**

2012ko otsailaren 17an hil zen, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,  
eskerri asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2012ko otsailaren 24an.

## ESKER ONA

**Bixente  
Pagoaga Gallastegi**

2012ko otsailaren 16an hil zen, 65 urte zituela.

Familiak eskerrak eman nahi ditu.

Domekan, otsailaren 26an, ondra meza izango da  
11:00etan, San Joan Bataiatzailearen parrokiari.

Arrasaten, 2012ko otsailaren 24an.

## ESKER ONA

**Jose  
Erdabide Etxaniz**

Bergaran hil zen 2012ko otsailaren 15ean, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,  
eskerri asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2012ko otsailaren 24an.

## ESKER ONA

**Tomas  
Bakaikoa Sotil**

Antzuolan hil zen 2012ko otsailaren 16an, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,  
eskerri asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2012ko otsailaren 24an.

## HILDAKOAK

**Mila Arregi Letamendi.** Oñatin, otsailaren 15ean. 77 urte.

**Jose Erdabide Etxaniz.** Bergaran, otsailaren 15ean. 87 urte.

**Tomas Bakaikoa Sotil.** Antzuolan, otsailaren 16an. 71 urte.

**Bixente Pagoaga Gallastegi.** Arrasaten, otsailaren 16an. 65 urte.

**Maria Ortiz Sanchez.** Arrasaten, otsailaren 16an. 79 urte.

**Imanol Azpiazu Alberdi.** Bergaran, otsailaren 16an. 79 urte.

**Sabino Elkorobarrutia Lamarain.** Arrasaten, otsailaren 16an. 79 urte.

**M. Teresa Usatorre Pagoaga.** Bergaran, otsailaren 16an. 81 urte.

**Daniel Mendizabal Ayastuy.** Antzuolan, otsailaren 17an. 91 urte.

**Mercedes Vazquez Fernandez.** Bergaran, otsailaren 17an. 71 urte.

**M. Resurreccion Abad Saiz.** Arrasaten, otsailaren 17an. 84 urte.

**Jose Manuel Zurutuza Goiburu.** Bergaran, otsailaren 18an. 62 urte.

**Felipe Aierbe Rincon.** Arrasaten, otsailaren 19an. 82 urte.

**Elisa Aranburu Kerejeta.** Oñatin, otsailaren 20an. 93 urte.

**Cristino Diaz Perez.** Bergaran, otsailaren 20an. 76 urte.

**Tomas Barrutiabengoa Gaztañaga.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 93 urte.

**Pedro Barrena Odriozola.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 89 urte.

**Angel Altuna Lazkanoiturburu.** Oñatin, otsailaren 21ean. 85 urte.

**Andres Jodar Ruiz.** Eskoriatzan, otsailaren 21ean. 56 urte.

**Francisco Roca Serra.** Bergaran, otsailaren 22an. 83 urte.

Babeslea:

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

**OÑATI 'Mercados de futuro'**  
filma

Ingurumen Astearren barruan kokatzen da proiektzioa. Mercedes Alvarez da zuzendaria eta ondasunen bizi-zikloa aztertzen da hausnarketaz beteriko film horretan.

Martxoaren 1ean, Kultur Etxean, 20:00etan.



ANAI-ARREBAK



ILARGIARENBIALDEAK.BLOGSPOT.COM

**ARRASATE 'Ilargiaren bi aldeak'**

Hika Teatro taldeak familia guztiarentzat prestatu duen ikuskizuna. Oso egoera ezberdinetan bizi diren bi haurren istorio ederra da. Zirkua, antzerkia, dantza eta ikuskizuna uztartzen ditu.

Zapatuan, Amaia antzokian, 17:00etan.

**MUSIKA****BERGARA Belceblues**

*Diabolus in Musica* disko berria aurkeztuko du herriko taldeak. Martxoaren 1a, eguena, Paulaner Tabernan, 20:00etan.

**ESKORIATZA Anai-Arrebak**

Aitzorrotzek antolatuta, Anai-Arrebak taldearen rock eta punk dantzagarria. Otsailaren 25a, zapatua, Inkernu tabernan, 22:30ean.

**BERGARA La Pop'lla eta Manillares Iturriaga**

Irratigintzari buruzko egun oso jardunaldiei amaiera emateko La Pop'lla eta Manillares Iturriaga tributu taldeak izango dira Bergarako gaztetxean. Otsailaren 25a, zapatua, Bergarako gaztetxean, 22:00etan.

**ELGETA Markos Untzeta**

Kontzertua eskainiko du bakar-lariak. Otsailaren 24a, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 22:30ean.

**OÑATI Sharon Stoner eta Trumbo**

Sharon Stoner aspaldi honetan agertokietatik aldentuta ibili ondoren, disko berria aurkeztera dator, zapalgailu itzeleko stoner doinuekin. Trumbo, oster, Kashbad, Naüt, Neubat eta Sorkun taldeetan ibilitako kideek osatutako talde berria da. Rock doinuak, astunak, baina ukitu dotoreekin.

Otsailaren 24a, egubakoitza, Gaztelekuan 22:00etan.

**ANTZERKIA****BERGARA 'Murren bidaia'**  
ikuskizuna

Behibi's Teatro taldeak *Murren bidaia* antzezlan eskainiko du umeendako. Sarrera 3 euro. Otsailaren 25a, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

**ARRASATE 'Ilargiaren bi aldeak'**

Antzerkia, dantza eta zirkua nahasten dituen ikuskizuna, bi gaztetxo protagonista dituena. Hika Teatro taldearen eskutik, familia osaoarentzat gomendagarria da.

Otsailaren 25a, zapatua, Amaian, 17:00etan

**NON-ZER**

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

OTSAILA 24  
MARTXOA 1

**ESKORIATZA 'Bua txabal!'**  
antzezlan

Jon Zubiagaren *Bua txabal!* antzezlan ikusteko aukera izango da. Sarrera deialde da. Otsailaren 24a, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

**DANTZA****ELGETA 'Herrixa dantzan' berezia: haurrak eta gurasoak elkarrekin dantzan**

5-11 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzendutako saio berezia. Parte hartu nahi duen edo-

zeinendako ere zabalik. Ohi bezala, sarrera doan eta parte-hartzea libre. Ondoren, 19:00etan, *Herrixa dantzan* ohiko saioa. Otsailaren 26a, domeka Espaloia Kafe Antzokia 18:00etan eta 19:00etan ohiko saioa.

**ARRASATE 'Herrixa dantzan'**

Gidatutako dantzaldi irekia da *Herrixa dantzan*, Euskal Herriko eta, oro har, Europa osoko dantza tradizional ludikoekin osatutakoa (sokan, borobilean, bikoteka... denetarik). Helburua, adin askotariko herritar soilek dantzan elkarrekin gozatzea. Sarrera doan. Taberna zabalik, aparkalekua eta herriko autobusa badaude.

Gaur, egubakoitza, Garaia taberna-jatetxean, 20:00etan.

**OSPAKIZUNAK****ARETXABALETA Lodosako Ikastolaren aldeko ekitaldiak**

Lodosako ikastolaren aldeko ekitaldia egingo dute Arizmendi Ikastolakoek. 15:30ean Almen eta Basabeazpiko ikasleen ekitaldia, 17:00etan trikitilariak eta haurrentzako tailerrak. Arratsalde, 17:30ean Loramendi bertso-eskolako saioa, 18:00etan kantu herrikoiak, 18:30ean herritarrek

dantzan. Azkenik, 19:00etan bukarako ekitaldia: txalapartariak, bertsolariak, Ibaialde eta Arizmendi Ikastolako ordezkarien agurra.

Otsailaren 24a, egubakoitza, Herriko Plazan, 15:30ean.

**IRTEERA****ELGETA Bisita gidatua lubakietara**

10:00etan abiatuko da Espaloitx Intxortako ibilbide tematikoa ezagutzeko bisita gidatua. Izena emateko deitu 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakira.

Otsailaren 26a, domeka, Espaloiko interpretazio gunetik, 10:00etan.

**ARETXABALETA Irteera Apotzaga aldera**

Aretxabaletako Gurabari guraso elkarteak ibilaldia antolatuko du. Kurtzebarri ikastetxeko kantzatik 10:00etan irten, eta hona ibilbidea: Apotzagaetxebarri auzoa, Salluente ermita (San Blas), Apotzaga, Galartza eta Aretxabaleta.

Otsailaren 25a, zapatua, Kurtzebarri eskolako kantzian, 10:00etan.

**HITZALDIK****BERGARA Hitzaldia: 'Udaberria prestatu: sendabelarrak eta elikadura'**

Hizlariak: EKI-LUREko Arantza zu Iñarra (Elikagaien Zientzian eta Teknologian lizentziaduna) eta M. Angeles Ortiz (Farmazian lizentziaduna). Udaberriren izaten diren gorputz aldaketan eta gaitzen tratamendu fitoterapikoa eta elikagaien balioa aztertuko da. Depurazioa, alergiak, nekea (udaberriko astenia), eguzkirako azala prestatzea, argaltzeko produktuak...

Martxoaren 1a, eguena, Miguel Altuna Institutuan, 18:00etan.

**ELGETA Bularreko minbizia hizpide**

Kattalin elkarteko kideen eskutik bularreko minbizia izango dute hizpide Espaloian. Hitzaldi irekia, baina Elgetako 50-69 urte bitarteko emakumeei bereziki zuzendua.

Otsailaren 28a, eguaztena Espaloia kafe antzokian, 18:00etan.



TANTAKA

**ESKORIATZA Anai-arrebak**

Rock eta punk dantzagarriekin proposamen freskoa dakar talde berri honek. Musikazale askoren ustez, iazko errebelazioa izan ziren,

baina atzean aspaldiko ezagunak daude; tartean, Jousilouli taldeko kideak. Zuzeneko dibertigarria eta harrigarria, euskal panoraman berria.

Zapatuan, Inkernu tabernan, 22:30ean.





# goiena

2012-02-24

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

## Bergararik munduko moda pasareletara

- ▶ Andoni Gartzia bergararrak 23 urte ditu eta momentu honetan Istanbulen bizi eta lan egiten du
- ▶ Kolonbian egin zituen modelo moduan lehen lanak, eta laster Shanghaira joateko asmoa du

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Munduko pasareletan barrena modelo lanetan ibiliko zela pentsatu ere ez zuen egingo, baina bizitzak mila buelta ematen ditu, eta Andoni Gartzia bergararren kasuan horixe izan zen duela urte batzuk Kolonbian bizitzak berrendako prestatuta zeukan sorpresa: "Hego Amerikan barrena bidaiatzen nengibilen lagun batzuekin, eta Kolonbiara, Medellin hiriburura, iritsi ginen; lo egiteko leku bila genbiltzanean emakume bat gerturatu zitzaigun laguntza eskaintzera. Hark proposatu zidan modelo lanak egitea eta bertan geratu nintzen bi urtez".

Etxean ondo hartu zuten Kolonbiatik iritsitako berria; bergararrak kontatu digu familiaren babesa izan duela beti. Kolonbian igarotako bi urteak, gainera, oso emankorrak izan ziren eta moda desfile garrantzitsuetan parte hartu zuen. Horrez gain, gizonetako modelo onenaren saria lortzeko izendatua izan zen bi bider.

### Txinarako bidean...

Gaur egun Istanbulen bizi eta lan egiten du. Oso pozik dago bizileku berriarekin, baina dagoeneko baditu beste asmo batzuk eta baliteke laster Shanghaira joatea:



Andoni Gartzia, modelo lanetan. | AG.



"Istanbulen oso pozik nago. Bi hilabete inguru daramatzat hemen eta kanpaina askotan parte hartu dut. Lan asko dago. Batez ere, Turkiako markendako ari naiz lanean. Kolonbiarekin alderatuta, erritmoa askoz azkarragoa da hemen. Ia egunero lan egiten dut. Pozik nagoen arren, asmoa da laster Shanghaira joatea; niretako merkatu ona izan daitekeela uste dut".

### Makillaje eta arropa artean

Gartzia gustuko du egiten duen lana, "bidaiatzeko eta kultura ezberdinak ezagutzeko" aukera ematen diolako. Bestalde, makillajea, ile-orrakera arraroak eta arropa probatu beharra da gutxien gustatzen zaiona.

Modelo izateak ligatzeko laguntzen duen galdetuta, irribarre batekin diosku ezin dela kexatu. Eta nola lortu horrelako gorputza? Zein da sekretua? Kirol asko egiten duela kontatu digu: "Futbola, saskibaloia, tenisa... kirola asko gustatzen zait. Elikadura ere ahalgintzen naiz zaintzen, baina txokolataa bizioa da niretzat". Begi berde horiekin eta berezko duen gertutasunarekin urruti iritsiko da, seguruenik, bergararra. Zorte on Shanghain!

### AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



### Iberdrola eta mantak

H otzak akatzen daudelako egin dute protesta Valentziako ikasleek. Mantekin joan behar dutelako instituturako. Komuneko paperik ere ez dutelako. Horregatik atera dira kalera. Baldintza duinetan ikasi nahi dute. Eta majo egurtu dituzte.

Euskal Herrian, Bilboko Iberdrola dorrea izan da albiste. 200 milioi euroko eraikinaren inaugurazioa. Krisi garaian hainbesteko dirutza gastatzea kritikatu dute batzuek. Espainiako errege-erreginen bisita beste batzuek. Garoñako zentral nuklearraren kontra ere egin dute protesta, dorrearen aurrean.

Iberdrola %3,5 hazi da 2011n. Aurreko urteetan baino gehiago. Nola ez, argiaren prezioa nola igo duten ikusita. Horrela edonork egin dezake abangoardiako gaztelua. Eta, hara non, eraikina saritu egingo ei dute laster: Leed Platino saria. Ekologikoa omen delako. Energia aurrezteko dagoelako diseinatuta. Ederra adar-jotzea: beste guztiek gastatu, eta beraiek aurreztu!

Martxa honetan etxean mantak erabili beharko ditugu denok, berogailua piztu ordez. Eta kalera atera beharko dugu, protesta egitera. Baldintza duinetan bizitzeko. Komuneko paperik gabe geratu aurretik.

PREST  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

"MU unibertsitate praktiko, euskalduna eta gertukoa da"

Oihan Vitoria 20 urteko arrasatearra da eta Ikus-entzunezko komunikazioa graduaren 3. maila ikasten dihardu MONDRAGON UNIBERTSITATEko Huhezi Fakultatean.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



### Zergatik aukeratu zenuen MU?

Bilatzen nuen guztia eskaintzen zidalako hautatu nuen MU: gertutasuna, lan merkatura irtenbideak, ikasgaiak euskaraz izatea. Erabakia hartzea zaila izan zen, beste unibertsitate batera joateko aukera ere banuelako. Edonola ere, aurrez unibertsitatean egondako ikasleekin hitz eginda, zalantza guztiak argitu nituen eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAn matrikulatzea erabaki nuen.

### Bere ezaugarrietatik, zeintzuk dira gehien baloratzen dituzunak ikasle bezala?

Unibertsitateko ezaugarri guztietatik nabarmenduko nukeena euskalduna, praktikoa eta gertukoa dela da. Graduan zehar badira ingelesez eta gaztelaniaz

ematen diren materialak, baina guztiaren gainetik euskarazko hezkuntza sistema bermatzen du unibertsitateak. Eskertzen dudak zerbait klaseak praktikoak izatea da, hau da, gehienetan zerbait ezberdina egiten dugu irakaslearen sermoiak entzuten egon beharrean. Horrez gain, praktikak lortzerakoan enprekin dituzten harreman zuzenak baloratzeak dira.

### Nolako da irakasleekin harremana?

Irakasleekin harremana oso gertukoa da. Beti gure gainean daude eta ez dago irakasle eta ikasleen arteko ezberdintasun hori, garai batean bezala. Irakasleak klaseko kide bat gehiago dira eta euren eginbeharra, gure ezagutza handitzen laguntzea da.